



Gazteak eta kirol apustuak: lotura arriskutsua

Javier Luxor mentalistari elkarrizketa



ESKUALDEKO KIROLAK MEREZITAKO AITORTZA, EKITALDI IKUSGARRIAN

Maialen Axpe, Xabier Infante, Martin Perez eta Ointxe Araski saskibaloitza taldea, Debagoieneko Kirol Sariak 2018ren sari nagusiak / 36

Debagoieneko Kirol Sariak 2018n sariak lortu dituzten kirolari guztiak Amaia Antzokiko agertokian ekitaldia amaitu ostean. IMANOL SORIANO



Debagoieneko zazpi taldek jokatu dute Euskadiko First League Legoko finala Gasteizen zapatuan / 5

Espainiako gerrako eta gerra osteko errepresaliatuen liburuak jakingura piztu du Arrasaten / 11

Udalarekin tramite guztiak leihatila bakarrean egin ditzakete bergarrek / 24

Aramaioko alkateak dio Espainiako Gobernua "adarra jotzen" ari dela AHTa dela-eta / 14

SINADURAK

	IRATI ITZIAR / 6		ASIER ELORZA / 24
	ENEKO FERNANDEZ / 9		XABI GESALAGA / 33
	MIKEL IRIZAR / 48		

T-ROC BERRIA

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoen etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 19 70

SEAT



Kulturola proiektuaren eraikinaren proposamena. ARRASATEKO UDALA



Seminario azpiko 86 aparkalekuen diseinua. BEB ARKITEKTOAK



Oñatiko Zubikoa kiroldegia egun. OIHANA ELORTZA



Aretxabaletako Loramendi kalea, asfaltatu aurretik. MIRARI ALTUBE



Eskoriatzako San Pedro Auzoko Partxis jolas-parkea. IMANOL BELOKI



Antzuolako Olaran Etxea. MAIDER ARREGI

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Arrasateren kasuan, Kulturola proiektua izango da 2019rako proiektu izarra, otsailaren 5eko osoko bilkuran aho batez lanen esleipena onartua izan ondoren. Sei milioi euro eta erdi inguruko inbertsioa aurreikusten du Udalak, BEZa barne, eta 2021eko uda parterako Kulturola "mar-txan egotea" da asmoa.

Herriko hemezortzi kultura talde batuko dira Kulturolan eta Udal Euskaltegi berriak hartuko du azalera handiena; gainerako taldeak dagoeneko Zer-rajerako eraikinean daudenak izango dira batzuk eta herriko beste gune batzuetan banatuta daudenak beste batzuk. Izan ere, talde horien guztien arteko sinergiak aprobetxatzea ere bada egitasmoaren helburu nagusietako bat.

Bergaran, 86 aparkaleku berri

Seminario azpian eraikiko den parking berria izango da Bergarako proiektu izarra. Laukizuzen itxurakoa, solairu bakarrean eta errotazio bidez funtzionatuko duten 86 aparkaleku berri izango ditu; horietatik hiru mugikortasun mugak dituztenentzat izango dira eta beste lau, ibilgailu elektrikoentzat. Proiektuaren idazketa BEB Arkitektoak estudiokoei adjudika-

2019rako herri bakoitzak duen proiektu nagusia

Agintaldia amaitzear bada ere, Debagoieneko udalek proiektu 'potolo' asko dituzte aurreikusita 2019rako: kulturaguneak, aparkalekuak, kiroldegia, jolas-parkeak, kaleen konponketak, eta abar. Herri bakoitzak proiektu nagusiaren berri eman du

tu zitzaizen 34.425 eurotan. Exekuziorako 1.400.000 euroko aurrekontua du Udalak, horietatik 1.120.000 euro mailegu bidez lortuta. Parkingaren sarrera eta irteera Ibargaraitik izango dira, Justo Garate plazaren azpian

ARRASATEN KULTURGUNEA, BERGARAN APARKALEKUAK ETA OÑATIN KIROLDEGIA

dagoen aparkalekuko sarrerari paralelo, eta bi sarrera-irteerak errazteko biribilgune erdi bat egitea proposatzen da. Oinezkoendako bi sarrera aurreikusten dira, bata Ibargarai kaletik eta bestea Herri Lagunak kale-ara ematen duen plazatxotik.

Oñatin, kiroldegia berritzea
2019ko bigarren seihilekoan hasiko dira Zubikoa kiroldegiko berritze lanak. Lehenengo egingo dituzten lanak kanpoaldekoak izango dira; lur mugimenduak

berdintzekoak, esaterako. Eta kiroldegi barruko lanak 2020an egingo dituzte. Lanak, baina, zatika egingo dituzte, kiroldegia ahalik eta denbora gutxien egon dadin erabat itxita.

OROKORREAN, BERRITZE ETA KONPONTZE LANEI EMANGO ZAIE LEHENTASUNA

Igerilekuak handitzetik hasiko dituzten lanak; egun, bost kale daude, eta bederatzia egongo dira gero igerileku handian. Putzu txikia ere handituko dute. Asmoa da galdara handi bat jartzea, kantxetako aldageletan ur beroa egon dadin. Kantxa berdean ere egingo dituzte hobekuntzak, eta horiek partidu gutxiago jokatzen diren sasoian egingo dituzte; udan, ziurrenik.

Joan den astean, obren inguruko hitzarmena sinatu zuen Udalak Aldundiarekin. Eraberritzeko proiektu osoaren kostua 5.823.954 euro gehi BEZa izango da eta Aldundiak 453.920 euro jarriko ditu; 2019rako 2,5 milioi daude gordeta aurrekontuetan. Laster egingo du Udalak proiektuaren aurkezpena. Kiroldegia- ren diseinuaz, berriz, LKS enpresa arduratuko da.

Aretxabaletan, kale asfaltatzeak

Herriko hainbat kale asfaltatuko dituzte Aretxabaletan; Bizkaia eta Loramendi, esaterako. Belorrietako biribilgunetik Araba ibilbiderainoko zatia egokituko dute eta hiru zebra-bide altxatu jarri. Bestetik, Errekabarren kalea ere konponduko dute, Otalora kaletik mojen komentura bitartean, eta ezker aldean espaloitxo bat egingo diote. Asfaltatze-lan horiek aste honetan



Aramaioko musika eskolako ikasleak entseatzten. AMAIA ZABALA



Artekale kaleko aparkalekuak eta autobus geltokia. LARRAIZ ZEBERIO



Leintz Gatzagako Santa Kolunba ermita gaur egun. JOANNES MENDIZABAL

esleitu dizkiote Provisa etxeari eta kostua 458.000 eurokoa izango da.

Eskoriatzan, jolas-parkea

Eskoriatzan San Pedro auzoan Manuel Muñoz kirolegi aurrean dagoen Partxis jolas-parkea berritzea da 2019ko proiektu nagusia. Izan ere, zorua "oso irristakorra" eta jolas-parkea "oso zaharkitua" zeuden, eta, herritarren eskaerei erantzunez, Udalak lehentasuna eman dio proiektu horri. Horretarako, 80.000 euroko aurrekontua aurreikusten dute.

Antzuolan, Olan Etxea

Olarango eraikina zaharkitua geratu da eta gaur egun ez du irisgarritasun araudia betetzen, eta, ondorioz, Udalak barrutik igogailua jartzeko aurreproiektu bat egin du. Bide batez, komunak eta telekomunikazio instalazioak ere berrituko dituzte.

Horretaz gain, goiko solairuan areto handi bat egingo dute. beheko solairuan dagoenaren tamainakoa. Inbertsioa 170.000 eurokoa da eta bi urtean ordainduko da. Aurten 90.000 euro eta 2020an 80.000 euro.

Aramaioren, musika etxea

Egun, musika eskolako ikasleekin ikastetxean eta kultur etxean egiten dituzte entseguak, sakanaturik. Ondorioz, Aramaioko Udalak musika etxe bakar bat eraikitzeko asmoa du, musika ikasleen "elkargune" izan dadin. Pedro Inazio Barrutia kaleko etxabe batean kokatuko da, elizaren alboan.

246.000 euro inguruko inbertsioa izango da eta Aldundiarekin elkarlanean finantzatu du Udalak. 2019an lokala egituratze-lanekin hasia aurreikusten dute.

Elgetan, uren bereizketa

Elgetan 2019rako aurreikusten den inbertsio nagusia 30.000 bat eurokoa da. Artekale kalean berezi behar dituzte euri urak eta ur zikinak. Lanen erdia Gipuzkoako Urak-ek ordainduko ditu –ur zikinaren saneamendua– eta beste zatia Udalak –euri uren eskumena Udalarena da–. Lan horiek egitekoak direla baliatuta, inguru horretan estu dauden aparkaleku batzuk ondo jarriko dituzte eta bertan gelditzen den Eibarrerako autobusentzako –taxibus zerbitzua da– geldileku egokiagoa egingo dute.

Leintz Gatzagan, ermita

2019ari begira, Gatz Museoaren proiektuari beste bultzada bat emango zaio, museoaren proiektu orokorraren bigarren fasea aurrera eramango baita. Oraingoz, gatz produkzioa ez dute handituko eta Santa Kolunbako ermita eraberritzeari emango diote lehentasuna, bertan harri eta informazio-gunea eta museoko produktuen salmentarako denda jartzeko. Eraberritze lanen kostua 100.000 euro ingurukoa izango da eta lanen esleipena "aurki" egingo da, lanak "ahal bezain lasterren" hasteko.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



Markel Olano, Jose Ignacio Asensio eta Denis Itxaso. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Hamar urtez hondakinen kudeaketa eta plangintza arautuko duen plana

Gipuzkoako Batzar Nagusiek martxoaren 6an onartuko dute behin betiko Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (2019-2030); EH Bildu aurka azaldu da eta adierazi du planarekin ez dela "hondakinen kudeaketaren arazoa konponduko"

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Abenduan aurkeztu zuen Foru Aldundiak Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra, eta plan hori foru arau bilakatuko da, ezustekorik ezean, martxoaren 6an, Batzar Nagusiek behin betiko onarpena eman ostean.

Aldundiaren esanetan, foru arau berriaren helburua da Gipuzkoak ekonomia zirkularreko, prebentzioko eta klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko politika aktiboak sustatzea, arlo horretan Europar ezarritako dauden helburuak eta zuzentzarauak txertatuz. Era berean, Zubietako "ingurumen plantako" lanak ia amaituta daudela jakinarazi du Diputazioak, eta lehenengo planta "martxorako" aurreikusitako dutela. "Ingurumen gune" horrek 250 lanpostu sortuko dituela aurreratu du Al-

dundiak. Horrekin batera, nabarmendu du konposta sortzeko oinarritzko produktuen %25 gehiago ekoiztuko duela eta zabortegietan oinarritutako arazoak kudeaketa sistemaren CO2 isurien 72.000 tona murriztuko dituela. "Hondakinen birziklatzearen eta balorizazioaren zirkulua itxiko du, eta Gipuzkoa prest utziko du ekonomia zirkularren eta klima aldaketaren erronkari aurre egiteko", dio Jose Ignacio Asensiok, Ingurumen diputatuak.

Azken honek azaldu duenez, plan berri horren helburua da

DIPUTAZIOAK DIO BIRZIKLATZEAREN ETA BALORIZAZIOAREN ZIRKULUA ITXIKO DUELA PLAN BERRIAK

birziklapenean %70 lortzea, "Europak 2030erako ezartzen duena baino bost puntu gehiago".

Ingurumen diputatuarekin batera, Markel Olano diputatu nagusiak eta Denis Itxaso diputatu nagusiordeak nabarmendu dute plan berria "Gipuzkoako egungo historiaren gertaera go-goangarria" dela.

Itxasoren esanetan, hondakinen arazoari "behin betiko" konponbidea emango dio horrek, "zabortegien erabileran oinarritutako eredu zaharra gaindituz eta kudeaketa jasangarrirantz aurrera eginez".

Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarkide den Xabier Ezeizabarrena jeltzalea "pozik" azaldu da planarekin, eta dio Europako hondakinen kudeaketa estrategiarekin bat datorrela. "Prebentzio, murrizketa eta hondakinen birziklapen arloetan herrialde



Otsailaren 23ko manifestaziora agertzeko deia zabaldu dute. GURASOS

GuraSOS elkartearen agerraldia

Zubietako planta ustiatzeko baimena duten enpresen *Ingurumen Kultura eta Komunikazio Plana* dokumentua ezagutarazi du GuraSOS elkarteak aste honetan. Dokumentuaren zehaztasunak ezagutzera ematearekin batera, eskuratu ahal izan duten dokumentazioa prozesatzen joan ahala xehetasun gehiago plazaratuko dituela iragarri du. "Paradoxikoki, dokumentuak erraustegi 'proiektuaren aurkako taldeen eragina txikiagotzeko' beharra azpimarratzen du. Tartean, herritarren eta talde ekologistenak", azaldu du elkarteak.

"Osasuna bermatuko duen akordioaren alde", otsailaren 23rako aurreikusia dagoen *Adostasunari esan baietz* manifestazioa deitzeko promozio bideoa aurkeztu du GuraSOSek. Donostian izango da hori, eta Antiguoko tuneletik abiatuko da, 17:00etan.

aurreratuenean sistemei erreparatzen die, hala nola Alemanian, Danimarkan eta Suedian indarrean diren sistemei".

EH Bildu, galdetzearen alde

EH Bilduk, plan berriaren aurka azaltzeaz gain, erraustegiaren aurkako jarrera berretsi du, eta, alderdien arteko desadostasunetatik harago, erabakia herritarrek eduki beharko luketela aldarrikatu. "Hondakinen kudeaketaren arazoari ez zaio ez irtenbiderik ez amaierarik eman EAJ-PSEk aurkeztutakoarekin. Gipuzkoako gizarteak beste irtenbide bat eskatzen jarraitzen du. Arazoa ez da konpondu eta adostasunak bilatzea ezinbestekoa da", dio ohar batean.

Batetik, "Aldundiaren partehartze prozesuaren porrota", azpimarratu du koalizio aberantzaleak. Adierazi du herritarrek ez dutela prozesuaren berri izan,

EH BILDUK NAHIKO LUKE HERRITARREK HITZA EDUKITZEA AZKEN ERABAKIA HARTZERA KOAN

edota uko egin diotela parte hartzeari. "Donostiako kaleetara, sindikatuek eta eragile sozialek deituta eta *Erraustegia gelditu* lelopean milaka herritar kalera atera ziren hilabete berean eman zen partaidetza 'arrakastatsua' izan omen duen Aldundiko deliberazio prozesua. Horrek agerian uzten du herritarren eta instituzioaren arteko arrakala handitzen doala, nabarmen". Hori dela eta, "gipuzkoarrei hitza emateko konpromisoa" hartu du, "hauteskundeetan gobernatzeko ardura emanez gero".

Bestetik, koalizioak uste du hondakinen arazoa ikuspegi teknologiko huts batetik harago doala, eta ez dela ekinbide juridikoekin konponduko. "Arazoa sakona da, politikoa da, demokratikoa da, legitimazio gabeziarena da. Arazo honen konponbidea politikoa izan behar da eta soilik elkarriketatik, negoziatuztik eta jendartearen oniritzik etorriko da".

Horren harira, EH Bilduk dio bazeudela eta badaudela "Gipuzkoako hondakinak tratatzeko modu merkeago, osasuntsuago eta ingurumenerako inpaktu gutxiagoak".



Arizmendi Ikastolako ikasleak, biharko finalerako prestaketa lanetan. ARIZMENDI IKASTOLA

First Lego League: zazpi talde finalean, bihar

Zapatuan jokatu dute hamargarren edizioko finala, Gasteizko Europa jauregian, eta Debagoieneko zazpi talde ariko dira lehia: Arizmendi Ikastolako lau, Mariaren Lagundiko bi eta Zuazola-Larraña institutuko bat, hain zuzen ere

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Hamargarren edizioa du aurten First Lego League lehiaketak, eta inoizko parte-hartzaile kopuru handiena izan du urteurren borobil honetan: 44 ikastetxetako 1.500 ikasle.

Abuztutik ari dira hezkuntza proiektu honekin lanean, eta aurtengo helburua da Into Orbit izeneko erronka tematikoari aurre egitea. Hau da, espazioan bizi den astronauta baten bizitza imajinatu behar izan dute, nola biziko litzatekeen urtebetez espazioan, eta sortu litezkeen arazoei eta beharrei aurre egiten saiatu behar izan dira: nola elikatu, nola entretenitu, nola komunikatu Lurrarekin, nola konpondu espazio-ontzi baten arazo tekniko bat, edota sortutako zaborra nola birziklatu. Gero lego bidez robot batzuk sortu dituzte zeregin horiek, aipatutako zeregin horiek egiten dituztenak. Sortu dituzten robotak erakutsi beharko dituzte ikasleak biharko saioan, eta

defendatu egin beharko dute robot hauek egiteko gai direna.

Debagoieneko zazpi talde ariko dira biharko saioan: Arrasateko Arizmendi Ikastolako lau talde, Gaztelupeko bi eta Almeneko beste bi; Bergarako Mariaren Lagundiko bi talde, eta Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko talde bat.

Bi kategoria

Lehiaketa bi kategoriatan banatu da. Batetik, 10 eta 16 urte bitarteko ikasleak, First Lego League izenpean: 58 talde daude kategoria horretan. Bestetik, 6 eta 10 urte arteko haurrak, First Lego League Junior izeneko kategorian: 44 talde. Guztira, beraz, 102 talde ariko dira.

BIHARKO SAIOKO LAU TALDE ONENEK ESPAINIAKO FINALA JOKATZEKO AUKERA IZANGO DUTE

Parte-hartzaileen %64 Bizkai-ko ikastetxeetakoak dira; Arabako ikastetxeetakoak %20 eta Gipuzkoakoetakoak %16.

Mundu mailako lehiaketa

Innobasque berrikuntzaren eskual agentzia duela hamar urte hasi zen lehiaketa hau antolatzen, haur eta gazteek zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematika lantzeko helburuarekin.

Hala ere, nazioartean garatzen den lehiaketa da First Lego League. Mundu mailako 98 herrialdeetako 500.000 ikasle inguru aritzen dira urtero.

Onenek aurrera egingo dute

Biharko saioan 18 sari banatu dituzte, eta lau talde onenek First Lego League Espainian lehiatzeko aukera izango dute, martxoaren 23an eta 24an, Tenerifen. Nazioarteko finala Ameriketako Estatu Batuetan izango da, Detroiten. Herrialde bakoitzeko talde onena izango da final horretan -98 talde-.



Fagorren Garagartzako planta. GOIENA

Fagor marka erabili ahal izango du Cantrak maiatzetik aurrera

Fagorrek eta Cantra enpresa kantabriarrak asteon sinatu dute markaren erabilera lizentzia kontratua

E.A. DEBAGOIENA

Fagorrek eta Cantra SL enpresak aste honetan sinatu dute markaren erabilera lizentzia kontratua. Akordio horrekin, fabrikatzaile kantabriarrak Fagor markarekin sukaldeko tresnak ekoiztu eta banatzeko aukera izango du maiatzetik aurrera.

Kontratu hori pasa den abenduan Amica SA enpresa poloniarrekin adostutako aurreakordioari batu zaio. Azken horrekin negoziazioak "aurrera doaz", Fagorren esanetan, "lerro zuriko etxetresna elektrikoetan Fagor marka erabiltzen utziko

liokeen balizko lizentzia izenpetzeko".

Gogoratu behar da 2018ko abenduan sinatu zutela Fagorrek eta Amicak aurre-akordio hori. Orduko hartan, Edesa Industrialek jakinarazi zuen enpresa poloniarrek 26,8 milioi euroko inbertsioa egingo zuela.

Negoziatzen jarraitzen du

Fagorrek jakinarazi du, halaber, gailu elektriko txikiak eta konfort eremuetan Fagor markaren balioan eta erabileran interesa duten sozietate batzuekin hitz egiten jarraitzen duela.



TXOMIN MADINA

Kataluniako buruzagiei babes

Gure Esku Dago-k deitutako elkarretaratzeeekin bat egin dute asteon Arrasaten, Aretxabaletan, Oñatin eta Antzuolan, besteak beste. Demokrazia, konponbidea eta askatasuna eskatu zituzten, eta, era berean, domekan Donostian egingo den manifestaziora gonbidatu zituzten herritarrak -Gros auzoko Katalunia plazatik abiatuko da, 12:00etan-.



ZABALIK

IRATI ITZIAR

Nire uste harroan

Halaxe amaitzen zuen aurreko baten Garbiñe Ubedak bere irratiko zutabea; azken pentsamenduei indarra emateko bota zuen, eta baita lortu ere, nire memorian iltzatuta gelditu den esaldia izan baitzen.

Gure ustea, iritzia, gogoeta modu xume eta umilean emateko hezi gaituzte. Gainera, uste hori ustela ere izan daitekeela esaten digu gure tradizioak, mezuari zentsura instantaneo aplikatuz.

Baina zure gogoeta, iritzia, uste, pentsamendu horretaz seguru bagaude, meditatua izan delako, ondo argumentatu dugulako, esperientzia oinarritzen delako... nola ez dugu, ba, harro adieraziko?

Emakumeok altuan, publikoan, jendearen aurrean, gure iritzia emateko daukagun eskrupulua –bai, handiagoa ala txikiagoa izango da, baina egon badago– ezaguna da, aztertua izan da eta nolabait azaldua ere, baina hor dirau. Gehitu honi harrotasuna, seguru eta ahaldu agertzearen adieran, gizona ezagutzea markatu izan zaigula, emakumeok umilak eta diskretuak izan behar genuen bitartean.

EZ ZEN HANDIUSTE BATEN MONOLOGOA, EMAKUME INDARTSU BATEN DISKURTSOA BAIZIK


Horregatik begitandu zait hain indartsua Garbiñeren esaldia, emakumea bere iritzia adoretu ematen

erakusten digulako, "uste apala"-ren esaldi kosmetikoa parafraseatu eta harrotasuna eta segurtasunaren ideia gehituz. Eta ez, ez zen harropuzkeria, ez zen handiuste baten monologia, emakume indartsu baten diskurtsua baizik, bere iritzia –ustea, pentsamendua, gogoeta– modu seguru eta boteretsuan ematen ari zena.

Emakumeok plazak, gune publikoak, irabazten joan behar dugula aspaldi esana dago, geure kabuz eta geure merituengatik protagonista izan eta agertu, geure pentsamendua eta ahotsa adierazi. Plaza horiek egunero agertzen zaizkigu eta egunero konkistatu behar ditugu. Horregatik, harrotasunaren kontzeptua geure egin eta egunerokotasunean aplikatzera animatu nahi zaituztet, apurka-apurka emakumeok gure bidea egiten joateko beste urrats bat egiteko interesgarria baita, nire uste harroan.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Iraupena

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/MPURJ
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Tokia: Espainiako Auzitegi Goren.

Epaituak: hamabi lagun, Kataluniako erakundeetako eta gizarte zibileko ordezkariak.

Akusazioak: matxinada, sedizioa, desobediencia eta diru publikoaren erabilera bidegabea.

Zigor eskaera: espetxealdia eta inhabilitazioa, zazpi eta hogeita bost urte bitartekoa, nork eskatzen duen eta nor den akusatua.

Hasiera data: 2019ko otsailaren 12a.

Bukaera data:...

Arrazoiaren jabe nor den zalantzarik ez dut.

Badakit noren eskubideak urratu diren.

Baina behin epaitegira sartuta, mila ertzetatik heltzeko moduko gaia da.

Ezjakin hutsa naiz gehienetan.

Herritar xehe askoren jakin-min bertsua dudalako, ia urte eta erdi kartzelan daramaten kataluniar hauen etorkizunak kezkatzen nauelako, epaiaren berri noiztsu izango dugun nahi nuke jakin.

Datu bila hasi naiz, konparaziorik egin nahi izan gabe, aztarnaren bat aurkitzeko.

Burgosko prozesua 1970eko abenduaren hiruan hasi zen.

Handik hogeita sei egunera heldu zen epaia eta hogeita zazpita heriotza zigoren indultua.

Nurenbergeko epaiketa nagusia 1945eko azaroan hasi eta hurrengo urteko urriaren lehenean amaitu zen.

Hamar-hamaika hilabete...

Hiru hilabeteko iraupena izango omen du, gutxi-gehiago, atzo hasi zenak.

Itxurazko zerbait gerta dadin aski denbora...

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Amaia Igarua.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ekonomiak badu generoa, bizimodua baldintzatzen du"

MIREN ELGARRESTA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERDINTASUN ZUZENDARIA

Eneko Azkarate TOLOSA

Bertako eta munduko erreferentziak batu dira Tolosan feminismoari eta berdintasunari buruz jarduteko, Gipuzkoako Diputazioak antolatuta. Berdintasuneko zuzendariak dihardu gaiaren gainean.

Ze izan da Feminismoa 4.0:

Berdintasuna, gizartea eta etorkizuna izeneko kongresua?

Garrantzia ematen diogu ezagutza partekatze guneak sortzeari, eta kongresu honetan, berdintasunak eta feminismoak dituzten erronka nagusiei heldu diegu. Iaz Martxoaren 8an nabarmen azaldu ziren mugimenduaren aldarri sozialak, eta dinamika horren ekarpeni begiratu nahi genien.

Erreferentziak hizlariak eta 500 lagunetik gora izan dira parte hartzen.

Berdintasunak agenda sozial eta politikoaren erdigunera jauzi egin du aspaldian. Ez da egun bateko lanaren emaitza. Ehundura sendo bat dago



Miren Elgarresta. GOIENA

–soziala, akademikoa, instituzionala–, posible egin duena feminismoaren zeharkakotasuna lehen lerroa ekartzea. **Zergatik gertatu da uholde feminista hau?**

Gizarteak ulertu du eramanezina zaiola desberdintasun estruktural hau. Jasanezina dela biolentzia; onartezina dela estereotipoen zamapean neskak eskolaratzea eta bere

aukerak mugatzea; ezinezkoa dela esfera pribatuaren ardura ia osoa emakumeen bizkar uztea eta gure garapen profesionala gutxiagotzea...

Ekonomiaren ikuspuntutik ere landu da genero berdintasuna: bada ekonomia feministarik?

Bai, bat baino gehiago, eta bada feminismoaren printzipioak ulertuta eraldatu behar den ehun ekonomiko oso bat. Ekonomia feministak pertsona jartzen du erdigunean. Esfera pribatu eta publikoan, bieran, eragin beharra dagoela esaten digu eta agerian uzten du gizarte-egituratzeari dagozkion esparru guztietan genero-ikuspuntua txertatu beharra dagoela. Lanaren mundua geure bizitzaren zati oinarritzakoa da: bizimodua bideratu, baldintzatu eta aurrera ateratzeko orduan elementu zentrala da.

Ekonomia ez da genero gabea. **Lau urte Diputazioan. Gaur egun, lurraldea parekideagoa da?**

Eraldaketa sozialak epe luzekoak dira, baina ekarpen garrantzitsua egin dugu: biolentziari aurre egiteko plana landu dugu, erantzunkidetasuna uztartzeko estrategia abiatu, eta, horri esker, lurraldeko enpresa-kopuru esanguratsua sartu da dinamika horretan.

HAU BE BADOGU!

Binakako Txapelketa, inoiz baino estuago



Oraingoan, Danel Elezkanok eta Beñat Rezusta bergararrak bakarrik lortu dute hurrengo faserako sailkatzea. Horrela, bi jardunaldiren faltan, gauza asko daude oraindik erabakitzeko:

@CrisGarcia: "Nola jarri den Binakakoa! Elezkanok eta Rezusta bakarrik sailkatuta... Bi jardunaldi falta dira eta bost bikote berdinduta gera daitezke hiru tokiren lehian!".

@joritz_32: "Binakako Txapelketa gori-gori! Hiru postu eta bost bikote horien bila! #binakakoa2019".

San Valentín egunean, txantxa ugari

Umorezko mezuz bete ziren atzo sare sozialak, San Valentín egunaren harira:

@euwikipedi: "Gaur 1750 urte burua moztu zioten Valentín Ternikoari. San Valentín gisa ezagutzen dugu gaur egun".

@martin_kitto: "#diotenez San Valentín Galizian dabil basurdeak hiltzen.

#GeziakEtaArkuak".

@kornermorea: "Valentín eguna denez gogoratu nahi dizugu (egarriz ez geratzeko) laranja erdiarekin zuku gutxi!

Sare sozialak epaiketei begira, beste behin

Asteon abiatu dute Kataluniako buruzagi independentisten aurkako ahozko auzia, eta, gaia hizpide izateaz gain, *trending topic* izan dira

#JudicialaDemocracia eta #Libertatpresopolitics traolak txiolarari euskaldunen artean ere:

@EdurneSE: "Herritarren eskubideak epaitzen ari direlako. Erabakitzeko eskubidea dugulako. #judicialademocracia #KataluniaAurrera".

ITURRI ONETIK

Astronautekin komunikatzera

Bergarako Aranzadi Ikastolako ikasleek Nazioarteko Espazio Ontzian dauden astronautekin hitz egingo dute. Konexioa ekain aldera egingo dute, baina azken unera arte egingo dute jakin zein egunetan izango den. Iberiar penintsulako hiru ikastetxeek soilik izango dute konexioa egiteko aukera: Sevillako eta Mallorcako banak eta Aranzadik. Zuzeneko saioa izango da eta Aranzadiko ikasleek hamar minutu izango dituzte Lurretik 400 kilometrora dagoen astronauta bati hogeit gaidera egiteko.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-02-20

Europako Konstituzioari ezetz

Europako Konstituzioa izango zenaren gaineko itunari buruzko erreferendumean, debagoiendarrek ezetz bozkatu zuten –%50,8–. Gipuzkoan –%56–, Hego Euskal Herrian eta Espainian –%76,73–, baietza atera zen. Arrasaten eta Eskoriatzan ere baietzaren aldekoak nagusitu ziren. Parte hartze txikia izan zen, eta, horrenbestez, abstentzioa izan zen nagusi: %63koa Debagoienean, %60koa Hego Euskal Herrian eta %57koa Espainian.



GUTUNAK

'¡Patrás Venezuela!'

JOKIN AMOZARRAIN ALTUBE

ARRASATE

Gatazka armatuaren errezeta puntuz puntu betetzen ari da. Irabiagailuaren barnean daude jada osagai guztiak: "bi" presidente, erditik zatitutako gizarte bat eta interes ekonomiko global kontrajarriak. Tapa ere itxita dago eta badirudi militarrek botoia sakatzea baino ez dela falta irabiagailua biraka hasi eta osagai guztiek ez zanda egiteko.

Venezuelaren egungo egoerari buruz ari naiz, noski. Hala ere, gatazka hau aztertzeko orduan komenigarria da begi-bista altxatu eta ikuspuntu mundial batetik begiratzea. Izan ere, herrialde latinoamerikar polemikoan gertatzen ari dena bi potentzia ekonomikoren arteko talka da. Alde Batetik, Ameriketako Estatu Batuak eta bere aliatu europarrak daude. Herrialde hauek diotenez, giza eskubideen urraketak direla-eta babesten dute Guaido.

Baina hori ez da egia. Horrela izango balitz, Saudi Arabia, Qatar edota Israelekin sartuko lirake lehenago. Baina hauekin ez dira sartzen, beharbada boteretsuegiak direlako. Bestalde, Errusiak eta Txinak ez diote Madurori laguntzen herrialde sozialistaren alde

egitearren, beraiek ere merkatu kapitalistak baitira. Venezuelak munduko petrolio erreserba handienak ditu bere barnean, eta hortxe dago guztiaren gakoa.

Esan beharra dago talka hau ez dela berria. Orain dela ez asko bizi ahal izan dugu, edo, hobeto esanda, bizi ahal izan dute Ukrainako eta Siriako biztanleek beraien azaletan. Jakina denez, bi herrialde hauetako hiritarren gorputzak odolez hustu dira, aberats gutxi batzuen poltsikoak txanponnez bete diren bitartean. Horregatik, denboraz bagaude, behintzat, venezuelar guztiei azken dei bat egin beharko genieke ez daitezen dirua baino helburu gehiagorik ez duten kanpotar potentzien zerbitzari eta soldadu bilakatu.

Horretarako, beharrezkoa da atzerriko propagandetatik ihes egin eta hiritar guztien arteko batasuna bilatzea, gerra zibil batera eramango dituen tentsio egoera honetatik atzera eginez. ¡Patrás Venezuela!

Goieskolatik gure esker ona

LURDES UGALDE ESPARZA

GOIESKOLA, DEBAGOIENEN EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOA
DEBAGOIENA

Eskoriatzatik Bergarara, Elgetatik Gatzagara, Oñatitik Mondragoera, Aretxabaletatik Aramaiora, Angiozartik

Antzuolara, eta Osintxutik pasatuz, Debagoieneko hamaika euskal eskola publiko gara, denontzat kalitatezko Hezkuntza bat eskaintzen gabilzanak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hauetan matrikulatu zareten eta proiektu honetan guregan konfiantza izan duzuen familia guztiei, eta baita jada gurean zaudeten familiei ere. Erantzun bikaina jaso dugu, oso pozik gaude, eta emandako bultzada honekin zin egiten dizuegu debagoiendar guztientzat den kalitatezko hezkuntza euskaldun baten alde lanean jarraituko dugula, zuen seme-alabak gurean zoriotsu hazi eta hezi daitezen.

Errepideak, negargarri

MIKEL ARANTZABAL

EIBAR

Autoan joanda ere igartzen da nola dauden eskualde honetako errepideak; bada, pentsa, motorrean edo bizikletan joanda, adibidez, zer den hori...

Zuloak, harri handiak, harri txikiak, gaizki estalitako zuloak... Ziklistek horri guztiorri egin behar izaten diote aurre errepidera bizikletan irteten direnean. Sarritan, aukera bakarra da ezkererago joatea, horrek dakarren arriskuarekin.

Dagokionari: konpondu eta zaindu errepideak.

HANDIK ETA HEMENDIK

Txillardegia ikasgeletara

LANDER ARRETXE

HTTPS://LABUR.EUS/KUTYO

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Norbait hil ostean gauza onak besterik ez omen da esaten. Hari aurpegiratzeko ezer bazenuen, beranduegi da, akabo. Hobe duzu isilik geratu, edo zure ausarkeria koldarra aurpegiratzeko dizute denek. Baina joera horrek badu beste alde ere: Van Gogh-i, Kafkari eta Dickinsoni nola, zendu ondoren soilik ematen zaizkio askori bizi artean ukatutako aitortza, loreak eta arrazoa. Eta zenbaiti, orduan ere ez.

Multzo horretakoa da Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia.

Haren lana eta ekarpena aldarrikatu duenik beti izan bada ere –abian da Donostiako Udala Liburutegiari haren izena jartzeko eskatzen duen mugimendua–, oraintsu, eta euskara batuaren 50. urteurrenaren aitzakian, hasi dira ahots horiek ozendu eta sendotzen. AEK-k Korrikaren aitzakian osatzen duen dokumentala berari eskaini izana da horren froga. Kote Camachok zuzendu du lana, eta Txillardegiren agerpen publikoak eta adierazpenak dira ardatz nagusia.

Asmoa besterik bazen ere, dokumentalak balio du, halaber, artxiboko irudien bidez *millennial*-oi ETB noizbait hutsetik sortu zela gogorarazteko. Gauza batzuk nabarmen aldatu dira –

badira emakume batzuk euskalgintzako ardura karguetan, eta Mikel Olazabalek orduko kalpar eta bizar oparora galdu ditu bidean–, eta beste batzuk ez horrenbeste: ETBk gaztelaniazko edukiak sortzen jarraitzen du (nahiz eta erdarazko kateen eskaintza areagotu den), eta, tarteka, euskaldunei gaztelaniaz erantzuteko eskatzen zaie oraindik.

Baina Txillardegiri ukatutakoaren erreparazioan pausoa izateaz gain, ETBren ikusleak xaxatzeko izan dezakeen gaitasunaz landa, dokumental laburrak badu beste alde praktikoago bat. Badira ikus-entzunezkoari zukua ateratzen dakiten komunikatzaile paregabeak, hitz egiten hasi orduko harrapatzen gaituztenak. Eta Txillardegia, beste gauza askoren artean, bazen hori ere.

Haren ateraldiak eta anekdotak entzunda eta dokumentalak duen tonu epikoarekin, puskaz interesgarriagoa bihurtzen da testuliburuetan urruneko kontu aspergarria dirudiena: euskara batuaren sorrera, Txillardegiren beraren literatur ibilbidea, euskalgintzak frankismotik hona egin duen bidea... Youtuben dago, esku-eskura, eta nerabeek jasateko moduko iraupena du, gainera. Jar dezatela, mesedez, eskola eta institutuetan.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktreak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



"Muñecas en biktimék hura salatzea nahi dugu"

JOSU IBARGUTXI TORTURAREN AURKAKO AKTIBISTA

Tolosako biktimék berriki jarri dituzte Jesus Muñecas guardia zibilaren aurkako salaketak, eta orain, Arrasateko beste bik emango dute pausoa Bergarako epaitegian

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jesus Muñecas Guardia Zibileko kapitain ohia ezaguna da 60ko eta 70eko hamarkadetan Euskal Herrian eragin zituen tortura kasuengatik. Berriki, haren aurkako salaketa jarri dute Tolosako herritar batzuek, eta, hain zuzen, Arrasateko biktimak bat egingo dute "inpunitatearen aurkako" salaketa kanpainarekin.

Torturaren astearen baitan mahai-ingurua egin duzue Arrasaten. Zein izan da horren helburua?

Kanpaina bat hasi dugu torturaren inpunitatea amaitzeko. Hori dela-eta izan gara Arrasaten Josetxo Zabaleta, Elixabete Nosellas [Tolosan salaketa jarri duten biktimetako bi], Paco Etxeberria forentsea eta ni; egin ditugun lehen urratsei buruz hitz egiteko. Muñecas biktimék hura salatzea nahi dugu, eta horretara animatzen ditugu.

Orain arte, argentinar bidea erabili duzue, baina orain, hemengo epaitegiara jotzea da asmoa?

2014an haren aurkako lehen salaketak jarri genituen Argentinan [estradizioa bertan behe-geratu zen], Servini epailearen aurrean. Horien artean, lehena Andoni Arrizabalagarena izan zen; Itziarren Semearena, hain zuzen. Baina orain, hemengo epaitegietan salaketak jartzen hasi gara. Bi bideak bateragarriak dira, gainera. Zenbat eta salaketa gehiago jarri, argi geratuko da ez zirela tortura kasu isolatuak izan, praktika orokortu bat baizik.

Aipatzen duzun praktika orokortu horren barruan, Muñecas paper garrantzitsua izan zuen?

Ez Muñecasék bakarrik, beste hainbatek ere bai. Bai Muñecas, eta bai Tejero, 1981ean kolpe militarra ematen ahalegindu zena, 551 komandantzia zeuden, jada existitzen ez den Donostia-ko Antigua auzoko kuartelean. Baina biktimák Gipuzkoa osoan



Josu Ibargutxi, Elgetan, 2016an. GOIENA

"1968TIK AURRERA, MUÑECASEK ETA TEJEROK NAHI BESTE TORTURA EGIN ZITUZTEN GIPUZKOAN"

zehar utzi zituzten, ez soilik Donostian. 1968tik aurrera Muñecasék eta Tejerok nahi beste tortura egin zituzten Gipuzkoan. Arrasaten, adibidez, Xabi Etxebarrieta ETako kidearen aldeko elizkizuna egin zenean, 1968an, hamabost lagun bortizki jipoitu zituzten Muñecasék eta konpainiak. Sekulako eman zizkieten, beldurtzeko modukoak.

Muñecas, Donostian egon arren, Gipuzkoan zehar mugitzen zen tortura praktikak egiteko?

Hala da. Baina Muñecas moduan, Hidalgo kapitaina ere bai, berez Gernikako kuartelean zegoena. Denaren atzetik zebiltzan, eta herririk herri, kuartelez kuartel mugitzen ziren. *Billy el niño* ere, inoiz, haiekin batera ibili izan zela jakin dugu, nahiz eta hura Madrilgo Puerta del Sol kuartelean egon. Galdeketa bereziak egiteko premia zuten

bakoitzean, hauengana jotzen zuten.

Arrasaten zenbat biktima utzi zituen Muñecasék?

Guk dakigula, bost dira guztira arrasatearrak, baina baliteke askoz gehiago izatea. Identifikatuta ditugun bost horietatik, bik salaketa jarriko dute Bergarako epaitegian.

Sekula ez dira epaituak izan?

Ez dira epaituak izan, eta, are gehiago, medailak jarri izan dizkiete. 2014an egin genuen lehen saiakera Muñecasekin, baina betiko argudioak tarteko ez zuten aurrera egin: delituak preskribatuta egoteagatik eta amnistiaren legeagatik.

Aipatutakoagatik, eta, adibidez, Arrasateko Udalak frankismoaren aurka jarritako kereilak izandako ibilbideagatik, zaila izango da salaketek aurrera egitea?

Salaketak jarri beharra dago, batez ere kontraesanak azalertzeko. Izan ere, gizateriaren aurkako delituak preskribaezina dira. Bestalde, Nazio Batuen Batzordetik mila aldiz agindu diote Espainiari amnistiaren lege hori ezabatzeke eta halako kasuetan ez aplikatzeko. Justizia egiteko garaia da.



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Azalkeriatan

Boterean daudenek ondo asko dakite zer-nolako azalkeria eta indibidualismoan bizi garen. Itxurakeria, erosotasuna eta kontsumo ahalmena lehenesten dira gizartean. Horregatik eta horretarako, titularrekin eta informazio partzialekin eragiten dituzte iritziak, jarrerak eta beharrak. Azalkeriaren aro honen neurriko albiste eta politika hutsalak ez dira halabeharrez sortzen, eta beldurrean oinarritzen dira. Honenbestez, ondo planifikatutako agenda mediatiko eta politikoa dugu, hutsune eta interes ikaragarriak estaltzeko. Gure artean dauden pisuzko hainbat gaik, ezberdin onartuak edo korapilatsuak izanik ere, zenbait kezkatu egiten gaituzte. Besteak beste, hezkuntza integral eta publiko bat, berdintasuna, ingurumena... edota immigrazioa, teknologia berriak... gure artean geratzeko etorri dira. Gure esku dago ahalik eta azkarren eta modu egokienean gaiei heltzea, positibo eta guztiontzat aberasgarri bilakatzeko, arduraz jokatzeko. Errazena erosotasunean murgiltzea eta arinkeriak jardutea litzateke, baina gaur bideratzen ez ditugun gaiak biharko arazo izango ditugu.

Otsailaren 23an, Monterron eta Udala lotuko dituen mendi buelta

Bulkada Berrien Garaia Da dinamikak antolatu du, 'Jira eta bira' izenpean, eta ibilbide laburra eta luzea ditu

X.G. ARRASATE

Monterronen hasi eta Udalan amaituko den mendi marxa prestatu dute Bulkada Berrien Garaia Da dinamikako lagunek otsailaren 23rako. *Jira eta bira* izenburua jarri diote ekimenari, eta, mendian aritzeaz gain, herriko historia hobeto ezagutzea eta ostean bazkari dotore bat egitea ere hartzen ditu barne.

Bi ibilbide antolatu dituzte. Laburra 7,5 kilometrokoa da eta ondorengo ibilbidea izango du: Monterron, Anporreta, Meatzereka eta Udala. Luzeak, aldiz,

15 kilometroko luzera du eta leku hauetatik igaroko da: Monterron, Anporreta, Meatzereka, Udala, Besaide eta Udalara buelta berriz. Hankak astindu ostean, Udalako Larrinetxe jatetxean bazkaria egingo dute, 14:30ean, eta izen emateak Irati tabernan egin beharko dira otsailaren 17a baino lehen. Prezioa 20 euro izango da -15 euro langabeentzat-. "Pertsona oro izango da ongietorria: familia, norbanako, talde... eta ez da ibilbide neurtua izango; beraz, lasai joan", adierazi dute antolatzaileek.

OHARRAK

Txantxikuarrak

Arrasaten bizi direnek martxoaren 9an bazkaria egingo dute Erreka jatetxean. Izen ematea jatetxean egin beharko da.

Ludoteka ibiltaria

Bihar, zapatua, hirugarren saioa egingo dute Musakolan -11:00etan-. Gaztetxoek hala eskatuta, sukaldaritzaren bueltan arituko dira.

Pentsiodunek ekitaldi berezia egingo dute astelehen arratsaldean

Goizean ez dute elkarretaratzerik egingo, eta horren ordeztu hitzaldia eta argazki proiektioa egingo dute Kulturaten, 18:30ean. Euren mobilizazioetako argazkiak eta bideoak proiektatu ostean, Arantza Corralesek *Zer dago pentsioen atzean?* izeneko hitzaldia egingo du. Hilaren 18an, betiko hitzordura itzuliko dira -12:00etan Herriko Plazan-.



Eneko Diaz –Movilklik–, Maria Ubarretxena eta Maria Jose Telleria, martitzenean, Kulturaten. TXOMIN MADINA

Ondare soziokulturala, mapatze baten bueltan

Eibarrekin eta Azpeitiarekin batera, Arrasate aukeratu dute Foru Aldundiak eta Koldo Mitxelena Kulturaguneak 'Kultur memoriak. Memorias urbanas' ekimenerako. Mapatze bat egitea da helburua, herritarren argazkiak, bideoak eta bestelakoak erabilita

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalak bat egin du Foru Aldundiak eta Koldo Mitxelena Kulturaguneak martxan jarritako Kultur Memoriak ekimenarekin. Honako hau izango da helburua: herriko memoria eta ondare soziokulturala herritarrek eurek egingo duten mapatze parte-hartzaile baten bidez jaso eta erakustea.

Mapatzea sorkuntza prozesu bat da, Arrasateko herritarrekin egin gura dena bideoak, audioak, argazkiak eta artxiboko materiala erabilita. Teknologia berriez baliatuko dira horretarako, eta eraldaketa sozialean eragiteko mugikorrek erabiltzen dituen Moviltik elkarteak gidatuko du prozesu guztia. "Herritar guztiei zabalik dagoen prozesu parte hartzailea denez, eta herritarrek teknologikoki ahalduntzen dituzenez, proiektuarekin bat egitea erabaki genuen", azaldu zuen Maria Ubarretxena alkatea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Maria Jose

Telleriak honela azaldu zuen proiektu berritzaile honen mui-na: "Ondare ez materiala jasota geratzea nahi dugu. Dokumentu, testu, solasaldi, elkarrizketa pila bat izaten dira, gure etxeetan, kaleetan, sozietateetan... horiek guztiak gu hiltzerakoan desagertu egingo dira. Horretarako, hori guztia jaso beharra dago, eta, teknologia berriak oso lagungarriak direnez, horiek erabiliko ditugu. Jasotzeko, baina baita jasotakoa jendartean partekatze ere".

Hiru saio, zapatu goizetan

Prozesuari berari dagokionez, larunbat goizetan izango diren hiru saio egingo dituzte: lehenengo saioa martxoaren 1ean

UDALAK BAT EGIN DU, HERRITARRAK TEKNOLOGIKOKI AHALDUNTZEKO BALIOKO DUELAKO

izango da, eta bertan, herritarrek mapatze analogikoa egingo dute, jaso gura dituzten elementuak identifikatzeko. Bigarren eta hirugarren saioak martxoaren 9an eta 16an egingo dira. Honela azaldu zuen Moviltik enpresako Eneko Diazek zer egingo duten bigarren eta hirugarren saioetan: "Bigarrena trebakuntza saio bat izango da, grabaketak ondo egiteko. Inozokeria iruditu daitekeen arren, ondo grabatzea eta soinua ondo hartzea batzuetan ez da erraza, eta akatsak egon daitezke. Beraz, behin trebaketa digital hori eginda, eta grabaketa nola egin planifikatu ostean, grabaketei ekingo diegu hirugarren saioan. Grabaketen ondoren, material guztiak plantilla batean geoposizionatzen ditugu, eta mapa batean ikus ditzakegu ibilbide ezberdinak gaika, elkarrizketa guztiak lotuta, eta herriari buruzko informazio hori guztiori webgune batean ikusiko dugu".



EH Bilduko zinegotziak, martitzenean egindako prentsa agerraldian. XABI GOROSTIDI

Udaltzainei buruzko eztabaida publikoa eskatu du EH Bilduk

ELAren iturriak aipatuz, salatu dute azterketa gainditu gabe duten hautagaiak bidaltzen ari direla Arkautetik

X.G. ARRASATE

Arrasateko EH Bildu "oso kezkatu" dago Udaltzaingoak bizi duen giza baliabide falta dela eta. Egoera deskribatzeko orduan, hiru arazo nagusi identifikatu dituzte: udaltzain falta, udaltzain postuak betetzeko Arkauteko lan-poltsa erabiltzeko hitzarmena, eta, azkenik, goi-kargudun udaltzain izateko hautaketa prozesuan "Ertzaintzari ateak irekitzea". Baliabide faltari dagokionez, aurreikuspen falta eta neurriak berandu hartzea egotzi dizkiote Gobernuari. "Nahiz eta orain lan-poltsa bat

atera, presaka, etxeko lanak egin gabe izatea ordaindiko dugu. Sindikatuek salatu dute Arkautetik bidaltzen aritu direla lan-poltsa gainditu ez zuen jendea ere; beraz, pentsa".

Bi eskari Udal Gobernuari

Goi-kargudun udaltzainak aukeratzeko aldaketa bertan behar uzteko eskatu dute, gaiari buruz eztabaida publikoa egiteko. Kulturaten egin nahi dute: moderatzaile batekin, alderdi politiko guztien parte hartzearekin eta herritarrek galderak egiteko aukerarekin.



AHAL DUGU ARRASATE

Igor Urizar eta Eva Abuin, berriz

Ahal Dugu Arrasateko joan den astean egin zuen udal hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzeko batzarra, eta aho batez onartu zuten Urizar zerrendaburu izatea eta Eva Abuin bigarren izatea. Agintaldian hartutako esperientzia faktore garrantzitsua izan da bi zinegotziak aukeratzeko, eta gaineratu dute zerrendak guztiz itxi gabe dituztela oraindik.

36ko gerraren eraginak inoiz ahaztu ez daitezzen

Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiak eskatuta, 'Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, erresistentzia eta frankismoa' liburua osatu du Intxorta 1937 Kultur Elkartek, eta urte haietako sufrimendua ia 400 orritan laburbildu dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Argituz elkarteak lagunduta, frankismoaren bigarren arotik gaur egunera arte Arrasaten izandako motibazio politikodun sufrimenduen bilduma osatu zuen Udaleko Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiak, aurrez Errenteriak, Lasarte-Oriak eta Andoainek egin bezala.

36ra arte, Arrasate bakarrik

Baina horien guztien artean Arrasate izan da memoria partekatu horren eraikitzea 1936ko gerrara arte luzatu duena. *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, erresistentzia eta frankismoa* izeneko liburuan batu dituzte gerra hasi zenetik frankismoaren bigarren aroa hasi arteko sufrimendu guztiak. Memoria historikoaren zabalkuntzan esperientzia handia duen Intxorta 1937 Kultur Elkartearen laguntza izan dute horretarako. Miren Altunak eta Juan Ramon Garaik sinatzen dute bilduma, eta azken horrek balioan jarri nahi izan du "memoria integral bat lortzeko" Arrasatek egindako ahalegina. "Gipuzkoako beste herri batzuetan, eta baita Arrasaten ere, ahalegina egin da 1956. urtetik honako kontakizun bateratua eraikitzeko. Baina memoria integrala lortu nahi badugu, ezinbestekoa da 1936tik gaur egunera arteko ibilbidea osatzea; data hartan Espainiako Estatuko herri guztiek inoizko zapalgetarik handiena jasan zutelako eta gaur egun horren eraginak pairatzen jarraitzen dugulako. Ez dago ulertzerik 1956tik aurrera gertatutakoa, 1936tik ordu-ra arte gertatutakoa kontuan hartu gabe".

Bi garai haien arteko lotura frogatzeko, E'TAko kide izan ziren lehen arrasatearrak aipatzen ditu Garaik. "Juan Jose Etxaberen ama Emakume Aberzaleen Batzako zen, Jose Uri-



F. Iraola, J. M. Egidazu, C. Villar, A. Arregi, V. Uribetxebarria eta J. Azkoaga. INTXORTA

besalgoren aita Oiartzunen fusilatu zuten, Manuel Arizabaltaren aita 12 urtez egon zen kartzelan, Edur Arregiren familiari -Kataide baserriko Javierren anaia- diru guztia lapurtu zioten... Erakunde armatuaren sorrera eta bertako partaideen sustraiak estuki lotuta daude 36an gertatu zenarekin".

Sufrimenduak, 1936-1956

- **3.000** Gerragatik alde egin zuten arrasatearrak, herritarren %40.
- **800** Frontean borrokan aritutako arrasatearrak.
- **209** Gerraren eraginez hildako arrasatearrak.
- **800** Frontean borrokan aritutako arrasatearrak.
- **420** Arrasatear presoak; horietatik sei fusilatu egin zituzten eta hiru kartzelan hil ziren.
- **613** Lanpostua galdu zuten arrasatearrak.

Egin ez den Kausa Orokorra

1941 eta 1943. urteen artean Arrasateko "gorri separatistek" gerran eragindako kalteak epaitu zituzten frankistek, Kausa Orokorra izenarekin ezagutzen den epaiketan. "Arrasateko Udala, epaileak eta gobernadorea bi urtez aritu ziren lan hori egiten. Baina gorriek ezin izan zuten euren Kausa Orokorra egin 1977an, eta inpunitatea gailendu zen". Udalak eskatutako lanke-ta hori egiteke zegoen bigarren Kausa Orokorra moduan hartzen du Garaik: "Guretzako, Arrasatek falta zuen Kausa Orokorra da hau. 1977an egin izanez gero, protagonista gehiagoren testigantzak izango genituen. 41 urte pasa dira, eta, tamalez, sufrimendua pairatu duten asko ez daude gure artean".

Parte hartzea eta emakumeak

104 lagunen testigantzak batu dituzte Altunak eta Garaik. Gehienak gerra galdu zutenenak dira, nahiz eta badauden irabazleen testigantzak ere. Aipatzea, liburuko atalen artean, emakumei eskainitako bat egin dutela, "badelako garaia itzale-tik argira pasatzeko".



Miren Altuna eta Juan Ramon Garaik, herritarren aurrean. XABI GOROSTIDI

Kulturate, herritarrez gainezka

Asteazken arratsaldean txiki geratu zen Kulturateko areto nagusia, liburuaren aurkezpen ekitaldi ofizialean. Hasieran, alkateak hartu zuen hitza, Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiaren izenean. Besteak beste, aipatu zuen sufrimendua pairatu duten horiei egia, justizia eta erreparazioa zor zaiela, eta helburu horretan aurrera egiteko balio duela liburuak. Ostean, Miren Altuna eta Juan Ramon Garaik igo ziren oholtzara. Liburuaren atal nagusiak aipatu zituzten, atzean orduko argazki bilduma ederra proiektatzen zuten bitartean. Momentu hunkigarriak ere bizi izan ziren. Lehena, Garaik, banan-banan, liburuan haien testigantzak eman eta gaur egun zenduta dauden horien izenak zerrendatzerakoan. Ostean, liburuan egin bezala, aipamen berezia egin zien "lapiko artean gerra egin zuten emakume horiei", baita malko artean egin ere.

NEW YORK

BILBOTIK

ASTE SANTUA / PAZKO ASTEA
7 GAU / 9 EGUN
APIRILAREN 18TIK 25ERA

Barne daude:

- Bilbotik hegaldiak
- 7 gau gosariarekin 4 izarreko hotelean Times Square-n
- Hotelako eta aireportuko tasak barne

Prezioa pertsonako, gela bikoitza: 1.720€

Prezioa pertsonako, gela hirukoitza: 1.510€

Prezioa pertsonako, gela laukoitza: 1.350€

Hegaldiak bakarrik tasak barne: 750,00€

Informazio gehiago:
Erdiko kalea 16
943 79 29 88
Halconq99@halcon-viajes.es

* Kontuaitubi Debagoieneko beste itzera bezelak

"Pozik", etxe alokairu eskaera kopuruarekin

2017an jarri zuen martxan Arrasateko Udalak etxebizitzak alokatzeko 18 eta 35 urte arteko gazteentzako dirulaguntza programa, eta bi urte hauetan 102 eskaera jaso ditu; programaren helburua da herriko gazteei emantzipatzen laguntzea

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Legealdi honetan martxan jarri dugun programa berri bat da hau, eta, legealdia amaitzear dagoenez, balorazio bat egitea tokatzen zitzaien. Bi urte hauetan eskaera kopurua antzekoa izan da, eta helburua bete dela ikusi dugu; hau da, Arrasateko gazteei gurasoen etxetik irteten laguntzea", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako programa da hori, nahiz eta eskaera gehienak 24 eta 30 urte arteko gazteenak izan diren bi urte hauetan. 2017an 47 eskaera jaso zituzten eta 2018an, berriz, 55.

Helburua Arrasateko gazteei emantzipatzen laguntzea denez, herriaren errolatuta egotea da dirulaguntza hori eskatzeko baldintzetako bat. "Eskatzen duguna da Arrasaten errolatuta egotea hiru urtez jarraian, edo hamar urtez modu ez jarraituan". Horrez gain, alokairuan bizi diren etxe horretan ere errolatuta egon beharko dute gazteek laguntza jasotzeko.

Bi urte hauetan programak izan duen erantzun ona ikusita, 2019ko aurrekontuetan ere 60.000 euroko partida bat aurreikusten du Udalak laguntza horiek emateko. Martxoan zabalduko da eskaera epea, eta alkateak gazteak animatu gura izan ditu laguntza horiek eskatzera.

Zuzkidura etxebizitza

Udalak badauka martxan gazteentzako zuzkidura etxebizitzak egiteko proiektu bat, Garibai hiribideko 14.ean, eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia ere badu. Hala ere, prozesu luzea izango dela aurreikusten dute. "Ikusten dugu osagarriak izan daitezkeela zuzkidura etxebizitzak eta alokairurako dirulaguntzak".



Otalora kaleko etxebizitza batzuk. E.A.

Etxebizitza alokatzeko laguntzak

	2017	2018
Eskaera kopurua	47	55
Emakumeak	20	30
Gizonezkoak	27	25
Norbanakoak	33	36
Bizikidetzak	14	19
Onartuak	44	50
Ukatuak	2	3
Osatu gabe	1	2
Aurrekontua	60.000	64.000
Onartutako laguntzak, guztira	54.828,8	63.810,2

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Lau hitzaldi, Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta

Lau hilabetetan lau hitzaldi egingo dituzte Kulturaten. Lehen datorren martitzenean izango da: *Haurren sexualitatearen garapena, generoa eta elikadura nahasteak*. Sara Sanabriak eta Itxaso Medizabalek gidatuko dute saioa. Bigarrena martxoaren 12an izango da: *Nola ezarri gure seme-alaben jokabide desegokiei ondorioak? Zigorrekin nahastean ditugu?* Hirugarrena, apirilaren 9an: *Guraso eta seme-alaben arteko gatazkak bideratzen ikastea*. Laugarren, azkenik, maiatzaren 14an izango da: *Gure seme-alaben autoestimua*. Azken hiru hitzaldiak Sara Sanabriak eskainiko ditu. 18:00etan izango dira saio guztiak.

Hiru mendi irteera egingo ditu Besaide Mendizale Elkarteak

Besaide Mendizale Elkarteak hainbat irteera antolatu ditu otsailerako eta martxorako. Lehenengo otsailaren 24an egingo dute -domeka-, Donejakue bideko zortzigarren etapa -Portugaletze-Kobaron-.

Bigarren irteera martxoaren 10ean egingo dute: Zerain-Zerain. Ondoren, bazkaria egingo dute sagardotegian.

Azken irteera Formigalera egingo dute martxoaren 23an eta 24an, eskiatzera.

Aurrez eman beharko da izena hiru irteeretan parte hartzeko, 943 77 30 66 telefonora deituta, besaide@besaide.eus helbidera mezu bat idatzita edo Besaideren egoitzara joanda.

'Altxorraren otarra' haur-jolasa egingo dute hilaren 23an

6 eta 12 hilabete arteko haurrentzako jolasa egiteko aukera izango da otsailaren 23an, zapatua, Belun Une Ahaztezinak dendan. Aurrez izena ematea derrigorrezkoa da, plazak mugatuak dira eta. Bertara joanda edota 943 04 03 20 telefonora deituta egingo da horretarako aukera. 11:00etan hasita, 50 minutu inguruko saioa izango da.

Azaleko gaitzentzako ukendua egingo dute biharko azokan

11:00etatik 12:00etara izango da, eta aurrez izena eman beharko da, Arrasate.eus webgunean; gaur da azken eguna.

Azoka 08:00etatik 14:00ak arte izango da eta hamaika postu egongo dira, sasoiko barazkiekin: azak, porrua, txikoriak, borrajak, letxugak, eta abar. Horrez gain, urte osoko produktuak ere egongo dira: kipula, patatak, intxaurrak, ogia, gazta, pastelak, mar-melada, ezti, eta abar.

Amezketako Argaia Goena baserriko ekoizleak datoz, lehenengo, eta basoan hazitako txerrien produktuak jarriko dituzte salgai: txuletak, saiheskiak, xerrak, saltxitxak, han-burgesak eta azpizunak.

Otsailaren 26an duzu hitzordua gurekin, 18:30ean, Kulturaten!

Goiena komunitatea

Arrasateko M8 plataforma

Batzarretik batzarrera emakume berri gehiago batzen ari da M8 egunaren antolaketaren bueltan. Gogoa, ilusioa eta konplizitatea nagusi dira airean. Arnaste benetan goxoa!

Asteon, egitaraua zehaztu eta behin-behineko forma eman diogu. Askotariko ekimenak adostu ditugu: hitzaldiak, mahai informatiboak, materiala sortzeko tailerrak, batzar informatiboak, M8ko kartel aukeraketa, prentsaurrekoa, arrasatear emakume artisten erakusketa, triki-poteo feminista, kazerolada...

Zatuz gurekin, M8a borroka egun ahaztezina egitera goaz eta!

SOS Arrazakeriako etxeko langileentzako solasaldia bihar

SOS Arrazakeriak solasaldi informatibo bat egingo du bihar, zapatua, Etxaluzeko Axeri gelan, 17:30ean. Martxoaren 8ari begirako saioa izango da. *Zaintza eta etxeko langileok ere greba egingo dugu, gure eskubideak defendatzeko! Diskriminazioari eta esplotazioari ez! Langileak gara eta eskubideak ditugu!* izango da saioaren leloa.



Arrasate Dragoi gimnasia taldeko kideetako batzuk. EDURNE ELKORO

Ikasitakoak jendaurrean erakusteko gogoz daude

Bihar, zapatua, Uarkapeko frontoian eskolarteko B mailako txapelketako lehenengo fasea jokatu dute, goizez eta arratsalde. Arrasate Dragoi taldeko kideak urduritasunak alde batera utzi eta euren onena erakusteko gogoz irtengo dira

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Eskolarteko B mailako lehenengo faseko gimnasia erritmikoko txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Uarkapeko frontoian. Saioak goizez eta arratsalde izango dira.

Herriko gimnastek egiten duten lana ikusteko "aukera paregabea" izango da. Goizeko saioa 10:55ean hasiko da: alebinak eta infantilak bakarka zein taldeka lehiatuko dira. Hainbat gimnasia elkartetako kirolariak etorriko dira Uarkaperara.

Etxeko gimnastak

Arrasate Dragoi gimnasia taldeak parte hartuko dutenak izango dira: Eider Vazquez eta Uxue Vicario alebin B mailan lehiatuko dira, bakarka, esku libre modalitatean; Nora Marco, Liyanis Alonso eta Miren Miguelez infantil B mailan lehiatuko dira, bakarka, uztaiarekin; eta Sara Yan Azkarate, Maider Agirreurreta, Aiala Losada, Maren Garai, Maddi Etxagibel eta

Zihara Etxebarria infantil B mailan lehiatuko dira, taldeka, uztaiarekin.

Arratsaldeko saioa

Eguneko bigarren saioa arratsaldean egingo dute, 16:55ean hasita. Benjamin mailako topaketa izango da eta hor parte hartuko dute Dragoi Gimnasia taldeko 32 gimnastak. Irailaz geroztik entrenamendu orduetan ikasitakoak jendearen aurrean erakusteko aukera izango dute neska-mutikoek.

Gimnasia taldeko entrenatzaile Edurne Elkorok azaldu du "euren lana ahalik eta ondoen egiten" saiatuko direla biharko jardunaldian. "Etxeko ekitaldian are eta urduriago jartzen

ELKARTEAN 140 GIMNASTA DAUDE ETA GAUR EGUN EZ DUTE JENDE GEHIAGO HARTZEKO LEKURIK

dira gimnastak; etxeokak, lagunak... egoten direlako harmailetan", dio Elkorok.

Joan den asten hasi zuten denboraldia, Bergaran egindako eskolarteko A mailako txapelketarekin: "Ondo joan zen, baina egia da hobetzekoak baditugula. Lehenengo faseak balio izaten du jakiteko non huts egiten dugun, zer aldatu behar den...". Elkorok gaineratu du gimnasia erritmikoa erakusten duela jendaurreko urduritasunak kontrolatzen eta norbere lana jendaurrean erakusten.

Entrenatzeko leku gutxirekin

Gaur egun, Dragoi Gimnasia taldeak 140 gimnasta batzen ditu. "Entrenatzeko espazio gutxirekin gabiltzan arren, saiatzen gara ahalik eta neska-mutiko gehienei egiten lekua elkartean". Talde guztiak beteta ditzutela dio. "Pena handiarekin, askori ezetz esan diegu, ez dugu eta entrenatzeko leku gehiagorik", dio Elkorok.

'Neguen be bero!' jaialdia egingo dute, errefuxiatuen alde

Hotz Oñatirekin arropa bilketa egingo dute, eta, horrez gain, elikagaiak batuko dituzte Lesbosera bidaltzeko

A.E. ARRASATE

Errefuxiatuen aldeko *Neguen be bero!* jaialdia egingo dute bihar, zapatua. 10:30etik 12:30era bitartean, Txatxilipurdiren eskutik umeendako tailerrak egingo dituzte Biteri plazan –eguraldi txarra bada, gaztetxean–.

Neguko arropa eta elikagaiak

Hotz Oñati elkartearekin batera neguko arropa jasoko dute, eta jasotakoa Oñatiko Larraña aterpetxean dauden asilo eskatzaileendako izango da –mutil gazteen arropa behar da–. Horrez gain, elikagaiak batuko dituzte Zaporeak ekimenaren bitartez Lesbosera bidaltzeko –pasta, arroza, lekaleak, atuna eta sardinak latan eta espeziak, kuminua, currya...–.

18:00etan, bertso-poteoa egingo dute Paula Amilburu, Ane Zuazubiskar, Peru Abarrategi



Oier Arregi, Wood Strings taldekoa.

eta Xabi Igoa bertsoariarekin. Gai-jartzaile lanetan Burgi ibiliko da. 20:00etan, Sara Alonso bakarlariak girotuko du saioa.

22:00etan, kontzertuak izango dira Wood Strings, Balarrasa eta Salda Dago taldeekin. Sarre borondatea izango da.

Transexualitatea gai duen 'Lur' antzezlan eskainiko dute bihar

Xake taldearen *Lur* antzezlan eskainiko dute zapatuan, 17:00etan, Amaia antzokian. Transexualitatearen gaia lantzen du antzezlanak. Kepa Errasti aretxabaletarra da zuzendaria, eta oholtza gainean Erika Olaiola, Mikel Laskurain, Nerea Gorriti eta Errasti bera ibiliko dira. 5 euroren truke eskura daitezke sarrerak.

'Madame Butterfly' operarako sarrerak badaude oraindik ere

Astehenean, otsailaren 18an, eskainiko du emanaldia Luis Mariano lirika elkartek, Ozenki taldearen laguntzarekin. Puccini-ren hiru ekitaldiko drama lirikoa da *Madame Butterfly*. Amaia antzokian eskainiko dute, 20:00etan. <https://ticket.kutxabank.es> atarian eros daitezke sarrerak 30,90 euroren truke. Italiaraz izango da emanaldia.

Txotxparta jaialdia egingo dute otsailaren 22an

Ttakun txalaparta taldeak antolatuta, Txotxparta jaialdia egingo dute datorren egubakoitzean. Aramaioko Iturrieta sargardotegira egingo dute irteera; eta, alboka, pandero eta txalaparta soinuek girotutako jaia izango da.

Festa Arrasaten hasiko dute. 19:00etan Jaizale tabernan elkartuko dira eta handik hasita

poteo animatua egingo dute. 20:30ean, autobusa hartuko dute Iturrietara joateko. Garibaiko geltokitik irtengo da autobusa. Ondoren, poteoak Aramaion jarraituko du eta afaltzera 21:30ean joango dira. Aurtengo berrikuntza izango da Sagar Challenge erronka; umorez betetako berrikuntza horretan ez da sorpresarik faltako.

Irteeran parte hartzeko, Jaizalen eman daiteke izena otsailaren 18ra arte. 40 euro izango da –autobusa barne–.



Lugarategi baserriaren eta trenbidearen arteko tartearen egungo egoera. JULEN IRIONDO

AHTa: ez du Udala asebate Gobernuaeren erantzunak

EH Bilduren Kongresuko diputatu Oskar Matutek Aramaio eta trenaren lanekin lotutako hainbat galdera egin zizkion Espainiako Gobernuari, eta bost hilabetera iritsi da erantzuna. Zehaztasun gutxi ditu, alkatearen esanetan: "Adarra jotzen ari zaizkigu"

Julen Iriondo ARAMAIO

Matutek hainbat gairekin lotutako galderak egin zizkion Gobernuari: Adif-ek egin beharreko konponketa lanei buruzkoak, batetik; eta lurren eta bideen jabetzari buruzkoak, bestetik.

Konponketei dagokienez, galdera bat, zehazki, Lugarategi baserriarekin lotutakoa zen. Hiru urte izango dira laster baserriaren eta trenbidearen arteko euste-horma apurtu zela, eta presazko lanak egin ostean gehiago ez dela egin eta ingurua "paisajistikoki oso egoera txarrean" dagoela salatu du EH Bilduk, eta Gobernuari galdetu zion hango lanak noiz amaitzeko asmoa duen. Gobernuak erantzun du Lugarategiko lubakiaren konponketarako lanak lizitatu berri dituztela eta obrak aurten hastea dela asmoa; inguru hartakoak, lubakia zehazki aipatu gabe.

Horrekin lotuta, euste-horma apurtu izanaren arrazoiak eta erantzuleak zeintzuk diren az-

tertu ote den ere galdetu zuen EH Bilduk: "Akatsen bategatik izan da? Ez ziren urak ondo hartu? Guk ez dakigu, eta hori galdetu dugu. Bai, egia da euren obra bat dela, baina gure udalerrian da eta guri eragiten digu; eta ez dute inongo azalpenik ematen. Egin da azterketa? Edo, besterik gabe, beste hogeita piko milioi sartuko dituzte, egingo dute malda handiagoa eta listo?", dio Lierni Altunak. Gobernuaren erantzuna da aztertu dituztela balizko arrazoiak, gehiago zehaztu gabe.

Alkateak salatzen du "gauza batzuetan oso erraz eta justifikaziorik gabe" gastatzen dela dirua, eta "herriari eragiten dioten gauzetan" ematen duela "fabore bat eskatzen" ari direla: "Cuatrovientosko pitzadurak, bidea eta errepiderako irteera; Lugarategiko uren hartzea; Zabolako Untzilla arteko bidea; Zabolako saneamendua... Horrelako mila gauzari buruz ez dute ezer esaten", dio Altunak.

Egin beharreko konponketei dagokienez, Gobernuak erantzun du baietz, 2018 amaieran hasi zirela egiten, zer egitekoak diren zehaztu gabe, "bideren baten konponketa, partzelaren baterako sarbidea..." aipatuz, "aurremantentze kontratu" baten barruan.

Alkateak espero du lan horien artean egingo dutela, adibidez, Zabolako saneamendua: "Saneamendua apurtuta dago eurak sartu zirenetik, duela hamarretik gora urte; ea lortzen dugun aurremantentze kontratu horretan sartzea. Esaten digute asko eskatzen diegula, hodi asko direla... Baina hori zen momentuan eurek egin beharrekoa. Eta Untzillan ere azpie-

LUGARTEGIRI BURUZ GOBERNUAK DIO LIZITATU BERRI DITUZTELA INGURU HARTAKO LANAK

giturak lur azpian sartzea eta obra zibila falta da; Udala egiten ari zela etorri ziren trenaren obra egitera, eta esan ziguten eurek bukatutakoan eurek egingo zutela, baina hamar urte luze pasa dira, eta berdin jarraitzen dugu, eta Untzilla auzoa oso gaizki dago".

Egingo dituzten konponketa lanen aurrekontuez ere galdetu zuen koalizio abertzaleak; Lugarategikoei dagokienez, guneko lan zabalagoen aurrekontua emanaz erantzun dio Gobernuak; gainerakoan, *Euskal Y*-aren aurremantentze kontratuak 1,5 milioi euroko zenbatekoa duela adierazi du, baina Aramaio lanetarako zenbat izango den zehaztu gabe dagoela oraindik.

Desjabetzeak eta bideak

EH Bilduren beste galdera sorta bat lurren eta bideen jabetzari buruzkoa izan zen. Batetik, zergatik ez zaion Udalari helarazten desjabetze guztiei buruzko informazioa; informazioa eguneratuta ez edukitzeak akatsak dakartzala zergak kobratzerakoan: "Desjabetze nagusiak, trenbidea doan lurretakoak-eta, eguneratuta dituzte, baina gero egin diren txiki guztiak ez. Landa zergaren zenbatekoa ez da hainbestekoa, baina desjabetu bazaituzte eta bi metro koadro kendu badizkizute, hori gutxiago ordaindu beharko duzu, ezta? Eta gauzak ganoraz jarri". Gobernuak erantzun du Adif-ek, ofizios, AHTaren lanak amaitutakoan egingo duela desjabetutako lurren inskripzioa erregistroan, baina norbanako jabeek badutela aukera eurekin lotutakoaren inskripzioa aurrez eskatzeko.

Bestetik, hainbat bide publiko izaten jarraitzen duten edo ez ere ez du argi Udalak, itzuliko ote dizkioten: "Adif-ek eskuhartzea izan duen erabilera publikorako bideak inguruko lanak amaitzerako utziko ditu formalki Udalaren esku", dio Gobernuaren erantzunak.


Adif-ek eta Espainiako Gobernuak bakarrik ez, Jaurlaritzak ere dagokion erantzukizunagatik erantzutea nahi du alkateak; dio Batzar Nagusietara eta Legebiltzarrerara arazo horien berri ematera joan zenean "animo eta zorte on" esan ziotela. Uste du orain, Madril, "beste behin" ari zaiela "adarra jotzen". Baina Udalak jarraituko duela dio.

Puntu Berde Mugikorra Ibarren egongo da barikuan

Hilaren 22an, Ibarren egongo da Puntu Berde Mugikorra. Motorrerako olioia, bonbilla eta fluoreszenteak, herbizidak, pneumatikoak, pilak eta bateriak, aerosolak, pintura eta disolbatzaileak eta tonerrak eta informatika hondakinak jasoko dituzte, 11:00etatik 13:00etara. Beste hainbat auzotan ere egongo da egun horren bueltan.

Facebooken gaineko ikastaroa eskainiko dute KZgunean

Astelehenean hasiko da ikastaroa, eta eguenera bitartean emango dute, lau egunez. 09:00etatik 11:00etara izango da; zortzi ordu, beraz, guztira. Ikastaroan parte hartzeko lekuak mugatuak dira, eta izena liburutegian edo itxasokultura@gorbeialdea.eus helbide elektronikoan eman daiteke, doan. Gaur, barikua, da horretarako azken eguna.



Aitor Ugarte. GOIENA

Aitor Ugarte, eskia eta bertsoa direla-eta protagonista

Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia jokatu da bihar, zapatua, Zigoitian, eta bertan ariko da Aitor Ugarte; aurreko astean, Manex Agirre bigarren eta Paula Amilburu hirugarren geratu ziren, Iñaki Viñaspreren atzetik. Bestetik, mendiko eskiko euskal hautatzaileak gazte mailako talderako deitu du Ugarte. Hura da selezioan debagoiendar bakarra.



Pilota sorta bat eta atzean pilotariak, herriko frontoian. JULEN IRIONDO

Lagun arteko pilota txapelketa, lehenengoz

Aramaio Pelota Elkartea ari da antolakuntza lanetan; martxoan hasiko da eta apirilaren 13an jokatu da finala, Korrika herrira iritsi baino ordu batzuk lehenago –propio jarri dute–; aurtengoaren ostean txapelketak jarraipena izatea da asmoa

Julen Iriondo ARAMAIO

"Herriko gazte batzuek gogoa genuen txapelketa antolatzeke; zuzendaritzakoei komentatu genien, eta horrela sortu da", dio antolakuntzan ari den Jon Herrartek –pilota elkarteko monitorea da–. Lehen aldia da Aramaion halako bat antolatuko dutena; Herrarteren arabera, duela urte batzuk Euskal Herri mailan egin zen antzerako bat, eta bertan parte hartu zuten aramaioarrek ere, baina herrian bertako lagun arteko txapelketarik ez da orain arte egin; azken urteetan, behintzat.

Eta ematen du harrera ona izango duela txapelketak: "Kuadrilla eta oso ondo hartu da txapelketaren kontua; gustura daude, txapelketa baten gogoa zuten, bikoteak eta sortzen badabilta eta espero dut txapelketa polita aterako dela". 16 urtetik gorakoentzat da txapelketa; Herrarteren esanetan, herriko gazteen artean badago pilotarako zaletasuna: "Lehen

jokatu izan duen jendea da, gehienbat, baina bestelakoak ere animatu dira. Badago zaletasuna, bai; kuadrilla askotan. Hasi 16 urtetik eta 30 ingurura arte jende asko dago, eta hortik gorakoak ere batzuk bai".

Izan ere, pilota izan da urteetan Aramaio kirol nagusietako: "Futbol eskolarik ez dago, eta kirol batean aritzeko aukera bakarretakoa pilota izan da Aramaion, eta txikitan gehienak ibili dira pilotan [mutilak; gaur egun, neska batzuk ere ari dira], nahiz eta gero askok ez jarraitu".

Hainbatentzako, beraz, berriz ere pilotan murgiltzeko aukera izango da oraingoa, eta aspaldian jokatu gabeko bat baino gehiago egongo dela ere kontuan

BIKOTEKA IZANGO DA, PILOTA GOXOAREKIN, ETA LIGAXKA ERARA JOKATUKO DA TXAPELKETA

izango dute jokorako pilotak aukeratzeko orduan: "Pilota goxoa izango da, 90 gramo ingurukoa eta nahikoa biguna; jendea ez dago ohituta pilotan asko egitera, eta, beraz, eskuak ez mintzeko ea topatzen dugun pilota egoki bat".

Izena emateko, aramaiopelota@gmail.com helbidera idatzi behar da edo eguaztenez –18:00ak eta 21:00ak artean– edo egubakoitzez –17:00ak eta 19:00ak artean– frontoian azaldu. Otsailaren 28a da apuntatzeko azken eguna; 10 euro ordaindu behar dira, bikoteko. Partiduak egubakoitz arratsaldeetan –18:00etan hasita– edo zapatu eguerdian –12:00etatik– jokatu dira; izena ematerakoan zehaztu behar du bikote bakoitzak, hasiera batean, ze aukera dator kion hobeto. Ligaxka erara izango da txapelketa.

Aurtengoaren ostean, txapelketa antolatzen jarraitzea da asmoa, antolakuntzak giro ederra espero baitu, kantxan zein harmailetan.

Mediku zerbitzuari buruzko azalpenak eman ditu Ospitaleak

Denbora batez zerbitzua ohi baino murriztagoa izan zela eta ardura zegoen Udalean eta herritarren artean

J.I. ARAMAIO

Mediku kontsultaren ordutegia murriztuta ikusita, herritarren artean gaiari buruzko kezka zabaldu zen. Debagoieneko ESIIn –ospitalea– egin zuen galdera Goienak, eta erantzuna izan da hainbat faktorek eragin zutela egoera, baina berriz ere lehen-goan dela: "Gabon garaian, oporrerengatik egon daitezkeen ordezkapen arazoei bertako familia medikuaren baja gehitu zitzaion, eta, honek eraginda, egun batzuetan, arreta zerbitzua ordu batzuk murriztu beharra izan

zen". Gainera, ordezkoak ere baja hartu eta "mediku agenda berrantolatu" beharra egon zen, Debagoieneko ESIren arabera.

"Urtarrilaren 7tik aurrera, ordea, 08:00etatik 15:00etara egunero dago ordezko medikua pazienteak artatzeko, nahiz eta egun jakin batzuetan mediku ordutegia 13:30ean bukatu –ez da ohikoa izaten–, azaldu dute. Halaber, medikuarenera joateko aurrez txanda hartu behar dela gogorarazi dute. Udalak ere egin zuen bilera arduradunekin, eta erantzun bera jaso zuen.



IMANOL SORIANO

Feminismoari buruzko tailerra

Herriko talde feministak deituta eta Martxoaren 8rako motorrak berotze aldera egindako saioan, hamabost lagun inguru batu ziren –gizonezko batzuk ere bai–, eta antolatzaileak gustura geratu ziren: "Betikoa ez den jende bat ere etorri da, eta hori positiboa da". Historia eta oinarriko kontzeptuak azaldu zituzten, eta eztabaida ere egin zuten.


Diru bilketa egingo da herriaren Korrikako kilometroak erosteko

Korrikak hamalau kilometro egingo ditu Aramaion –apirilaren 14an izango da–, eta horiek guztiak herriko elkarte, eskola, erakunde, eta abarren artean erostea da asmoa; horretarako, diru bilketa egitea proposatu du antolaketa batzordeak.

Kilometro bakoitza 425 eurotan salduko da, eta kilometro osoa erosi nahi duenak [\[aramaio.eus\]\(http://aramaio.eus\) helbidera idatzi edo udaletxera deitu behar du.](mailto:euskara@</p>
</div>
<div data-bbox=)

Kilometro osoa erosi ezean, diru ekarpena egin daiteke Txirritolaren kontuan –3035 0161 21 1610004439–, kontzeptuan ekarpen egilearen izena jarritz –elkarte edo dena delakoa–. Otsailaren 25ean amaituko da epea.

Bestalde, Korrika pasako den egunean bertan, 18:30ean, jaialdia izango da frontoian, eta bertan herriko kultura taldeek eta artistek egingo dute erakustaldia.



Joan den zapatuan bolatokian elkartutako hainbat lagun. MIRARI ALTUBE

Bolatarako zaletasuna pizteko ahaleaginean

Bola-jokoa berreskuratzeko taldetxo bat elkartu da herrian eta bolatokia behar bezala txukundu eta edonorendako zabaldu gura dute; Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa barruan ere sartu dute Aretxabaleta eta lehen jaurtialdia martxoaren 2an izango da

Mirari Altube ARETXABALETA

Bolatarako zaletasuna berreskuratu gura dute herrian, eta, horretarako, dagoeneko hasita dago lanean taldetxo bat. Joan den zapatuan elkartu ziren herriko bolatokian eta jaurtialdi txukunak egin zituzten. Bolatarako zaletasuna duten kanpoko hainbat lagun babsa ere jaso zuten; izan ere, Soraluze, Elge-

ta eta Eibar aldetik gerturatu ziren Gipuzkoako Federazioko kide batzuk; Mikel Urkia presidentea, besteak beste.

Gaztetxoen artean harra sortu

"Bola-jokoa hilda egon da aspaldian Aretxabaletan, eta hori berpiztu guran hasi gara lanean taldetxo bat", jakinarazi du Kepa Urrak, kideetako batek. Zaleta-

sun hori indartzeko, herritarrek bolatokira gerturatu gura dituzte. "Kurtzabarri Eskolako kantxan bertan dago bolatokia; hortaz, harrobitxoa egon daiteke hemen. Baina ume askok jakin ere ez dakite zertarako den eta zelan jokatzeko den". Eskolakoekin berba egin du Urrak, eta atsedendietan bertara joateko gertu dagoela adierazi die,

taldetxo osatu eta bolarekin jarduteko: "Iaz ere etorri nintzen aste pare batez, eta ikusmin handia sortu zuten saioek. Eurak gustura eta neu oso pozik". Hala, adinekoak nagusi direla bolatokietan jakinik, gaztetxoen artean harra sortzen hastea da helburua.

Era berean, argi utzi gura du edonor gertura daitekeela bolatan egitera: "Iaz kuadrilla pare batek eskatu zidaten; bazkari baten bueltan bolatan jardun gura zutela. Nahi dutenerako zabalik dutela esan nien".

Horrez gain, elkarteetan ere bultzatu gura dituzte txapelketak. "Elkarte mordoak ditugu herrian, eta zergatik ez antolatu elkarte bakoitzaren egunean jaurtialdiak? Guk horretara animatzen ditugu. Gero, elkarte arteko txapelketa ere egin daiteke, musean egiten den lez", dio Urrak.

Bolatokia, egoera eskasean

Bolatokia, ostera, ez dago bere onenean: "Orain dela bi aste, 20 zentimetro ur zegoen bertan. Antza, inguruan dauden kanalizazio batzuk dira horren errudun", adierazi du eta gaineratu: "Udalari jakinarazi nion, eta urak hartzeko ahalegina egin dute kanaltxo baten bidez. Baina teilatuan ere badaude itoginak; izan ere, azken 30 urteotan ez da egin inolako mantentze-lanik".

Bolatokia erabiltzen ez duten estali egiten dute, babes- te aldera, baldintza onetan mantentzea garrantzitsua delako, bereziki txapelketak jokatzeko: "Gure gogoak litzateke bolatoki ingurua ixtea; ikusteko moduan utzi gardena den zerbaitekin, baina itxita, negu partean hazetik eta euritik babeste aldera. Hortaz, Udalari zerbait proposatzeko asmoa badugu".

Hiru Txirlo Txapelketak, 50 urte Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketak 50 urte betetzen ditu aurten, eta Federazioak egitarau berezia antolatu du. Ohiko txapelketarekin batera tiraldi bereziak egingo dituzte, eta lehenengoa Aretxabaletan izango da, martxoaren 2an (17:00). Txapelketa Leintz Gatzagan bukatuko da, abenduaren 15ean.

Mikel Urkia, Gipuzkoako Federazioko presidentea, asko poztu da Aretxabaletan taldea sortu delako: "Elgoibar, Eibar, Soraluze aldean oraindik bada- go zaletasuna, eta gazteak badoz atzetik, mutilak zein nes- kak. Leintz aldean ere badago- la indartzeko gogo hori ikusita pozik gaude". Eta bolatokietan sortzen den giro ona nabarmen- du gura izan du. "Euskara na- gusi izaten den giroa sortzen da, eta asko eskertzen dugu hori euskaraz bizi garenok".

Txapelketa hasteko gogotsu daude Urria zein taldekideak: "Batzuk federatu ere egin gara, hiru oraingoz, eta hor gabiltza, ilusioz". Taldeko ateak zabal- zabalik dituzte bola-jokoa gus- tuko duen edonorendako.

Debagoieneko hitzorduak

Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketa (Debagoienean egingo diren jaurtialdiak):

- Martxoak 2: Aretxabaleta
- Martxoak 30: Bergara.
- Maiatzak 4: Aretxabaleta.
- Maiatzak 25: Elgeta.
- Abenduak 15: Leintz Gatzaga.

Hirugarren Aresko Martxarako izen-emate epea zabalik dago

Kiroldegian dute betetzeko txartela; ibilaldia martxoaren 10ean egingo da, Aretxabaletatik Eskoriatzara

M.A. ARETXABALETA

Eskoriatza Kirol Elkarte barruko Aresko saskibaloi taldeak martxoaren 10erako iragarri du III. Aresko Martxa, *Pausoz pauso aurrera* leloarekin. Aretxabaletako Herriko Plazan irten

eta Eskoriatzakoan emango diote bukaera oinez egingo du- ten ibilaldiari.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, otsailaren 20ra bitartean. Aretxabaletan, Ibarra kiroldegira jo behar da; bost

euro da izen-ematea eta trukean kamiseta bat jasoko dute.

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen babesarekin eta UDAREN eta Mondragon Lingua- ren laguntzarekin antolatu dute martxa. Aretxabaletako Kirol zinegotzi Mikel Uribebarriak eskerrak eman zizkien antola- tzaileei halako ekimenaren alde egiteagatik: "Kirolak eta ema- kumeak bat egin dute, eta oso positiboa da kirol esparrutik sortu izana hori", zioen aurkez- pen ekitaldian.

Argindarraren gaineko argibideak emango dituzte Basotxon

Erretiratuen elkarteko kideek trebakuntza saioak, osasunare- kin zerikusia duten ikastaroak eta ospakizunak uztartzen ja- rraitzen dute. Hala, otsailaren 25ean, argindarraren gaineko argibideak emango dizkie Oier Etxebarriak. Besteak beste, argindarraren faktura ezagutzen lagunduko die; hitzaldia, 17:15ean izango da, Basotxon bertan.

Bestetik, martxoaren 1ean, zaindariaren eguna ospatuko dute, Aingeru Guardakoa. El- kartean hasiko dituzte ospaki- zunak, eta gero, bazkaltzeko elkartuko dira; oraingoan, Gure Ametsa jatetxera joango dira.

Martxoaren 5ean, Aratuste- martitzena, ostera, Tolosara joango dira Aratusteak bertatik bertara bizi izatera. "Bi autobus ia beteta daude dagoeneko. Bai- na oraindik jende gehiagok ere eman dezake izena", diote zu- zendaritza batzordeko kideek.



Beharginak lanean, Azbe izan zen eraikina berritzen. A.Z.

Eroski supermerkatuaren eraikuntza aurrera doa

Uda garairako zabaltzea da asmoa, baina irekiera-data zehaztu gabe dago oraindik; orain momentuan, eraikina berritu eta konponketa batzuk egiten ari dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak lurrak garbitzeko baimena eman eta gero

Aitor Zuazabeitia ARETXABAETA

Joan den irailetik gauzak, itxuraz, askorik aldatu ez diren arren, proiektuak aurrera jarraitzen du, eta, irekitze datarik ez badago ere, ez da atzerapenik aurreikusten.

Aretxabaletako Udalak jakinarazi du zelan dagoen Eroski berri horren proiektuaren gaur egungo egoera.

Proiektuak, hiru zati

Unai Elkoro alkateak berak esan duenez, proiektuaren egoera hiru zatitan banatuta azaldu daiteke.

Lehenik eta behin, eraikina berritu eta konponketa batzuk egiten ari dira. Horretarako baimena hasiera batean lortu zuten, baina lur kutsatuak azaldu ziren eta ezin zuten lurzorua ukitu arazoa konpondu bitartean. Orain dela hiru aste lortu zuten lurra garbitzeko baimena Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik, eta, hain zuzen ere, horretan aritu dira ordutik hona.

Bigarrenik, Eroskiren beraren barruko obrak egiteko baimenei dagokienez, gauza pare bat izan ezik beste guztia adostuta dago, eta Udalak adierazi du hori behala konponduko den oztopo txiki bat besterik ez dela.

Azkenik, hirugarren puntu batean, proiektu horrek eskatzen dituen eraikinaren inguruko urbanizazio kontuak lotzea geratzen da. Hori da gordinen dagoen pausoa, orain dela oso gutxi aurkeztu baitute kontu horri dagokion dokumentazioa. Horren harira, eta jende askoren kezkarri erantzunez, alkateak esan du autobus geltokia dagoen lekuan geratuko dela; hori bai, espaloiak berritu egingo direla aurreratu du, eta etorkizun hur-

AUTOBUS GELTOKIA DAGOEN LEKUAN GERATUKO DA ETA ESPALOIA BERRITU EGINGO DUTE

bil batean egongo den Eroski supermerkatuaren atearen parean, bertara eramango duen zebra-bide bat egingo da. Zebra-bide hori jartzearen eraginez, pare bat aparkaleku galduko dira, baina eraikin zaharrean bulegoak zeuden zati hori kendu izanak espazio gehiago zabaldu du, eta aparkaleku berriak egitea aukera bat izango litzaiteke.

Eroskik, berriz, 40-50 aparkaleku inguru eskainiko ditu, eraikinaren gainean eta barruan banatuta. Gainera aparkalekuei dagokienez, komertziora iritsiko den igogailu bat jarriko dute.

Biribilgune bat jartzekotan dira Amaitzeko, eraikinaren alboan kokatutako irteeran biribilgune bat jartzekotan dira. Diputazioa arduratuko da horretaz, eta, lur eremu hori aspaldi eman bazitzaion ere, ez da ezer egin; horrek urbanizazio obrekin koordinatzeko emango duen aukera aprobetxatzen saiatuko dira.

Antzerki Astean murgilduko dira Kurtzebarri Eskolako kideak

Astelehenetik eguenera bitartean ikuskizun mordoak eskainiko dituzte Lehen Hezkuntzako ikasleek

Mirari Altube ARETXABAETA

Urtero lez, Antzerki Asteak ez du hutsik egingo Kurtzebarri Eskolan, eta, beste behin, antzezlan eta saio mordoak antolatu dituzte, bai gainerako ikas-kideendako, bai guraso eta senideendako. Astelehenean, hilaren 18an, hasi eta eguenera bitartean aretoan izango da zer ikusi eta zer entzun Lehen Hezkuntzako eskutik.

Bertsoak eta dantzak ere bai

Lehenengo eta bigarren mailakoen txanda izango da aste-

lehenean eta martitzenean, eta hauek eskainiko dituzte, besteak beste: *Eguzkia baino ahaltzuagoa* eta *Ametsetako jolas parkea* antzezlanak, *Musu* abestia, esaera zaharrak eta aho-korapiloak eta euskal dantzak.

Eguaztenean eta eguenean, hirugarren eta laugarren mailakoen hartuko diete txanda eta *Supershow* ikuskizuna eskainiko dute; bertsoak, *Axa-Mixa* aho-korapiloak, *clap-rap* eta gehiago izango dira.

Gurasoendako saioak 17:30ean hasiko dira.



M.A.

Balio historikoa aitortzen

Herriko hainbat eraikini, balio historikoa aitortu nahian, plakak jarri dizkiete identifikatzeko. Udaletxean, parrokiaren eta udaletxe zaharrean jarri dituzte plakak Udalak, hiru hizkuntzatan —euskaraz, gazteleraz eta ingelesez—, eta jauregiaren izena eta eraiki zeneko mendea zehaztuta. Aurrerago Otalora jauregiari ere jarriko diotela iragarri dute.

San Kristobal eta Orixol aldera mendi irteera domekan

Guraso Foroak eta Murruxiko Mendizale Elkarteak, elkarlanean, San Kristobaldik Orixolera mendi irteera antolatu dute domekarako, hilaren 17rako. Familiei zuzendutakoa da, baina edozein herritarrek har dezake parte bertan. Herriko Plazan elkartuko dira, 09:30ean, eta San Kristobaldik 10:00etan abiatuko dira.

Haurren larrialdietarako sorospen ikastaroa

Kukumiku guraso elkarteak kideek Debagoieneko Ospitaleko larrialdi-zerbitzuetan lan egiten duten Iñaki Agiriano medikua eta Inma Escribano erizaina gonbidatu dituzte. 6 urte bitarteko gurasoen zantzak argitzen izango dira astelehenean, hilaren 18an, Kukumikuren egoitzan (17:30). Solasaldi irekia izango da.



Kiroldegi aurreko berdegunea, futbol zelai berria egokituko duten gunea. MIRARI ALTUBE

Laster hasiko dira futbol zelai berriaren lanak

Udalak mahai gainean dituen hainbat proiekturi helduko die datozen hilabeteetan eta lan asko izango dira herrian; otsailean bertan hasiko dituzte futbol zelai berriaren lanak kiroldegi aurreko berdegunean eta hainbat kaleren asfaltatze lanak ere badatoz

Mirari Altube ARETXABALETA

Hurrengo hilabeteetan lan asko izango direla iragarri dute udal ordezkariak; izan ere, hainbat arrazoi direla eta, orain arte heldu ez dieten proiektu asko exekutatzeko asmoa dute.

Futbol zelaiaren lanak, hastear

Futbol zelai berriaren lanak hasiko dituzte lehenengo, hilabete bukaeran. Joan den astean esleitu zituzten eta laster sinatuko dute kontratua; Kataluniako Sports And Landscape enpresari eman diote horren ardura: "Lanak txukun egiten dituen enpresa da eta asfaltatzeko hemengoak hartzen ditu. Gainera, beharpen handia egin du, ia 100.000 euro; hortaz, ederto!", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

Kaleak txukuntzen

Bestetik, asfaltatze lanak daude; hain zuzen ere, astean bertan esleitu dizkiote Provisa enpresari, eta laster hasiko dira Loramendi, Bizkaia eta Errekabarren

ren kaleak berritzen. Azken horretan, gainera, Otalaratik mojen komentura bitartean dagoen zatian, espaloitxo bat egingo dute ezkerrean, bi aldeetatik pasatu ahal izateko.

Herri barruko bidegorria egokituko lanak ere egingo dira, Santa Kurtz kalean. Kurtzebarri eskolako kantxatik ateratzea da horren helburuetako bat. Proiektua iaz egin zuten, baina horri hobekuntza batzuk egiteko asmoa daukate orain: "Egunotan adostuko ditugu aldaketa horiek, baina hasiera-datarik ez dute; laster izango delakoan gaude". Santa Kurtz kaleak behar gehiago ere badituela onartu du alkateak: "Ez dago batere egoera onean eta lehenbailehen heldu

behar zaie hango saneamendu lanei".

Arrapala, lehenbailehen

Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera igotzeko arrapalari ere asteotan helduko diote. Hala gura du, behintzat, alkateak. Horretarako, prozedura azkarra erabilita lizitatuko dituzte lanak datozen egunetan, hamar egunen bueltan esleitzeko. "Proiektua eginda dago eta ez da lan konplikatu, galdaragintzari dago-kiona da, gehienbat, egitura metalikoa delako", eta gaineratu du: "Sei asteko lana izango dela dago zehaztuta, baina ez dut uste hainbeste beharko denik".

Komentuko aretoa

Mojen komentuko aretoaren zirriborroa ere esku artean izan dute udal ordezkariak: "Zirriborro hori ikusita, aldaketa batzuk egiteko eskatu genion", dio. Behin horiek sartutakoan onartuko dute proiektua, eta lanak esleitu gero.

HERRIKO HAINBAT KALE ASFALTATUKO DITUZTE: LORAMENDI, BIZKAIA ETA ERREKABARREN

Gimnasia erritmiko eskolen topaketa antolatu dute Arrasaten

Benjamin mailako gimnastek topaketaren lehen fasea izango dute Uarkapen datorren zapatuan

Aitor Zuazabeitia ARRASATE

Eskolen arteko gimnasia erritmiko topaketa izango da Arrasateko Uarkape kiroldegian bihar, zapatua. Hain zuzen ere, txapelketa horretan parte hartuko duten herri ezberdinetako taldeen artean UDA Aretxabaleteko kirol elkarte dago. Horrela, Aretxabaleteko Kurtzebarri Eskolako eta Arrasateko Arizmendi Ikastolako Arimazubi guneko gimnasten erakustaldia ikusteko aukera izango da. Ekitaldiak 15:30etik 19:30era arte iraungo du.

Aste bukaera honetan parte hartuko duten gimnastak honako hauek izango dira: Kurtzebarri Eskolakoak, Maier Arrieta, Maialen Gallo, Iraide Zabala, Haizea Galan eta Haizea Gracia; Arizmendi Ikastolako Arimazubikoak, Noa Laiseka, Olaia Romaña, Iargi Martin, Maddi Moto eta Maialen De Miguel.

Bigarren fasea, apirilean

Benjamin mailako txapelketa horrek jarraipena izango du; bigarren fasea apirilaren 6an egingo da, Bergaran.

Irrintzi doinuak berriro entzungo dira Arkupen

Bueltan da abenduaren 1ean estreinatu zen *Erraiak* dokumentala, Arkupen. Otsailaren 19an eta 20an proiektatuko da berriz, Zaraqia aretoan, 19:00etan, eta sarrerak dagoeneko salgai daude.

Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariak Arteman komunikazio taldearekin elkarlanean sortutako dokumentalak oso

harrera ona izan zuen etxeko estreinaldian eta bertaratu zirenek hala adierazi zuten aretotik irteteen.

Dokumental hori berritzailea dela esan behar da, irrintiaren inguruko ikerketa jasorik nekez aurkitu daitekeelako, eta horregatik erabaki zuen Martinez de Lizarduyk *Erraiak* egitea.

Bertaratu zirenek "hunkigarria", "pozgarria", "barruraino sartzen den zerbait" eta halako esaldiak erabili zituzten dokumentala deskribatzeko.



JOXE MIGEL URIBARREN

Gabilondo eta Gutierrez garaile

Joan den astean, otsailaren 9an, jokatu zuten mus txapelketa, batzokian. Sei bikotek jardun zuten nor baino nor gehiago, eta finalean, Isidoro Garziaetxabe eta Pello Orobengoa bikoteari irabazita, Jose Manuel Gabilondo eta Karlos Gutierrez izan ziren txapelduak.

Erabilpen librerako guneko lanak martxan

Arbiñosten, Santa Ana eta Santa Marina arteko lanak hasteko prest daude. Bertan izango den parkerako eta oinezkoentzako pasabidea egiteko, hainbat lur multzo eraman dituzte, eta induskatzeko makina ere bertan da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Santa Ana auzoa Santa Marina-ko plazarekin lotzeko lanak hasteko prest daude. Eredu horretako lanak hiru fase ditu, eta laster ekingo diote bigarrenari. Lehen fasea, Santa Anako aparkalekua irekitzea izan zen. 2018ko irailaren 13an ireki zuten, Eskoriatzako Udalak, jabegorekin akordioa hitzartu ostean. Gaur egun, 40 auto ingururen-tzako aparkalekua dago.

Parkea eta berdegunea

Orain, berriz, bigarren fasearekin hasiko dira. Hau da, Santa Anako aparkalekuko eta Santa Marina parke arteko lursailen erabilpen librerako gunea eginez. Horretarako, lehenengo pausua, lurra, aparkalekuaren alturara jartzea izango da, eta gero jarriko dute jolas-parkea eta berdegunea bertan.

Hamar urte baino gehiago utzita izan den eremu hori sastrakez eta zuhaixkez beteta dago gaur egun, eta lan hauek egin ostean, eremu hori erabilgarri izango dute herritarrek, hainbeste urteren ostean. Hori horrela, Santa Ana eta Santa Marina artean egingo duten jolas-parkearen eta berdegunearen aurrekontua, 24.000 euro ingurukoa da.



Santa Ana eta Santa Marina auzoak batzeko lurra pilatuta. IMANOL BELOKI

LEHENENGO PAUSOA IZANGO DA LURRA APARKALEKUAREN ALTURA BEREAN JARTZEA

Oinezko pasabidea lur-jabeek

Lan horiekin batera, hirugarren faseko lanak etorriko dira, obra guztiari amaiera emateko. Jose Arana kaleko etxeen kontra, hauen atze aldean, oinezko pasabidea egitea izango dena, hain

zuzen ere. Hala, Santa Ana eta Santa Marina lotzeko asmoz egingo dituzte lan horiek. Horren ardura, Lete auzorako bidea konpontzen ari den enpresa berak izango du, Morga enpresak. Hirugarren faseko lan hauek ez ditu Eskoriatzako Udalak ordainduko, lur-jabeek ordainduko dituzte. Izan ere, horren arrazoia da betiko urbanizazioa izango dela, eta etorkizunean eremu horretan etxeak egin edo ez egin beharreko lana dela. Lan horiek egiteko aurrekontua 80.964,89 eurokoa da.



Aresko martxa aurkeztu zutenak. MIRARI ALTUBE

Aresko Emakume Martxa martxoaren 10ean izango da

Emakumeek kirolean duten lekua aldarrikatzeko festaren hirugarren edizioa izango da eta izen-ematea zabalik dago

I.B ESKORIATZA

Aretxabaleako eta Eskoriatzako udalen babesarekin eta UDAREN eta Mondragon Linguaren laguntzarekin, Aresko elkarteak antolatutako martxaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa.

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko asmoz antolatutako egitasmoa martxoaren 10ean izango da; 12:00etan Aretxabaleako Herriko Plazatik abiatuko da ibilaldia, oinez, eta Eskoriatzakoan bukatu. Hori horrela, Aretxabaletan emakume bat eta Eskoriatz

beste bat omenduko dituzte, urtero egin duten moduan.

Izen-ematea zabalik dago

Martxan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Horretarako, Manuel Muñoz edo Ibarra kiroldegietara joan behar dute herritarrek. Bost euro da izen-ematea eta trukean kamiseta bat jasoko dute, *Pausoz pauso aurrera* leloarekin –izena ematerakoan kamisetaren neurria aukeratu beharra dago–. Izena emateko azken eguna, berriz, otsailaren 20a da.

'Ziklon' eta 'zunba' egunak pilotalekuan eta kiroldegian

'Ziklon day' saioan izena emateko aukerarik ez egon arren, 'zunba'-n eta 'strong'-en eman daiteke

I.B ESKORIATZA

Zapatuan, kirola izango da nagusi Manuel Muñoz kiroldegian eta Joseba Inurrategi frontoian. Batetik, *Ziklon day* saioa kiroldegian egingo da, eta bi txanda egongo dira horretarako, 09:00etatik 10:30era eta 10:30etik 12:00etara bitartean. *Zunba* saioa, berriz, 09:30etik 10:45era bitartean izango da, frontoian, eta, horrekin batera, segidan, 10:45etik 11:15ak arte, *strong* izeneko modalitatearekin jarraituko dute.

E-Goitek kirol zerbitzuetako kideek eskainiko dituzte saioak,

eta, adierazi dutenez, *ziklon* saioan ezin da izenik eman, bizi-kleta estatikoak behar direlako. Hala ere, *zunba*-n eta *strong*-en izena eman daiteke. Horretarako, kiroldegira deitu behar da, 943 71 53 28 telefono zenbakira; gaur da horretarako azken eguna.

Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkideek bost euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, zazpi euro. *Zunba* ikastaroa, berriz, doakoa izango da, eta bertara joan nahi duenak oraindik lekua du.


Makineria, hasteko gertu

Indusketarako makina gertu dute Santa Marina eta Santa Ana auzoen artean. Bertan, besteak beste, zuhaixkak eta sastrak aterako dituzte eta bertako lurra ateratzeko eta mugitzeko lanak izango dira.

Edozelan ere, lanak, oraingo, geldi daude, baina Udalaren asmoa da lehenbailehen lanei heltzea eta eremu hori egokitzea.



Hondeatzeko makina Santa Marinan. I.B



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea *Harira* saioan. JAGOBA DOMINGO

"Zinegotzi guztiok prest gaude lanean jarraitzeko"

JOSERRA ZUBIZARRETA ESKORIATZAKO ALKATEA

Laster aurkeztuko dute maiatzeko udal hauteskudeei begirako zerrenda. Aurpegi berriak eta independenteak integratuko dituztela adierazi du Zubizarretak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Lau urteotako esperientzia oso ona izan dela adierazi du agintaldi honetan Eskoriatzako alkate izan den Joserra Zubizarretak. Gaineratu du esperientzia polita izan dela eta, momentu gogorak izan arren, lantalde "potentea" izan duela eta herritarren artean harrera ona izan duela.

Lau urteotako balorazioan, zer azpimarratzen duzue?

Bi ardatz garrantzitsu azpimarratzen ditugu: lantaldearen

barruan, hasieratik oso garbi izan genuen herritarrekin egon behar genuela. Horren harira, lehenengo saiakera bat egin genuen, *Hiri-berritze plana*. Jendeak kalean asko geratu gaitu, jende askorekin hitz egin dugu...

"OSOKO BILKUREKIN HARRO EGOTEKO MODUAN GAUDE; IA AKORDIO GUZTIAK AHO BATEZ ONARTU DIRA"

Askotan, kexak izan dira; beste askotan, berriz, ekarpenak. Gu-txienez, 500 ekarpen jaso ditugu, eta horietatik %80tik gora bete ahal izan ditugu. Bigarren ardatz inportantea politikoa izan da. 2018ko osoko bilkurekin harro egoteko moduan gaude; izan ere, ia akordio guztiak aho batez onartu ditugu, gutxi batzuk izan ezik. Horrek esan nahi du sukaldeko lan asko egon dela, eta ondo egindakoa. Hor sartu ez ditudanak izan dira mozioak. Askotan, kutsu politikoa izan

dutenak, kanpoan utzi ditut, baina, hala eta guztiz ere, ez da mozio asko izan dituen agintaldia izan. Adierazpen instituzionalak egon dira, horiek adostutakoak, eta guztiak aho batez onartuak izan dira.

Zailtasun momenturik izan duzue?

Horiek naturarengandik etorri zaitzigu izan dira. Oraindik, ondorioak jasotzen ari gara, gainera. Leteko bidekoa oso kritikoa izan zen; irailan, San Pedro eta Intxaurtxueta inguruan ur-jasa izugarria izan genuen... Ondorioetatik ikasi egiten da, eta hurrengoan aplikatzean, emaitza onak ikusi eta ahaztu egiten dituzu. Momentu honetan, gaixotasun bat izan dut, eta denbora dezente kalera irten barik egon naiz, eta badakit nire taldeko kideei, etxekoei, eta ingurukoei asko galdetu dietela herritarrek nire egoeraz, eta kezka horiek zerbait adierazten dute. Batetik, kalean, faltan igartzen nautela, eta bestetik, nitaz galdetzen aritzea eskertzekoa da. Hori ere bada lau urte hauetako argazkia.

Maiatzeko udal hauteskundeak dira; zerrenda ostatuta duzue?

Horretan ari gara. Lau urteotako esperientzia ikaragarria izan den honetan, EAJ alderdiaren jarrera eskertu beharra dugu. Bost kide gara taldean. Bat da militantea; besteak, berriz, independenteak gara, eta egia da EAJk bere esperientzia instituzional osoa gure behar eta egin-kizunetara jarri duela eta, era berean, autonomia osoa utzi digu. Horren harira, gauza bera egiteko asmoa daukagu. Jarraitu nahi dugu zerrendan ahalik eta independente gehien sartu guran; egia da batzuk berriak izango direla. Esan beharra daukat taldeko guztiok prest gaudela jarraitzeko, eta hori beste puntu positibo bat da. Gogotsu gauden seinale, eta gero, instituzio ezberdinekin, Foru Aldundiaz eta Eusko Jaurlaritzarekin izan ditugun harreman onei esker, gauza asko aurrera eraman ahal izan ditugu. Oraindik, lanean ari gara, eta laster batean izango dugu zerrenda aurkezte-

"HERRIAK KONFIANTZA EMATEN BADIGU, BERDIN JARRAITUKO DUGU GUK LANEAN"

ko moduan, baina berritasunak badaude. Eta berritasuna da gaudenok jarraituko dugula eta jende berria ere inkorporatuko dugula.

Bost zinegotzi dituzue aurten; zein espektatiba dituzue? Gehiago lortzea, horiek mantentzea...?

Lau urte hauetan herriarekin egoten saiatu gara, eta uste dut beraiek erabaki beharko dutela. Ikusi dute gure funtzionatzeko era zein den, aurretik zer zegoen, eta uste dut beraiek direla onak erabakitzekeo zer nahi duten. Herriak konfiantza ematen badigu, guk berdin jarraituko dugu lanean. Kalean izango gara ekarpenak jasotzen, eta, arlo politikoa ere, orain ditugun emaitzak lortzen saiatuko gara. Horiek jarri ditugu guk ardatz gisa.

Nola joan da Eskoriatzak merezi du kanpaina?

Kanpainaren barruan, 140 ekarpen jaso ditugu. Horietako bat txakurren gaia izan da; hainbat herritarrek eskaini dute euren burua. Batzuk, txakur jabeak direnak; beste batzuk, txakurrik ez dutenak. Horiek guztiak mahai inguru baten bueltan jarri, jarrera batzuk adostu, eta gero, arautegi bat edo Udaletik bideatzeko hitz egin da.

Aurrera begirako proiektuak zeintzuk izango ziren?

Kiroldegia, esaterako, urteetan ez da ukitu, eta agintaldi honetan hobekuntza nabarmenak izan dira, baina ez ditugu bukatu. Kanpoko igerilekua eta bertako eremua handitzea, behar bada, ez da soilik txikientzat izan behar... Aztertu egin behar ko genuke, eta horiek ez dira epe motzeko lanak. Horrekin batera, hiru proiektu nagusi egitea aurreikusi dugu aurrekontuetan: *Partxis* jolas-parkea egitea onartu dugu, Udaltzaingoarentzat – auto elektrikoa – eta mantentzekoendako garraioa, eta baita Santa Ana aparkaleku inguruko proiektua. Azken horrekin aurten hasiko gara, eta, etxeak egin bitartean, txukundu egingo dugu, urteetan utzita izan den eremuan. Horiek ez dira epe motzeko lanak. Musika eskola berria ere nahiko genuke aurrera begira. Herritar ugari erabiltzen dute, eta geroz eta egoera eskasagoak dituzte, kirol elkartearen ere jende gehiago dago, elkarte berriak sortzen ari dira eta hauek ere beraien lekua behar dute...

EH Bilduren alkategaia Eluska Irazu da

Udal hauteskunderi begira zerrendako lehenengo bost izenen berri eman du Eskoriatzako EH Bilduk. Eluska Irazu da alkategaia, eta harekin batera joango dira zerrendan Nestor Arana, Dorleta Sologaitoa, Ander Errarte eta Iñaki Lizundia

Mirari Altube ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduk udal hauteskunderi begira zerrendako lehenengo bost izenen berri eman du. Eibarren jaio eta Eskoriatzan dagoeneko urte asko daramatzen Eluska Irazu izango da alkategaia, eta harekin batera joango dira zerrendan Nestor Arana, Dorleta Sologaitoa, Ander Errarte eta Iñaki Lizundia.

"Esperientzia, gaztetasuna eta lan-ildo ezberdinen eremuak jasotzen saiatu gara, eta horiek jasota daude pertsonengan; hala, irakasleak, langileak, gazteak daude", adierazi du Bilduren egungo bozeramaile Aitor Zubizarretak, eta gaineratu: "Uste dugu Eskoriatzak dituen beharrei eta bereziki herri bizitzari indarra eta biziberritzea emango diola talde honek". Eta Eluska Irazu alkategaiarekin batera izango diren lehenengo laurak aurkeztu ditu: "Nestor Aranek Danimarkan dihardu lanean gaur egun. Dorleta Sologaitoa gazteekin eta nagusiekin esperientzia handia duen erizaina eta kudeatzailea da; Ander Errarte gazteak esperientzia handia du gazteekin, eta Arrasaten kale hezitzaile lanetan dihardu. Eta Iñaki Lizundiak lan instituzionalean esperientzia handia du Ortuellan, eta orain Eskoriatzan ere bai".



Iñaki Lizundia, Eluska Irazu eta Dorleta Sologaitoa, aurkezpenaren ostean. M.A.

Pertsonengan oinarrituta

Irazu zerrendaburuak 43 urte dauzka eta irakaslea da. Euskararen bueltan lan egindakoa da gaztetatik Eibarren, jaioterrian, eta Historia ikasketak egin zituen. Hogei urtetik gora daramatza irakaskuntzan, hainbat mailatan eta enpresa munduan ere trebakuntza saioak emandakoa da. Politikan, ostera, ez duela esperientziarik onartu du: "Esperientziarik ez, baina badaukat gogoan lanerako, Eskoriatza mundiala izan dadin, eta horretarako egi-

tasmo eta proiektu indartsuak dauzkagu. Atzetik izango dugun jendeak eta orain arte egon diren lagunduko digute proiektu horiek aurrera errotan", zioen aurkezpenean. Era berean, pertsonengan jarriko dutela arreta gaineratu du: "Guretako garrantzitsuak dira pertsonak eta horiek egingo dituzten ekarpenak. Gu adituak izango gara kontu batzuetan, baina bakoitza berean da aditua, eta jendeak duen potentziala aprobetxatu behar da, jendeak duen esperientzia eta ideiak hartu eta garatzeko".

Javier Luxor mentalistaren saiorako, sarrerak agortuta

Domekan, 19:00etan, Zaldibarren izango den 'Imposible' ikuskizunerako sarrera guztiak salduta daude

I.B ESKORIATZA

Aste honetan, *Zientziaren argitan, egia ala gezurra?* izeneko egitasmoa izan da Eskoriatzan. Hori horrela, martitzenean, Bitor Rodriguez nutrizionistak elikadurari buruz egunero en-

tzuten diren mitoen eta gezurren gaineko saioa eskaini zuen Zaldibar antzokian, eta egunean, berriz, Victor Javier Sanz medikuak txertoen, homeopatiaren eta horrelako kontuez hitz egin zuen.

Domeka honetan, zikloari amaiera emateko, Javier Luxor mentalistak *Imposible* izeneko ikuskizuna eskainiko du, 19:00etan, Zaldibarren. Guztira, 140 pertsonarendako muga du antzokiak, eta sarrera guztiak agortuta daude. Hala ere, bertara doazenean saioarekin gozatuko dutela adierazi du Arantxa Unzueta Kultura teknikariak: "Ez naiz aditua honetan, mentalistek gure buruarekin jolasten dute, eta zerbait harrigarria ikusteko aukera izango da".



Argazkiko ur-zisternaren azpian jarriko dituzte ortu publikoak. GOOGLE MAPS

Ortua jartzeko hamar herritarren eskaera jaso du Udalak

Martxoan erabilgarri izango dute lursaila herritarrek, baina oraindik adjudikatu barik daude

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ortu publikoak eskatzeko aukera zabaldu zuen Gatzagako Udalak urtarrilean, eta dagoeneko hamar eskaera jaso ditu. Hala ere, martxoan egingo du esleipena, eta, hain zuzen, Udalak jakinarazten duen bezain pronto hasi ahalgo dira eskatzaileak ortua erabiltzen.

Udalaren jabetzakoa den lursaila Gatzagainera bidean dago, Arrate baseritik gora igo eta depositu zaharraren azpian. Gaur egun, belardia dago, eta orain arte zaldiak izan dituzte bertan. "Eskatzaile bakoitzari

60 eta 100 metro karratu arteko eremua utziko diogu, baina oraindik adjudikazio fasean gaude. Izan ere, hasieran sei eskaera jaso genituen, baina dagoeneko hamar pertsonak eskatu dute bertan lur eremua", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

Lur eremua eta ura erabilgarri

Bengoak jakinarazi duenez, eremu horretan ura badago, baina erabiltzaileek kudeatu beharko dute; izan ere, hasiera batean, ez dute ez mangerarik eta ez depositurik jartzeko asmorik.

Dorletako Ama elkartearen taldeen aurkezpena, domekan

Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen ziklisten aurkezpena domeka honetan egingo dute, Leintz Gatzagako Dorleta Santutegian. Ekitaldia 11:00etan hasiko da, eta, hain zuzen ere, talde argazkiak egingo dituzte kategoria ezberdinetako txirrindulariek.

Horrekin batera, santutegian dagoen *Euskal Herriko txirrindulariak* erakusketa ikusteko aukera izango dute bertara doazen txirrindulariek. Izan ere, Alberto Altubek eta Joxerra Agirreurretak adierazi dutenez, bertan izango dira, euskal ziklismoaren bilakaera ezagutu nahi dutenei ateak zabaltzeko asmoz.

Korrikarekin batera, angula zozketa ere bada aurtan

Leintz Gatzagako Korrika Batzordeak urteetan antolatutako angula kiloaren zozketa, Korrikaren alde dirua batzeko, eta aurtan ere ez du hutsik egin. Bailarako hainbat lekutan utzi dituzte txartelak bi eurotan salgai, eta dagoeneko hainbatek erosi dituzte hain preziatuak diren angulak lortzeko txartelak.

Gaur, egubakoitza, bilera izango dute Korrika Batzordeko kideek, eta bertan jakingo dute orain arte saldu diren txartelen zenbatekoa. Dena den, angula kiloaren zozketako irabazlearen izena martxoaren 2an jakinaraziko dute. Hori Labidea dendan izango da, 20:00etan egingo duten zozketan.



Zubia astelehenean ireki zuten eta espaloi berria bi aste barru irekitzea aurreikusten du Udalak. JAVIER RUDMAN

Zubi 'zaharra' erabilgarri dago, eta auzotar batzuk kalea noiz berrituko zain


1596ko apirilaren 21eko udal akta baten egiten zaio lehen aipamena ondare izendapena duen Zubietako zubiari, eta, obrak erabat amaitu ez badira ere, astelehena ezker dago erabilgarri; auzotar batzuek diote lehentasuna kalearen egoera hobetzea beharko lukeela

Jokin Bereziartua BERGARA

2018ko irailaren 24an hasi ziren Zubietako zubia birgaitzeko lanak eta orduan Udal Gobernuak aditzera eman zuen "lau hilabete inguru" iraungo zutela lanek. Astelehenean, otsailak 11, ireki


zen zubia. "Lanek aurreikusitako lau hilabete baino hamar egun gehiago iraun dute, bi arrazoigatik: eguraldiak ez duelako lan egitea erraztu; eta lanak egin bitartean premia berriak antzeman direnez esleipen gehigarri bat

egin delako. Horri esker, bi zebra-bide altxatu eraiki eta margotu dira; eta semaforoentzat azpiegitura prestatu da", adierazi du Udal Gobernuak ohar bidez. Goitu Eraikuntzak enpresak exekutatatu ditu obrak eta 313,864 euro



JOXEAN OLABARRÍA
HERRITARRA

"Gauz argiekin oso polita dagoela esan didate; argi dago asko erabiltzen dela. Hori bai, espaloiak estuak dira hemen eta zabaldu egin beharko lirakeke".



IONE TORNOS
HERRITARRA

"Zubia polita geratu da; gauz ere, argiekin, ondo dago. Itxita egon denean, buelta handia egin behar izan dugu kalera joateko; eskerrak ireki dutela dagoeneko".



JULEN IRIZAR
HERRITARRA

"Denbora batez oztopoak sortu ditu, baina zubia txukun geratu da. Mugertzan bizi naiz eta, itxuraz harago, zubia asko erabiltzen dut *poligonora*-eta joateko".

Kalearen egoera hobetzeko borrokan

Zubiko obrak hasi eta berehala, bizilagun talde bat protestan irten eta obrak geldiarazi zituen ordu batzuek. "Bide alternatibo bat" egiteko eskatu zuten hasieran, eta, ondoren, aldarrikapena Zubietako kale osoaren egoera hobetzera bideratu zen nagusiki. Azken hilabeteetan, hiru osoko bilkuratan egon dira bizilagunak udalbatzaren aurrean euren egoeraren berri eman eta neurriak hartzea eskatzeko; azken bilkuran Gobernuari eskatu zioten, besteak beste, konpromiso bat har zezan kale osoan interbentzio integral baterako epea zehazteko. Gobernuak dio 2019an ezingo dela obra hori egin, seminario azpiko parkinga egin behar delako, baina finantzazioa lortzeko –inbertsio handia ekarriko luke– proiektuak idatzita daudela dagoeneko. Auzotarren arabera, otsailaren 25eko osoko bilkuran ere egongo dira euren aldarrikapenen berri emateko.



Auzotar kaltetu bat, udaletxean. J.B.

–BEZa barne– inbertitu dira. Udalak 194.785 euroko dirulaguntza jaso du horretarako Jaurraldizatik.

Askotariko birgaitze lanak

Bergarako zubirik zaharrena izanik –1596ko apirilaren 21eko udal akta baten egiten zaio lehen aipamena–, ondare izendapena dauka eta birgaitzeko lan horien barruan honako hauek egin dituzte, besteak beste: zubia bera birgaitu, fibrozementuko hoditeria kendu eta berriarekin ordezkatu, azpiegitura berriak ezarri, baranda egokiak jarri, argiteria berria ezarri –barandetan–, zubira irisgarritasuna erraztu arrapala batekin, Zubietako kale aldera espaloi bat sortu eta zubiko altxaderak osatu.

Ikuspegi ezberdinak udalbatzan

Astelehenean hainbat herritarrek zeharkatu dute zubia, auzoa eta erdigunea elkartzeko pasabide bakarra da-eta oinezkoentzat. Elena Lete alkatea gustura dago emaitzarekin: "Lanen barruan, irisgarritasuna bermatzea eta argiteria homogeneizatzea ziren helburu garrantzitsu bi eta horiek erabat bete dira. Iritzi ezberdinak egongo dira, batzuek gustuko izango dute eta beste batzuek ez, baina obraren helburuak erabat bete dira".

EH Bilduko Gorka Artolaren arabera, obra ez dago bukatuta oraindik: "Zubiaren aldeko espaloia ez dago erabilgarri eta zirkulazioaren kontrolerako neu-

riak ez dira jarri oraindik. Lan horiek amaitzerakoan ikusiko dugu benetan zein den obra osoaren emaitza. Badakigu bizilagunek eskaera zehatzak egin dituztela segurtasunari dagokionez, eta ez dakigu eskaera horiei erantzuteko aukerarik egongo den".

Irabazik uste du etxea teilatutik eraikitzen hasi dela Zubietan: "Bizilagunek kalea konpontzea eskatzen zuten eta Gobernuak zubitik hasi zen. Bizilagunak bando batekin aurkitu ziren esanez hurrengo egunean obrak hasiko zirela; gauzak konplikatu egin ziren eta ordutik gaur egunera arteko bidea zoramena izan da".

Bestalde, obrei azken ukituak falta zaizkiela dio Gobernuak: "Errepide alboan sortu berri den espaloia ez da oraindik zabaldu, hormigoia sendotu behar delako. Bi astetan erabilgarri egongo dela uste dugu".

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Lehen urratsa, Amillagan Lidl bat ireki ahal izateko

Gobernuaren aldeko botoekin, Udalak behin-behineko hitzarmena adostu du Soraluerekin Osintxun pabiloi berri bat egin eta Amillagako lantokia husteko —beste bilkura batean onartu beharko da behin betiko—; Lidl-ek eraikin baxuagoa eta txikiagoa egingo du

Jokin Bereziartua BERGARA

Soraluce enpresak Amillagako gunea utzi, bertan supermerkatu bat —Lidl katekoa— ireki eta Soraluerekin Osintxun duen lantokia handitu. Horretarako akordioa egin dute Udala, Gobernuak eta enpresak, eta hitzarmenari behin-behineko onarpena eman zion udalbatzak astelehenean horretarako propio deitutako ezohiko osoko bilkuran. Beste hamabost egunez jendarearen egon ostean, behin betiko onarpena emango zaio hurrengo osoko bilkuran.

Soraluce enpresak Mekolalde-Osintxu ardatza indartu nahi duela eta Amillagako lantokia salgai jarri nahi zuen, eta hortik etorri da hitzarmena; eremuari jarduera komertzialerako izatera emateko ezinbestekoa da Udalarekin hitzarmena. Soraluerekin Amillagan daukan partzela 4.462 metro koadrokoa da eta barruan 2.390 metro koadroko nabea dago. Lidl-ek eraikin berri bat egingo luke, Soraluerekin daukana baino altuera eta bolumen txikiagoa.

"Baldintzak", txikiei ez eragiteko Gobernuaren arabera, Lidl berriak ez dio herriko komertzio txikiari konpetentziarik eragingo: "Aktibitate honek ez die



Amillaga kaleko Soraluerekin enpresaren lantokian joango da Lidl berria. GOIENA

herriko komertzio txikiei eragingo; bertan dauden supermerkatu handiei bai, baina haien arteko lehia izango da. Hain zuzen, baldintzak jarri ditugu hitzarmenean herriko komertzio txikiei ez diezaien eragin: aktibitate bakarra eta elikaduraren bueltakoa izatea eta denda txikiak ez egotea inguruan, besteak beste", esan zuen, bilkuraren amaieran, Elena Lete alkateak.

"Onurak" Amillagan eta Osintxun Gobernuaren arabera, hitzarmenak "onura nabarmenak"

ekarriko ditu Amillaga kalearen inguruan: lur azpiko aparkaleku bat egingo du Lidl-ek eta komertzio orduetan erabilera publikoa izango du; markesina berria ipiniko da eta gaur egungoa —fibrozementuzkoa— kendu; espaloia moldatu egingo da; bizikletentzat aparkaleku estalia egingo da; eta zarata "nabarmen" gutxituko da, "nabarmen". Horrez gain, Osintxun pabiloi berri bat eraikitzeaz gain, Soraluerekin asfaltatze-lan batzuk egitea ere aurreikusten du hitzarmenak.

Abstentzioa, "lanketa faltagatik"

EH Bildu abstentitu egin zen hitzarmena behin-behineko izaeraz onartzeko bozketan. Oposizio talde nagusiak uste du "errespetu falta" dela Gobernuak lehenago informatu ez izana: "Prozedura ez zaigu zilegi iruditzen. Halako hitzarmen bat garatzeak lanketa sakon bat behar du eta ez da zentzuzkoa oposizioari bost egun aurretik aurkeztea dokumentazio osoa eta ezohiko bilkura batera deitzea; guk dakigula, ez da lanketarik egin Hirigintza eta Garapen Ekonomikorako batzordeetan", dio Gorka Artolak. EH Bilduren ustez, Soraluerekin enpresa Osintxun egonkortzea positiboa da, baina gaineratu dute udal barruko batzordeetan gaia ez dela landu. "Informazio asko falta zaigu, eta behin betiko onarpena eman aurretik Soraluerekin enpresarekin eta Berdeekin landu gura dugu gaia", gaineratu dute.

Irabazi: "Oso negatiboa"

Irabazik uste du hitzarmena "oso negatiboa" dela. "Eroski, Super Amara, Dia eta orain Lidl... Uste dugu dagoeneko nahikoa dugula; honek ekarriko duena konpetentzia areagotzea eta sektore horretan dagoeneko dagoen prekarietatea handituko luke Bergara mailan. Hitzarmen honek erakusten du Gobernu honek komertzio handiaren aldeko apustua egiten duela komertzio txikiaren gainetik. Ez dugu sinisten Lidl-en irekierak ez diotik eragingo komertzio txikiari", uste du Aiert Lizarralde.

Gainera, Lizarralderen ustez, ez da nahikoa ordutegi komertzialean Lidl-ek izango duen aparkalekua erabilera publikorako izatea.

Elosuko Elur-Mendi elkarteak bazkide berriak behar ditu

Elosuko Elur-Mendi elkarteak Bergarako edota bailarako herritarrei jakinarazi gura die bazkide berrien bila dabilela. Interesatuak ez dute ezer ordaindu beharko bazkide egiteko eta urtean 70 euroko hiru kuota ordaindu beharko dira. Izena emateko, honako helbide elektroniko honetara idatzi behar da: elurmendi.elkartea@gmail.com. Elkarteak bi solairu ditu eta bakoitzean sukaldea, jangela eta komunak daude. Atarian zelai eremu itxi bat du elkarteak eta bertan mahaiak ere badaude. Hain justu, Elosuko frontoiaren atzean dago eta umeendako parke berri dago bertan, besteak beste.

OHARRAK

Martxanterak: bi ohar

Bidez Bide elkartearen eskutik etxeko langileendako tailerra antolatu dute biharko, kartzela zaharrean; 17:00etan hasi eta 19:30ean amaituko da. Greba feminista antolatzeko azken saioa hilaren 25ean egingo dute, Irizarren (19:00).

Boluko frontoia, gaur

Gaur inauguratuko da Boluko frontoia (17:30). Candem Town taldearen dantza erakustaldia, Alai taldearen saioa eta pilota erakustaldia izango dira.

Igor Melchorren saioa

Kazetariak *Zer dago apustu etxeen atzean?* izenburua duen hitzaldia eskainiko du gaur kartzela zaharrean (18:30).

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskaileraak
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATA

Enpresa Registrada Nº00/025



Atzo arratsaldean inauguratu zen ofizialki Bergararren Arreta Zerbitzua, udaletxeko sarreran bertan. BERGARAKO UDALA

Tramite guztiak leihatila berean egiteko aukera

Atzo inauguratu zuten ofizialki udaletxeko sarreran kokatuta dagoen Bergararren Arreta Zerbitzua, herritarrei informazioa eman eta tramite guztiak leku berean egitea ahalbidetuko duena; tramite ohikoenetarako bulego elektronikoa ere martxan dago

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzo ireki zuten modu ofizialean Bergararren Arreta Zerbitzua. "Herritarrei begira, eraginkortasunean pauso erraldoi bat eman du Udalak, aspaldiko helburu bat beteta", dio Gobernuak. Herritarrek tramite guztiak leihatila bakarrean egitearen "aspaldiko helburu" hori lortu aurretik "lanketa handia" egin dute: herritarrei zuzenduta dauden tramite guztiak jaso dira, eskuliburu batean fitxa moduan estandarizatu, beste herri batzuetako arreta zerbitzuak bisitatu, langileen hautaketa egin, langile horiei formakuntza espezifiko eskaini... "Eta zerbitzuaren izena udal barruan egindako prozedura batean sortu da [B@Z, Bergararren @arreta Zerbitzua]".

Goizez, eguenetan izan ezik

Arreta zerbitzu berria udaletxeko sarreran dago, orain arte idazkaritza egon den tokian. Bertan, Gobernuak jakinarazi

duenez, lau langile egongo dira lanean, horretarako "formakuntza espezifiko" jaso dutenak. Lau mahai daude arreta egiteko, eta, horrez gain, erabilera askotariko bulego eta bilera gela bana ere badaude. Zerbitzu berriaren ordutegia honako hau da: astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 15:30era; eta eguenetan, arratsaldez ere zabalduko da, 16:00etatik 19:00etara.

"Atentzio integrala"

Zerbitzuak "atentzio integrala" eskaintzen du, Gobernuak zehaztu duenez; batetik, era guztietako informazioa eman; eta, bestetik, kudeaketa lanak –erregistroa, errolda, askotariko ordainketak...-. Gainera, bertan jaso-

**ASTE BARRUAN
GOIZEZ EGONGO DA
ZABALIK; EGUNETAN
ARRATSALDEZ ERE
ERABILI AHALKO DA**

ko dira Udalera heltzen diren deiak, posta elektronikoa eta posta arruntaren bidez heltzen diren mezu guztiak. Handik bideratuko dira, gero, dagozkion sailetara edo zerbitzuetara.

Bestela, bulego elektronikoa

Bulego fisikoa itxita dagoenean, arreta zerbitzuko bulego elektronikoa erabili ahalko da. Bulego elektronikoa hori iazko azaro amaieratik dago funtzionamenduan: egunero zabalik egongo da 06:00etatik 22:00etara bitartean, Udaltzaingoak udaltzea zabalik duen denbora berean.

Bulego elektronikoa esker, herritarrek, langile batengana joan gabe, tramiterik ohikoenak "modu azkarrean, ordutegi zaballean eta modu autonomoan" egin ahal izango dute: errolda agiriak ateratzea, isunak zein zergak kontsultatzea edota ordaintzea... "Makina horretan egin ahal diren tramiteak gure webgunean dagoeneko egin daitezkeenak dira", gaineratu dute.




NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Guardasola

Hitz kuriosoak benetan, *Guardar del sol*, euskaraz erabiltzen den gaztelerako hitzen batura, baina gazteleraz ez da erabiltzen. Hau da hau... Euskal Herrian ohituta gaude eguzkia ez ikustera eta euria denean –ia beti– guardasola ateratzen dugu; Espainian eguzkia da nagusi eta *para aguas*-a ateratzen dute. Hau da hau... Beharbada, ez nabil zuzen, eta hitzak beste jatorri bat dauka: *se guarda sola*-tik etor liteke; aurrekoan taberna baten laga nuen eta bueltan ez zegoen. Hau da hau... Denerako balio du: mendirako makila, bizkarrean hazka egiteko, batzuek alkandorako lepoan zintzilikatzen dute zerbikaletako herniak sendatzeko... Hau da hau... Guardasolak eguzkiaz eta euriaz babesteko balio du eta ez daude gauza asko bi gauza antagonikotarako balio dutenak. Groucho Marx-ek pelikula baten esaten zuenez, *bikarbonatoz betetako makarroiak* asmatu omen zituen bere lagun batek: enpatxua sortu eta sendatu batera egiten duen janaria. *Guardasola* esateko beste hitz bat ere erabiltzen dugu euskaraz, eta argi ikusten da bere jatorria ingelesetik datorrela: *ater king*, aterpeko erregea. Hau da hau...

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Errotuluak parekide ez izatearekin haserre



Erabiltzaile bati ez zaio ondo iruditzen Agorrosingo sarrera nagusiko errotuluetan "emakume lirain bat" posatzen eta gizonetako kirola egiten erakustea. Zuzentzeko eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Torradak eta pelak egiteko ikastaroan izena eman daiteke

Gorka Lobatok torrada eta pelak egiteko ikastaroa emango du otsailaren 27an, Gure Ametsa elkartearen, 18:00etatik 20:00etara. Kultura Zerbitzuan (943 77 91 59) eman daiteke izena, otsailaren 21era arte. 15 lagunendako lekua dago, gehienez, eta bergarrek izango dute lehentasuna; behar izanez gero, zozketa egingo da izena emandakoen artean.

Gaur da azken eguna bertako euskara lantzeko ikastarorako

Berba egiterakoan umeek eta helduek egiten dituzten akatsik ohikoenak lantzeko ikastaroa da, otsailaren 25etik martxoaren 8ra. Udal Euskaltegian emango dira ikastaroak, Irizarren. Hamar orduko ikastaroak dira eta prezioa 15 euro da. Gutxienez, zortzi laguneko taldea osatu behar da; gaur da izena emateko azken eguna: 943 76 44 53.

Mendia eta haren ertzak, protagonistek kontatuta

Pol-Polen Mendi Astea otsailaren 25etik martxoaren 2ra izango da aurten eta ekitaldiak San Pedro kaleko lokalean izango dira, 19:00etan, martxoaren 2an Arrasateko Galarra koba ezagutzeko den irteera izan ezik; hilaren 18an, batzar orokorra egingo dute (19:00)

Jokin Bereziartua BERGARA

Otsailaren 25etik martxoaren 2ra izango da aurten Pol-Pol Mendizale Taldearen Mendi Astea. Ekitaldiak San Pedro kaleko lokalean antolatu dituzte, 19:00etan. Izena aurrez ematea komeni da; euren bulegoan edo pol-pol.mendialdea@hotmail.com helbide elektronikoan.

Ekintzak, protagonisten ahotik

Otsailaren 25ean, Joseba Elustondoren eta Jon Garateren *Kotoizko zaindariak* izeneko proiektioa izango da protagonista. Patagoniako Cerro Torre mendian eginiko eskalada saioak jasotzen ditu. Otsailaren 26an, Mikel Val-



Xabier Payros bergararra izan zen Lofoteko (Norvegia) espedizioko kideetako bat. BARREN

divieso beasaindarrak Ehun Miliak mendiko lasterketaren antolaketaz egingo du berba. Otsailaren 28an, Ainhoa Lendinez elgoibartarrak eta Xabier Payros bergararrak Norvegiako Lofoten irlan mendiko eskia egiten bizi izandakoak kontatuko dituzte. Martxoaren 1ean, *Aralar, Mundua leku den lurra* izeneko dokumentala ikusi ahalgo da; Aralarko ondare natural eta kulturalaren leiho izateaz harago, hausnarretarako bide ematen duen pelikula da. Amaitzeko, martxoaren 2an, Arrasateko Galarra kobara irteera egingo dute. Arantza Otauy historialariak eta Udalatz mendia ezin hobeto ezagutzen duen Jesus Mari Zuazubiskar *Txosa*-k gidatuko dute bisita; linterna eta aldatzeko arropa eramane behar dira.

Erakusketa eta batzar orokorra

Mendi Asteaz gain, Gorla Alpi-noak taldearekin batera, Mendi Bete diru erakusketa irekiko dute Aroztegin, otsailaren 15etik martxoaren 22ra. Bestalde, otsailaren 18an, ezohiko eta ohiko batzar orokorra egingo dute euren lokalean, 19:00etan.

Pilota gaur (19:30) eta bihar (16:00), Udal Pilotalekuan

Gaur, 19:30ean hasita, bi partidu jokatu dira: Bergara-Zestoa (infantiletako lehen maila, binaka) eta Bergara-Gazteleku 2 (nagusien lehen maila). Bihar, 16:00etatik aurrera, eskolarteko alebinak izango dira protagonista: Bergara 5-Antzuola 1, Bergara 1-Elgoibar 1, Bergara 3-Eibar 3, Aretxabaleta 1-Arrasate 3 eta Eibar 3-Arrasate 3.

Donostian eta Deban jokatu dute bihar saskibaloiko seniorrek

Emakumeen taldeak Donostiako Cafes Aitona B taldearen aurka jokatu du bihar, 18:00etan. Ordu berean, baina Deban, Electricidad Perosanz taldearen aurka jokatu du gizonezkoen taldeak. Etxean jokatu duen taldeetako bat izango da gazte mailako gizonezkoena: Gora Behera Debasket taldea hartuko dute etzi Labegaraletan (12:30).

SUV PEUGEOT GAMA

2018AN GORENERA HELDU ZIREN, ESKERRIK ASKO POSIBLE EGITEAGATIK.





PEUGEOT ETORMOBIL 2018ko LIDERRA SALMENTETAN.
ESKERRIK ASKO GU AUKERATU GINTUZTEN 1.200 BEZERO BAINO GEHIAGORI.

Oraindik garaiz zaude euretako bat izateko!

0Km

-ko STOCK-ean

Existenziak agortu arte.



PEUGEOT
ETORMOBIL

ETORMOBIL BERGARA. Olabarrena auzoa, z/g • 20570 Bergara • Tel.: 943 10 17 17
ETORMOBIL EIBAR. Otaola Etorb., 22 • 20600 Eibar • Tel.: 943 20 09 66
ZIORLA AUTOAK. Santa Maña, 19 • 48215 Iurreto-Durango • Tel.: 946 21 71 30

www.etormobil.com

Ikusleak Seminarixoa, *Musikarium* ikuskizunean. GOIENA

Seminarixoa hornituko dute zinema eskaintzeko

Bizkaiko Tecnica Cinematografica Loza enpresari esleitu dizkiote Seminarixoa zinema komertziala eskaintzeko egokitzeko lanak. Asmoa da maiatzerako martxan izatea aretoa. Zinema noiz eta zelan emateko pleguak hilabete amaieran aterako dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Udalak dagoeneko esleitu du zinema komertziala eskaintzeko horniketeta eta instalazioa jarriko dituen enpresa: Bizkaiko Tecnica Cinematografica Loza enpresari esleitu dizkiote lanak, eta aurrekontua 93.600 euro izango da, BEZa barne. Aipatutako enpresak bi hilabete izango ditu horniketeta eta instalazio lanak egiteko. Modu horretan, asmoa da maiatzean martxan izatea zinema aretoa.

Lanak hastear dira

Lanak orain hasiko dira eta bi hilabeteko epean aretoa egokitu egin beharko dute zinema emalndietarako.

Zinemaren kudeaketa

Oraindik zehazteke dago zinemaren kudeaketa nola izango den: egunak, ordutegia eta prezioa nola zehaztu aztertzeke dago. Kultura Sailak azaldu du "zinema noiz eta zelan emateko pleguak hilabete bukaeran" ate-

rako direla. Behin plegu horiek ateratakoan zehaztuko dute kudeaketa.

Pantaila elektronikoa

Seminarixoa zinema emanaldietarako egokitzeko, ezinbestekoa izango da pantaila bat jartzea. Udal Gobernuaren arabera, jarriko den azpiegitura "puntapuntakoa" izango da: "Azpiegituraren barruan dago 6,5x4,87ko neurriak dituen propio egindako pantaila elektrikoa, Barco DP2K-10S Alchemy proiektorea, isiltasun kaxa eta audio kaxak -pantailak ere bozgorailuak izango ditu-, besteak beste. Sistema honek 3D ere proiektatu dezake eta ahalbideratzen du eduki digitalak batzen dituen

ARETORAKO PROPIO EGINDAKO PANTAILA ELEKTRIKOA JARRIKO DUTE, ETA SISTEMAK 3D-RAKO BALIOKO DU

Movietransit plataforma ere erabiltzea", adierazi dute ohar bidez.

Horrekin batera, Gobernuak "oso argi" du zinema ekipoarekin eskaintza "borobildu" egingo dela: "Zinemaren eskaintzak erabat borobilduko du Seminarixoa kultur programazio aberatsa; orain arte bezala, herriko elkarteek lehentasuna izango dute programazioan", gaineratu dute.

Atzeratzen doan proiektua

Zinema areto baten beharra askotan aldarrikatu izan da Bergaran. Seminarixoa aretoan zinema komertziala eskaintzeko asmoa ere ez da berria; 2019ko lehenengo hiruhilekoa jarri zuten irekiera data moduan, azkeneko aldiz. Orain, atzeratu egin dute data hori, maiatzerara.

Novedades zinema aretoa 2006an itxi zuten. Gerora, Zabalotegin eskaini izan dute zinema komertziala; aurrerantzean, areto egokiagoa izango dute.

Imajinazioa erabilia bidaiatuko dute Numak eta 'Ibrahim'-ek

'Linbo planeta' antzezlanaren bihar, 18:00etan, izango da Seminarixoa; 50 minutu iraungo du saioak

A.E. BERGARA

Dejabu panpina laborategiak *Linbo planeta* haurrendako antzezlanaren bihar, zapatua, Seminarixora. 18:00etan izango da, 4 euroren truke.

Miren Alkala eta Alvaro Garayalde aktoreak izango dira antzezlaneko protagonistak. Numa izango da pertsonaia nagusia. Numa 8 urteko neskatila da, eta bakarrik bizi da, hondarez, zaborrez eta behin etxe izan zirenen hondakinez inguratutako leku urrun batean. Hondamendiaren erdian bere bizilekua

sortzea lortu du Numak, eta tarteka jasaten dituen erasoekin bizirauten ere ikasi du. Baina familia eta lagunak faltan igartzen ditu, eta, goiz batean, jolasteaz sekula aspertuko ez den lagun bat azalduko zaio, *Ibrahim* txakurra. Inoiz sumatutako bidaia batean murgilduko dira biak.

Imajinazioaren indarra erabilia bakarrik egin daitekeen bidaia zoragarria egingo dute Numak eta *Ibrahim*-ek.

6 urtetik gorako umeei zuzendutako antzezlanaren izango da eta 50 minutu iraungo du.

Serigrafia nola egin erakutsiko dute Beart elkarteak

Beartek antolatuta, serigrafia ikastaroa egingo dute otsailaren 23an eta 24an. Garikoitz C. Murrak eskainiko du ikastaroa, 50 euroren truke.

Bi eguneko ikastaroa izango da. Zapatuan, 10:00etatik 13:00etara izango da, eta ikasiko dute teoria; horrez gain, emultsioa eta diseinua eta estanzazioa egingo dute. Domekan, ordu

berean izango da ikastaroa, 10:00etatik 13:00etara. Bigarren egunean egingo dutena izango da: estanzatu eta garbitu.

Estanzatutako dituzten kamisetak, telak, papera... ikastaroan bertan emango dituzte. Ikastaroan bertan egingo dute kamisetaren diseinua; hala ere, aurrez diseinatu nahi duenak posta elektronikoz bidali behar du diseinua, garikoitz@gko-gallery.com helbidera, *Beart tailerra* ipinita gaian. Otsailaren 21erako bidali behar da sortutako irudia.

Puntako bertsolarien saioa egingo dute martxoaren 1ean

Kopla Barik bertso eskolak bertso saioa antolatu du martxoaren 1erako, barikua. Goi mailako bertsolariak igoko dira gaztetxeko oholtzara: Igor Elorza, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga ibiliko dira bertsoan; gai-jartzaile lanak, aldiz, Kopla Barik taldeko Ibon Leibar *Txinbo*-k egingo ditu.

Saioa kartzela zaharrean izango da, Aratuste-barikuan, 22:30ean. Atzo jarri zituzten salgai sarrerak Irala kalean. Eta atzo saldu ez ziren sarrerak egunean bertan egongo dira salgai gaztetxeko leihatilan, 5 euroren truke. Puntako bertsolarien saioa entzuteko aukera paregabea izango da.

Eneritz Artetxe ipuin kontalariaren saioa, datorren barikuan

Otsailaren 22an, Eneritz Artetxe ipuin kontalariak saioa eskainiko du. Umeei zuzendutako ipuin kontaketa izango da bizkaitarrak eskainiko duena: Errotalde jauregiko Udal Liburutegian izango da, 18:00etan, euskaraz. Artetxe ipuin kontalariak umeak erakartzeko sen berezia du: hainbat ipuin eta istorio kontaketa ditu umeei goza dezaten eta ipuinen munduan murgil daitezten.

Umeena ez da izango ipuin kontaketa saio bakarra. Helduei zuzendutako saioa otsailaren 26an izango da, martitzena: Ixabel Agirresaroberen eskutik izango da, 19:00etan, Udal Liburutegian.



dks'18
DEBAGOIENENKO
KIROL SARIAK

ZORIONAK KIROLARI GUZTIEI!

Debagoieneko kirolarekin bat

Antolatzaileak:



Babesleak:



Antzuola "paradisu" gisa bizi duen artista

Claudia Larrauri, 'Clotilde' ezizenez ezaguna den artista mexikarra, duela hiru urte etorri zen Antzuolara. Artearekiko grina piztu zaio berriro, eta orain, diziplina eta teknika ugari batzen dituen erakusketa jarri du ikusgai Aitz Garbi tabernan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolan topatu du Claudia Larrauri *Clotilde* artista mexikarra bere paradisu. Bizitzan zehar artea izan du pizgarri eta tarte batez barruan isilik eduki duela kontatu du. Hala ere, barruan daramana azaleratu gura izan du eta berriro artea egitera itzuli da. "Urteak neraman ekoizpenik egin gabe. Aitz Garbiko Juenak bultzatu ninduen berriro barruan sentitzen nuena ateratzera eta artelanak egitera. Berari esker animatu naiz lan txo batzuk egitera eta erakusketa hau zabaltzera. Antzuola paradisu da niretzako".

Beti artez inguratua egon da eta bere goitizenak halaxe adierazten du: "Joaquin Sorolla artistaren musa eta emaztea zen Clotilde. Hortik hartu dut nire goitizena ere".

Artista mexikarra GOIENARI aitortu dio oso gustura sentitzen dela Antzuolan. "Lagun talde zoragarriarekin elkartu naiz eta ahal dudala esan didate behin eta berriro. Jende atseginarekin topo egin dut eta oso gustura sentitzen naiz, babestua".

Askotariko teknikak

Batik eta collage teknikak dira haren lanetan nagusi. Oso lan koloretsua da, baina guztiek



Clotilde, Aitz Garbiko erakusketan lan bat jartzen. MAIDAR ARREGI

mezu sakona daramate. "Brodatuak ere oso presente daude nire lanean; tradizio handia dauka Mexikoko kulturean. Collagea, batik-a eta brodatua egiten 40 urte inguru daramatzat. Nire lanetan gordintasuna islatzen dut. Gai sozialak dira nagusi eta nire herrialdearekin lotuta daude: desagertpenak, feminizazioak, immigrazioa... ni zortekoa naiz, baina immigrazioaren barkadeara eta samina islatzea gustuko dut. Batik-a eta brodatua ohikoagoa da nigan; alaiagoak eta koloretsuagoak dira".

Artista mexikarrarendako, sentitzeko eta espresatzeko bidea da artea. "Lanaren zati handi bat Mexikon daukat; nire bizitzako zati garrantzitsua da. Baina zoriontsu naiz, nire eta nire senarraren hautua izan baita immigrazioa", nabarmendu du Clotilde-k.

Mezuz eta bizipenez beteriko hamabi bat artelan koloretsu ikusgai izango dira otsail osoan zehar Aitz Garbin.

Artistaren lan gehiago daude ikusgai atelierdeclotilde.artelista.com webgunean.



Olaran zurrategiko langileak eta haurrak, 1932. ANTZUOLA.COM

Larruaren ondareaz hausnartuko dute herritarrek bihar, zapatua

Olarango areto nagusian egingo da saioa, 09:30etik 12:30era bitartean; herritar guztiendako da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Larrugintzaren sektorea Antzuolako herriak egun duen kultura ondare nagusienetakoa da. Hori azaleratzeko eta ondarearen transmisioan eragiteko, bihar, otsailak 16, hausnarketa saioa egingo dute herritarrek, Olaran etxean, 09:30etik 12:30era bitartean.

Bi mendez, motor

Antzuolaren motor ekonomikoa larrugintza izan da bi mendez. Herriak narru langintzarekin harreman eta tradizio handia izan du, eta, desagertuta dagoen

langintza den arren, ondarearen zati bat Udalak gordeta dauka biltegian. Orain, herritarrek ondare eta material horrekin guztiorrekin zer egin gura duten hausnartu eta erabaki beharko dute bihar egingo den saioan.

Zurrategiaren historia

1.790ean sortu zuen Bareñok larrua ontzeko lehen lantegia, Kalebarren auzoan. Ondoren etorri zen, 1880an, *Lamariano y Cia* enpresa. Ondorengoak dira ere azken biak: *Galarza Hermanos y Arbulu* eta *Hijos de Jose Telleria*.

Ion Lizarazu da zozketako lehen irabazlea

Irinmodo blogeko lehen galdetegiaren hamalau lagunek parte hartu dute. Eta asmatzaileen artean egindako zozketako lehen irabazlea Ion Lizarazu antzuolarra da. Bigarren galdetegiaren prest dago jada blogean. Otsailaren 15era bitartean parte hartzeko aukera dago. "Galdetegi guztiek herriko argazki bat dute oinarri. Herritarrek animatu eta parte hartzera gonbidatu gura ditut orain ere. Eta eskerrak eman lehen galdetegiaren parte hartu dutenei ere", azaldu du Iñigo Ramirez de Okariz historialari eta blogariak.

Bigarren galdetegiaren *Irinmodo* blogean dago, horrenbestez, erantzuteko prest.

Aratuste-domekako bazkarirako txartelak salgai daude

Martxoaren 3an ospatuko da Aratuste-domeka. Bazkaria egingo da pilotalekuan, 14:30ean. Txartelak salgai daude udaletxean eta liburutegiaren otsailaren 22ra arte -haur eta helduen menuak ikusgai: goiena.eus/antzuola. Mozorro lehiaketan ere izena eman dezakete herritarrek udaletxean. Talde onenarentzako 200 euro izango dira herriko jatetxe batean gastatzeko -taldea hamar lagun baino gutxiagok osatuz gero, buruko 20 euro-.

Aurten, gainera, Txatxilipurdik girotutako dantzaldia izango da festa girotzeko, 17:30etik 19:30era, Zurrategin. Eguraldi txarra eginez gero festa osoa pilotalekuan ospatuko da.

Erloju, gelditu ezazu denbora

Denboraren gaineko metafora egiten du Clotilde-k artelan horren bitartez. Collage teknika darabil eta hainbat estilotako erlojuak agertzen dira artelanean.

Erlojuaren protagonista den arren, mojak, untxiak eta artelanean azaltzen diren eskuek protagonismoa dute eta mezua ere indartzen dute. 2015ean egindako lana da.



Collage teknika darabilen artelana. CLOTILDE

Artista mexikarra Aitz Garbi tabernan ikusgai jarri duen erakusketan, aipatutako estilodun artelanak daude; baina baita ere Mexikoren kulturen tradizio handia duen artea oinarri duten lanak. Hau da, brodatu koloretsuak oinarri dituzten lanak daude ikusgai. Artistaren ibilbidea atelierdeclotilde.artelista.com webgunean dago jasoa.

"Aurten pilotu moduan probatu nahiko nuke"

ALAITZ URKIOLA RALLY LASTERKETETAKO KOPILOTUA

Txikitatik maite izan du motor mundua eta berehala hasi zen kopilotu lanetan. Bi urtez jarraian Euskal Herriko rally txapelketa irabazi du Aingeru Castrorekin batera

Amaia Zabala ANTZUOLA

2018a urte borobila izan da kirolariarentzat eta herritarrek merezitako aitortpena eman nahi izan diote, Antzuola Herria saria jasotzeko bozkatuena izan baita.

Debagoieneko Kirol Sarien Antzuola Herria saria irabazi berri duzu, herritarrek bozkatua izanda gainera; pozgarria, ezta?

Ez neukan esperantza handirik, ez baita oso kirol ezaguna herrian, eta ilusio handia egin dit herritarren babesa jasotzeko. Eskerrak eman nahi dizkiet bozkatu nauten antzuolar guztiei.

Sari honetaz aparte, antzuolarren babesa sentitu izan duzu zure ibilbidean zehar?

Bai; beti dago herrikoren bat lasterketetara joaten dena, ez hemengoetara soilik, kanpokoean lehiatzen naizena ere beti agertzen da herrikoren bat animatzera, eta oso pozgarria da. **Zuk zeuk esan duzu Antzuolan ez dela oso ohiko kirola; nolatan eta zerk bultzatuta hasi zinen?**

Txiki-txikitatik, gurasoek bultzatu ninduten motor mundu honetara; 5 urterekin, esaterako, motor bat oparitu zidaten. Gainera, nire osaba ere auto lasterketetan lehiatzen zen eta haurra nintzenetik joan naiz lasterketetara. Eta horrela, azkenean, ni hasi nintzen.

2018a sekulako urte borobila izan duzu kirolari bezala, Aingeru Castro pilotuarekin batera hainbat txapelketa irabazi baitituzu. Zein laburpen egingo zenuke?

Oso urte pozgarria izan da guretzat, Euskadiko rally txapeladun izatea lortu dugu bigarren aldiz, 2017an ere txapeladunak izan baikin. Rallysprint modalitatean, berriz, txapeladun izatear gundun, baina lasterketa batean autoa matxuratu zitzaigun eta, azkenean, ez genuen irabazi. Baina, bestela, oso pozik, gai ikusi baitugu gure burua bi modalitatetako txapelketak irabaz-



Alaitz Urkiola, Espainiako lur gaineko Nafarroako rallyan. ALAITZ URKIOLA

"KONFIANTZA HANDIA DA, PILOTUAK NIK DIODANAREKIN FIDATU BEHARRA BAITAUKA ITSU-ITSUAN"

teko. Eta urtea borobiltzeko, herriaren partetik horrelako errekonozimendua jasotzea ere oso pozgarria izan da.

Euskal Herriko rally txapelketan bi aldiz izan zarete irabazle, 2017an eta 2018an; zer da hori kopilotu batentzat?

2015ean ere izan nintzen txapeladun, baina rallysprint modalitatean eta azken bi urte hauetan Euskal Herriko rally txapeladun izatea kopilotu batentzako oso garrantzitsua da.

Entrenamenduei dagokienez, nola moldatzen zarete? Ez da erraza izango...

Ezin gara entrenatu; orduan, lasterketa egin baino aste bat lehenago, proba izango den trama ikustera joaten gara, ea nolakoa izango den jakiteko. Pilotua notak esaten joaten da eta kopilotuak apuntatu egiten ditu, lasterketa egunean tramu

hori nolakoa den esan ahal izateko. Horretaz aparte, aurten, hemendik kanpo, Espainiako Txapelketa ere lehiatu dut, eta beste hainbat lasterketa solte ere bai. Eta horiek bai eskatzen dizutela implikazio eta denbora handiagoa, araudia bera ere ezberdina baita.

Txapelketetan kopilotuaren eta pilotuaren artean dagoen koordinazioa honelako emaitza onak lortzeko klabeetako bat da?

Bai koordinazioa eta baita konfiantza ere. Pilotuak nik diodanarekin fidatu behar du itsutsuan; bestela, denborak ez dira irteten. Bera igaro da bide horretatik, baina ez daki zehazki bihurtzea nolakoa den, eta nik ematen dizkiot pautak guztiak. **Kopilotu ibili zara beti; inoiz pentsatu duzu pilotu bezala hasteko pausoa ematea?**

Orain arte beti kopilotu moduan ibili naiz, baina aurten lasterketa bat edo beste pilotu moduan egitea gustatuko litzaidake. **Salto hau emateaz gain, 2019ari begira ze aurreikuspen dituzu?**

2018an bezala, rallysprintak eta rallyak, bi modalitateetan lehiatzea gustatuko litzaidake, eta ea biak irabazten ditugun.



Gorka Goikoetxea eta Hodei Lete, Sendo Athlete Care enpresakoak. HODEI LETE

Hodei Lete antzuolarraren sorkuntza saritu dute

Hanketako eta besoetako lesioetarako plastikozko ferulak diseinatu ditu Gorka Goikoetxearekin batera

Amaia Zabala ANTZUOLA

Hodei Lete antzuolarra eta Gorka Goikoetxea arteagarrak Zea-nuriko Zulaibar Lanbide Ikastegiko irakasleak dira, eta, hain zuzen, hanketako eta besoetako lesioak arintzeko 3D inprimagailuz sortutako plastikozko ferulak diseinatzeagatik sarituak izan dira.

Batetik, Start Up-en nazioarteko lehiaketa baten finalistak izan dira, eta, bestetik, Arratia-ko Udalen Mankomunitateko enpresa ideien lehiaketa ere irabazi dute. Azken horrekin 6.000 euroko saria jaso dute eta

Letek jakinarazi du "produktua hobetzeko" baliatuko dutela.

Igeltuen ordezkotako ferulak

"Pertsona baten lesioari eskainera egingo diogu, atal hori digitalizatu eta horrela ferula pertsonalizatu sortu ahal izateko. Gainera, lesio horri kome-nigarrien zaion posturan izango da ferula, errekonozimendua azkartzeko. Batez ere, goi errendimenduko kirolentzat dago pentsatua, pisu gutxiago baitu, eta, igeltsuarekin ez bezala, jarri eta kendu egin daiteke tratatu ahal izateko", argitu du Letek.



PILAR ETXANIZ

Erorketak saihesteko tailerra

Asteartean izan zen eta bertara hurbildu ziren adinekoek "oso baliagarritzat" jo zuten. Kalean eta etxean gehien gertatzen diren istripuei buruz eta horiek dakartzaten ondorio fisiko, psikologiko eta sozioekonomikoen inguruan jardun zuten adituek. Gaian sakontzeko, bigarren saioa otsailaren 19an izango da, Olanaren aretoan, 16:30ean.

"Gorputzak eskatu egiten dit kirola egitea"

IRATXE ALONSO MAIZTEGI DKS-KO ELGETA SARIA

Hiru urte dira korrika egiten hasi zela, eta denboraldi ona egin zuen iaz: hirugarren egin zuen Bocineros lasterketan eta zazpigarren, berriz, Hiru Handiak proban

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Iratxe Alonso Maiztegi (Zaldibar, 1989) atzo jaso zuen DKSko Elgeta saria. Gustuko duelako egiten du korrika, eta erronka garrantzitsuak egiteko gai dela erakutsi zion bere buruari iaz.

Noiz eta nola hasi zinen korrika?

Kirioak dantzan ibiltzen naiz beti, eta ondo datorkit. Gimnasioan hasi nintzen, gero mendian... Gustua hartu, eta lasterketan izena ematera heldu nintzen.

Zeintzuk izan ziren lehen probak?

2016ko urrian Anbotoko kilometro bertikala egin nuen. Zumarraga, Orío eta inguruko beste hainbat lasterketa ere egin ditut. Egia esan, gero eta erronka handiagoak izan dira.

Eta iaz hirugarren emakumea izan zinen Bocineros proban eta zazpigarrena Hiru Handiak lasterketan?

Bikotekideak oso gustura egin zuen Hiru Handiak proba 2016an. Hark animatuta, biok eman genuen izena iaz urtarrilean; zortea izan genuen zozketan. Erronka handia da, eta entrenatzailea hartzea erabaki genuen hiru hilabete lehenago. Lasterketa gehiago ere egin genituen; tartean, Bocineros Extrem, Bizkaian. Oso ondo irten zitzaidan. Orduan nengoen indartsuen, Hiru Handiak egiteko prestaketan.



Iratxe Alonso Maiztegi, martitzenean, Elgetan. L.Z.L.

"GERO ETA EMAKUME GEHIAGO GABILTZA LASTERKETETAN, ETA ADIN ASKOTARIKOAK, GAINERA"

Hiru Handiak 102 kilometro dira...

Bai; amaitzea nuen helburu, eta zazpigarren egin nuen.

Emakume asko zabiltzate lasterketan?

Gero eta gehiago, eta adin askotarikoak, gainera.

Entrenatzeko Elgeta inguruan ibiltzen zara?

Bai, entrenatu nahi dudaren arabera aukeratzen dut: Egoarbitza, Santamañazar, Azkonabieta, Erdella, Udaltx... Intxorta, egia esan, ez zait askorik gustatzen. Joaten naiz, baina lokatz handia egoten da eta ez zait eroso egiten.

Mendi martxak ere gustuko dituzu, ezta?

Bai; iaz moduan aurten ere egingo ditugu Euskal Herriko Ibiltarien zirkuituko batzuk. Oso ondo egoten dira.



L.Z.L.

Funtzio kognitiboak lantzen

Bideberri mankomunitateak antolatuta, memoria lantzeko tailerra egin dute, hirugarren urtez, Elgetan. Ordu eta erdiko hamahiru saio izan dira, eta eguaztenean egin zuten azkena. Tailerra Lorea Errekalde animatzaile soziokulturalak gidatu du. Askotariko funtzio kognitiboak landu dituzte, eta parte hartzaileek etxean lanketarekin jarraitzeko erremintak dituzte orain.

Toni Bright Elgetan 23an

Mentalista da Bright, eta Espaloian izango da hurrengo zapatuan. Irakur daiteke beste pertsona baten pentsamendua? Asma daiteke loteriako zenbaki irabazlea? Oker daiteke sardexka bat adimen hutsarekin? Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan, 12 eurotan. Goiena Klubaren bidez ere lor daitezke: bi sarrera pare daude zozketatzeko –ikus 41. orria–.



VANESA GARCIA

Hastear den denboraldian, lasaiago

Aurten ere Cangas de Onisko lasterketarekin emango dio hasiera denboraldiari Alonsok. Martxoaren 2an jokatu da 30 kilometroko karrera, Asturiasen. Gero etorriko dira Buetraitzeko igoera bertikala –maiatzak 3, gauzez– eta Euskal Herriko mendi erronka –67 kilometrokoa, Leitzañ, maiatzean–. "Aurten lasaiago ibiltzea da asmoa", esan du.



Iratxe Alonso, iaz, Kangas Mountain Original Trail lasterketan. MV FOTO

OHARRAK

Ipuinen ordua, gaur, liburutegian

Boluntario taldearen eskutik hiru saio izango dira. 17:00etan, 8 urtetik gorako neska-mutikoendako; 17:30ean, 5 urtetik gorakoendako; eta 18:00etan, bizpahiru urtetik aurrerakoendako.

M8 Plataformak batzar irekia, domekan

Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen jarraitzeko deia da. Interesatuak kultura etxean elkartzeko dira, 11:00etan.

Elgetako EH Bilduk herri batzarra, eguenean

Udaletxean izango da batzarra, hilaren 21ean, 18:00etan. Gaiak izango dira: agintaldiko balorazioa, programaren lanketa eta hauteskundeak.



Elena Elkorok, eguaztenean, hitzaldia egiten liburutegian. L.Z.L.

Sexu segururako babes neurri ugari daude

Metodo ugari dago gaur egun gaixotasun kutsakorrek zein ustekabeko haurdunaldiak saihesteko, baina, datuen arabera, ez dira egoki erabiltzen. Elgetako botikari Elena Elkorok uste du lan handiagoa egin beharko litzatekeela prebentzioaren alorrean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Antisorgailu eta babes neurri ugari dago gaur egun merkatuan, baina informazioa ez da heltzen; izan ere, harreman sexualen bitartez kutsatzen diren gaixotasun zein ustekabeko haurdunaldi kasuak gora doaz. Hain zuzen ere, antisorgailuen eta babes neurrien inguruko hitzal-

dia egin zuen Elgetako botikari Elena Elkorok eguaztenean, liburutegiko *Bibliobero* jardunaldien barruan. "Argi ikusten dena da seropositibo kasuak handituz doazela, eta sifilis, gonorea eta herpes kasuak ere bai. Eta hori gertatzen da ez delako neurririk hartzen". Botikariak uste du prebentzio-lan handia dagoela

egiteko, bai gazteen, bai helduen artean.

Aukera handia merkatuan

Asko aurreratu da antisorgailuen alorrean. Lehen, hormona-pilulak eta kondoiak zeuden, eta ia ez zegoen besterik. Gaur egun, ordea, aukera zabala dago haurdunaldiak saihesteko: aro bagi-

nala, hormonak askatzen dituen DIUa, partxeak, diafragma, inplanteak, hilean behin edo hiru hilean behin jar daitekeen injektzioa... eta betiko metodoen artean daude basktomia eta tronpen lotura. Gaixotasun ku-

esaterako, interakzioak egon daitezke. Zaintzea komeni da. **Eta gaixotasun kutsakorren aurrean babes neurririk eraginkorrena kondoi da.** Zalantzarik gabe. Erabiliena gizonekoena da, baina emakumezkoendako ere badago. Hori bai, koipea duten lubrifikatzaileekin kontuz; izan ere, olioak latexa kaltetzen du. Eta latexari alergia diotenendako badaude bestelako kondoiak merkatuan.



L.Z.L.

"Datuek diote jendeak ez duela behar besteko neurririk hartzen"

ELENA ELKOROK GALDOS ELGETAKO BOTIKARIA

Prebentzioan lan handia dagoela uste du botikariak. **Informazioa badago. Zer gertatzen da, orduan?** Bai. Informazioa badago, baina ez da heltzen eta ez dakigu zergatik. Agian, hiesa gaixotasun kroniko bihurtu delako? Ez dugu lehenagoko beldurrik? Ez dakit, baina datuek argi erakusten dute jendeak ez duela behar besteko neurririk hartzen. **Asko egin da aurrera antisorgailuetan, ezta?** Aukera zabala da hormona bidezko antisorgailuetan dago, eta medikuaren jarraipenarekin hartu behar dira; izan ere, medikamentuak dira. Seguruak eta eraginkorrak dira, baina, azkenean, hormonak dira eta botika horiek ustekabeko ondorioak sor ditzakete. Beste botika batzuk hartzen badituzu,



IBAN ARANTZABAL

Zaleen babesa Elgetako hiru auto-gidariendako

Giro ederrean joan zen zapatuan Elgetako III. Mendi Mendia Racing jaia. Autoen erakusketa, triki-poteoa eta talde argazkia egin zituzten eguerdi partean, eta eguraldi politarekin jende dezente elkartu zen plaza inguruan. Bazkaltzeko 120 bat lagun izan ziren kafe

antzokian, eta agurtu egin ziren sarrera guztiak gaueko kontzertuetarako. "Hiru pilotu daude Elgetan eta saiatzen ari gara mundu hau jendeari erakusten", azaldu zuen Ibon Unzetabarrenetxeak. Antolatzaileak pozik agertu dira festa egunak emandakoarekin.



MAIALEN REGUEIRO

Horma-irudi berria gaztelekuan

Aurrera doaz gaztelekuko espazioa erabiltzaileen beharretara egokitze lanak, eta aste bukaeran bi eguneko grafiti tailerra egin zuten Eñaut Airtzaguenaren gidaritzapean. Parte hartze txikia izan zuen ekimenak, baina ondo baliatu dute bertaratutakoek, eta prest dute horma-irudi berria. Airtzaguenak esan du: "Badute eskua gero Elgetako gazteek!".



Bi ume kriseilua eskuetan dutela. TOPAGUNEA

Euskararen Kriseilua piztuta dago Oñatin

LH-1, LH-2 eta LH-3 mailetan ikasten ari diren herriko 202 familia batu dira egitasmora. Astebetez izango dute kriseilua piztuta etxean, euskararen transmisioak duen garrantzia gogoan izateko. Apirilaren 4an festa bat egingo dute gaztelekuan

Oihana Elortza OÑATI

Dagoeneko abian da Euskararen Kriseilua izeneko egitasmoa. Herriko hiru ikastetxeen, Udaren eta Topagunearen arteko elkarlana da eta hizkuntza ohi-turak aldatu eta euskararen transmisioak duen garrantzia ditu helburu.

Piztuta mantendu behar da

LH-1, LH-2 eta LH-3 mailetan ikasten ari direnei eta euren familiei bideratu zaie ekimena eta herriko 202 familia batu dira egitasmora. "Oso pozik gaude ekimenak Oñatin izan duen erantzunarekin. Ikusten da badagoela herrian euskararekiko sentsibilitatea", dio Topaguneko kide Johana Olabarriak.

Apuntatu den ume kopurua hartu dute kontuan kriseiluen banaketa egiteko; 32 daude hiru ikastetxetan banatuta, gela batzuetan bat baino gehiago. Izan ere, apirilaren 4an amaituko da egitasmoa eta ordura arte txandak antolatu dituzte kriseilua

etxean izateko. "Astebetez izango du familia bakoitzak kriseilua etxean, piztuta, eta erronka da tarte horretan euskararen inguruan familia moduan zein konpromiso har dezaketen adostea, guztien artean berba egitea eta erabakitzea zer egin dezaketen euskara erabiltzeko", dio Olabarriak.

Kriseiluak euskaraz egiten jarraitzeko gogoraraziko diela uste du, hain zuzen, ekimenean parte hartu duen guraso batek: "Egia esan, guk euskara erabiltzen dugu etxean egunerokotasunean, baina litekeena da batzuetan gurasoen artean erdara erabiltzea. Euskaraz berba egin behar dugula ekarriko digu gogora kriseiluak". Beste guraso

**TOPAGUNEA
GALDETEGI BAT
PRESTATU DU,
HIZKUNTZA OHITUREI
BURUZKOA**

batek euskararekiko duen sentsibilitateagatik erabaki du parte hartzea: "Ukitu egiten nau euskararen gaiak eta oso sentsiblea naiz gai horrekin. Bestetik, gustatzen zait seme-alaben eskolako ekintzetan parte hartzea eurekin batera. Oraindik ez zaigu kriseilua iritsi eta pentsatu beharko dugu etxeko zein txokotan jarri".

Festa eta galdetegia

Ekimenean parte hartu duten guztiendako festa egingo dute apirilaren 4an gaztelekuan, ekimenari amaiera emateko. Kontalari batek transmisioaren inguruko ipuina kontatuko duela azaldu du Udaleko Hezkuntza teknikariak, Iñaki Aki-zuk, eta sorpresak egongo direla gaineratu. Topaguneko, bestalde, galdetegi bat prestatu du, hizkuntza ohiturei buruzkoa, eta Olabarriak galdetegi bat betzera animatu gura ditu oñati-rrak. Hau da helbidea: www.kriseilua.eu/galdetegia.

Otsail amaierarako, semaforoak egongo dira Zazpibidetan

Parrokiaren aurrealdean eta Bakardade Ama kalearen barrenean egongo dira eta hesien lana egingo dute

O.E. OÑATI

Zazpibideta bidegurutzean hesiak jartzen zituzten lehen, gidariei gogorarazteko kalea itxita zegoela. Laster, baina, semaforo bidez adieraziko da ibilgailuak handik pasa daitezkeen edo ez.

Lanak hasi dituzte eta asmoa da otsailaren amaierarako semaforoak martxan egotea. Bat parrokiaren sarreraren aurrealdean egongo da eta bestea, ON-CEren kioskoaren atzealdean. Argindar hornidurarako eta semaforoaren euskarria izango dena egokitzeko obra zibila ari dira egiten orain eta semaforoak jarri eta argindar sarera konektatzea faltako da gero.

Aste barruan argi laranjaz egongo dira, oinezkoen pasagune bat dagoela adierazteko, eta asteburuetan argi gorria izango dute, pasabidea itxita dagoela jakinarazteko. Argi gorria osti-



Semaforoak jartzeko lanak. O.E.

ral arratsaldean piztuko da eta zapatu eguerdian berriz domeka guerdira arte. Gorrian daudenean, baimendutako ibilgailuak bakarrik pasa ahal izango dira; udaberriari jarri zen kontrol kamera martxan izango da, orain arte bezala.

Txapa tailer eta informazio mahai moreak asteburuan

Asteburu honetan, bi ekintza egingo dituzte Emakumeen Nazioarteko Egunerako. Gaur, egubakoitza, egun horretarako pankartak, kartelak eta txapak egiteko tailerra egingo dute, Antixena gaztetxean, 17:30ean. Zapatu goizean, informazio mahaia jarriko dute Foruen plazan eta Martxoaren 8ari buruzko informazioa ematen, galderak eran-

tzuten eta zalantzak argitzen egongo dira han herritar batzuk.

Martxoaren 8ari begira lanean jarraitzen du herriko sare feministak. Martitzenetan egiten dituzte bilerak, egun horretarako iragarrita dagoen grebari nola erantzun erabakitze eta pentsatutakoa antolatze; 30 emakume elkartu ziren lehen bileran. Bilerak irekiak izaten dira emakume guztiendako. Hurrengo hilaren 19an izango da, martitzena, 18:00etan, Eltziaiko topalekuan.

Herriko ehiza txapelketarako izen ematea zabalik dago

Otsailaren 24an egingo da Oñatiko ehiza txapelketa, eta parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, Alzu dendan. Pago Usoko bazkideak direnek 35 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 40 euro. Txapelketa Zanbranan izango da, 09:00etan. Derrigorra da eramatea ehiza baimena eguneratuta, Federazioko txartela eta txalekoa.

Marcos Rodriguezen hitzaldia gaur da kultura etxean

Hamahiru urtean Sierra Morenako mendi eta basoetan otsoekin eta beste hainbat animaliarekin bizi izan zen Marcos Rodriguez andaluziarra, eta esperientzia horri buruz egingo du berba gaur, egubakoitza, 19:00etan, kultura etxean. Natur Eskolako kideek antolatutako hitzaldia da, Ingurumen Jardunaldien barruan.

"Nekatu egin gara, baina pozik gaude egindakoaz"

DANIEL ENPARANTZA TXIRRINKA ELKARTEKO KIDEA

Bere ibilbidea bukatu dela iragarri du Txirrinka taldeak. Ez, zituen helburu guztiak lortu dituztelako, baizik eta "bueltak emanarazteko behar den indarra" agortu zaielako

Oihana Elortza OÑATI

Hemezortzi urteko ibilbidea egin du Txirrinka taldeak "mugikortasunaren alde". Ibilbideaz eta taldea desagitearen arrazoiez erantzun du Daniel Enparantzak. **Egunerokoan bizikletan ibiltzea lehen baino errazagoa da gaur egun, itxura batean. Horregatik bukatu da Txirrinkaren ibilbidea?**

Eta aukera dago horretarako, baina hemezortzi urteko ibilbide honetan ezin da laburbildu orrialde honetan galdera honi erantzunda. Txirrinkarekin hasi ginenean, bizikletan sinisten genuen, era natural batean ibiltzeko aukera emango zigulako, bizikletan ibiltzea nahi genuen. Ibilbide honetan lantalde oparoa beti prest egon da lanerako eta bidean gurutzatutako pertsona eta eragile desberdinekin asko ikasi dugu. Merezki izan du ibilaldi hau egitea eta harro gaude lan hori egiteagatik. Egia da batzuetan aldapan behera joan garela eta beste batzuetan alda-



Daniel Enparantza oñatiarra. AITOR AGIRIANO

pan gora. Haizearen kontra ere borrokatu izan dugu, baina ingurukoek bidezidorrean zain izan ditugu Txirrinkaren asmoak aurrera ateratzeko. Azkenean, baina, nekatu egin gara lan horretan.

Eguneroko joan-etorriak bizikletaz egin ahal izateko sortu zen Txirrinka elkarteak?

Txirrinka mugikortasunaren alde lanean aritzeko sortu zen. Bizikletak, oinezkoak, ibilgailuak eta zerbitzu publikoa kontuan

hartuta. Orain dela hemezortzi urte bizikleta ez zen aipatzen Oñatiko herriko plangintzan. Horrek esan nahi zuen, beste lurraldeetan bizikletarekiko begirune handia zegoen bitartean, herrian autoaren joan-etorrietan pentsatzen zela. Horrela, bizikletazale batzuen hausnarketa baten ondorioz, Oñatin bizikletaren alde egiteko aukera ikusi genuen, eta, guk bizikletan sinisten genuenez, gai horri bultzada bat ematea erabaki genuen. Horretarako, idatziak, mahai-inguruak, hitzaldiak, bizikleta martxak... antolatzen hasi ginen. Jakitun ginen, era berean, bailarako autobidea egiteko zegoela eta Debagoieneko alkateek bidegorri sarea irekitzeko dokumentu bat sinatu zutela, baina asmo hori garai haietan geldirik aurkitu genuen.

Diozu argi ikusi zenutela Udalarekin baino gehiago, Aldundiarekin jarri behar zenutela harremanetan. Zergatik?

Alde batetik, garai haietan, nik Kalapierekin harremana nuen eta Aldundian zeuden ardura-dunek gai honetaz sentsibilitatea zuten. Gauzak horrela, harreman naturala izan zen, Gipuzkoan bide sarea irekitzeko plangintza bat egiten ari ziren eta; eta gu horren parte ginen. Bestetik, Oñatin arau subsidiarioak zeuden, baina herrian beste lehentasun batzuk zeuden, Horregatik, Aldundiaren laguntzarekin eta Udalak gai honekin

hartu zuen konpromisoarekin, denen arteko elkarlan baten hasiera izan zen.

Nabaritu duzue herritarren babesa ibilbidean zehar?

Bai; bestela, ez genukeen hemezortzi urte iraungo. Herritarrak, agintariak, Natur Eskolakoak eta bailarakoak Txirrinkaren laguntzaileak izan dira beti. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut eskerrak emateko denei.

Baina erradiografia hori aldatu egin da ordutik hona, ezta? Bidegorria badago, esaterako, eta lanera herritar asko joaten dira bizikletaz.

Bai, orain azpiegiturak ditugu, baina ondo erabiltzea tokatzen zaigu. Bizikletak errespetua galdu die beste erabiltzaileei, eta horretan tematiak izan gara. Pozik gaude lanerako joan-etorrian bizikletak ikusten ditugulako, baita tinbreak eta argiak daramatzatelako. Alor horretan, pausoak eman dira, baina zentzuz jokatu behar dugu; oinezkoak lehentasuna beti izan behar du. Elkarbizitza baten aldeko apustua egin behar dugu. Ordenantzatik harago, errespetuz eta zentzuz jokatu behar dugu gure egunerokoan oinezkoek, bizikletek eta beste ibilgailuek.

"LERRO HAUEK APROBETXATU GURA DITUT ESKERRAK EMATEKO BABESTU GAITUZTENEI"



NIRE USTEZ

XABI GESALAGA

Toka eta noka... euskal matrioxkaren bihotza

Toka, noka... Zein esanahi ote dute onomatopeiko diruditen hitz hauek?

Imajina dezagun euskara errusiar matrioxka bat dela, panpina baten barruan beste bat eta honen barruan beste bat duten horietakoa, alegia. Ba, sakonenenean lirakeen panpinatxoak hauek. Toka gizonetako hitanoa eta panpinarik txikiena eta hauskorrena, noka, emakumezkoena.

"Fango gaitun, egingo xonau, ekarri nixonan, edo hik zer uste don, ba?", eta abar entzun ohi diot nire

amari bere lagunekin diharduenean -zein ederra-. Baina testuinguru honetatik kanpo ez dut gehiago entzuten! Honek ardura, pena, sortzen dit. Uste dut, besteak beste, ezjakintasuna eta beldurra direla arrazoietakoz batzuk, erabilera okerraren beldurra. Toka, berriz,

"USTE DUT TOKARI ETA BEREZIKI NOKARI BERORIKA ZUZENDU BEHAR GATZAIZKIOLA"

perfektu ez bada ere, oraindik dezente entzuten da, baita herriko gazteen artean ere.

Tratu informalekin lotzen den aditz forma izaki, uste dut tokari eta bereziki nokari, agian, berorika zuzendu behar gatzazkiola, transmisio lana egiteko ardura izan, erabiltzeari beldurra galdu eta gure lagun sarean txertatu.

Euskal matrioxka hau ez da inoiz osoa izango bere piezarik txiki eta bitxienari eusten ez badiogu. Gure ondorengoentzat ez dadila izan guretzat izan den bezain ikusezina.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Miradoreko heldulekua, ustelduta

Udanan dagoen miradoreko heldulekua ustelduta dagoela ikusi du herritar batek, eta pena hartu duela dio. Gaineratu du pozik ikusiko lukeela konponduta, "modurik egonez gero".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Iazko Urrezko Aizkoraren ekitaldia. GOIENA

Herri kirolen ikuskizuna domekan Foruen plazan

Aizkolarien eta harri-jasotzailearen ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da domekan, 12:00etan, herriko plazan. Hiru saio izango dira: aizkoran, gizonekoena eta emakumezkoena; eta harri-jasotzaile batena. Euria egiten badu, Zubikoan izango da

Maialen Regueiro OÑATI

Beste urte batez, herri kirolen ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da domekan, 12:00etan hasita, Oñatiko Foruen plazan. Dagoeneko zortzi urte pasa dira lehen Urrezko Aizkora antolatuta zenetik eta Oñatiko Herri Kirol Taldeko kide Angel Billarrek adierazi du "aizkolariek eta ha-

rri-jasotzaileak ikuskizuna" eskainiko dutela beste urte batez.

Domekan hiru txapelketa ikusteko aukera egongo da. Lehenik, gizonekoena binakako aizkolaritxapelketaren finalerdia jokatuko da. Iker Vicente eta Ruben Saralegik Xabier Orbegoza Arria V.aren eta Jon Rekondoren aurka arituko dira. Emakumeen

aizkora txapelketaz gozatzeko aukera ere egongo da. Kasu honetan, Irati Astondoak eta Itxaso Onsalok banakako txapelketako finalerdia jokatuko dute. Azkenik, aizkolarien txanda amaituta, harri-jasotzaile txapelketan ordezkari bakarra izango da: Xabier Aranburu *Guzta*, hain zuzen ere.

Emakumeak, bigarren

Aurreko edizioan lehenengoz hartu zuten parte emakumeek Oñatiko Urrezko Aizkora ekitaldian. Irati Astondoa, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo aritu ziren aizkora eskuetan zutela. Izan ere, emakumezkoak euren lekua egiten dabilta herri kirolan eta geroz eta txapelketa gehiagotan dago horien ikuskizunaz gozatzeko aukera. Horren harira, Billarrek aitortu du "pozgarria" dela emakumeek horrelako txapelketetan parte hartzen dutela ikustea.

Astondoa 15 urte zituela hasi zen herri kirolen munduan, eta elkarrizketa batean honako hau aitortu zuen: "Emakume azkarena naiz enborrak moztan". 2016an parte hartu zuen txapelketa batean, esate baterako, hogeita bi minututan sei enbor moztu zituen.

Astondoarekin lehiatuko den aizkolaria Itxaso Onsalok izango da. Aresotarrak urtetako esperientzia du herri kiroltako txapelketetan eta lehiaketa mistoetan ere aritu izan da. 2018ko uztailean, besteak beste, Nafarroako Arpana Txapelketa irabazi zuen Leire Astiazaranekin batera.

Gizonekoena txapelketa

Iker Vicentek, Ruben Saralegik eta Jon Rekondok errepikatu egingo dute eta Xabier Orbegoza Arria V.a izango da nobedadea Urrezko Aizkoran; Rekon-

doren bikotekide izango da. Hala, domekako txapelketa irabazten duen bikoteak finalerako bidea hartuko du.

'Guzta', harri jasotzen

Aizkolaria protagonista izango dira domekako ekitaldian, baina harri-jasotzaile baten ikuskizuna ikusteko ere egongo da tarterik. Xabier Aranburu *Guzta* Foruen plazan harri jasotzen arituko den parte-hartzaile bakarra izango da. Idiazabaldira aizkoran hasi bazen ere, gaur egun harri-jasotzaile dihardu, afizioa ogibide ez badu ere. Urteik urtera pisu handiagoa duten harriak hartzen ibili da. Aurreko urtean, besteak beste, 175 kiloko harri errektangularra eta 150 kiloko harri kubikoa erabili zituen Oñatiko Urrezko Aizkoran. Domekako ekitaldian, antzeko harriekin arituko da ikuskizuna eskaintzen.

Euria egiten badu, Zubikoan

Domekarako ez da eguraldi txarrik iragarri, eta, iragarpena mantentzen bada, Foruen plazan egingo da ekitaldia. Euria egiten badu, Zubikoa kiroldegian izango da.

BESTE URTE BATEZ, EMAKUMEEN TXAPELKETA IKUSTEKO AUKERA EGONGO DA PLAZAN

Gure Auzune taldearen bisita izango du Fagor Industrialek

Fagor Industrialen eta Gure Auzuneren arteko partidua bihar jokatuko da, 18:00etan, Zubikoa kiroldegian

M.R. OÑATI

Jokatutako azken bi jardunaldietan garaipena lortu dute Aitor Aranbururen mutilek eta bihar, zapatua, beste hitzordu bat dute, 18:00etan hasita, Zubikoa kiroldegian. Kasu honetan, Gure Auzune taldea izango dute aurkari.

Oñatiarrak sailkapeneko hirugarren postuari eusten ari dira –hogeita zortzi puntu dituzte– azken jardunaldietan, eta aurreko biengandik puntu gutxira daude –Txikipolit taldeak hogeita hamar puntu ditu eta



Bernal, penaltia botatzeaz. IMANOL SORIANO

Urdulizek hogeita hamaika–. Gure Auzune taldea, berriz, hamabi punturekin hamaikagarren postuan dago sailkapenean eta azken jardunaldian garaipena lortu zuen Ilcapo Hondarribiaren aurka.

Denboraldia amaitzeko zortzi jardunaldi gelditzen dira. Aranbururen mutilek hemezortzi partidua jokatuko dituzte eta horietatik hamahiru irabazi, bi berdindu eta hiru galdu dituzte. Gure Auzune taldeak, berriz, norgehiagoka bat gutxiago jokatuko du eta horietatik, lau garaipen eta berdinketa eta bederatziratu galdu ditu.

Bi taldeek seigarren jardunaldian, azaroan, jokatuko zuten elkarren aurka. Oñatiarrak Gure Auzuneren kantxan jokatuko zuten eta garaipena lortu zuten sei goleko aldearekin (25-31).

Txirrindulari saileko taldeak aurkeztuko dituzte bihar

2019ko denboraldiko txirrindulariak aurkeztuko dituzte bihar, Etxe-Aundi jatetxean, 12:00etan hasita

M.R. OÑATI

Hogeita hamazazpi txirrindulari arituko dira aurten Aloña Mendi txirrindulari saileko talde desberdinetan. Horien guztien aurkezpenean egingo dute zapatuan, Etxe-Aundi jatetxean, 12:00etan.

Bost kategoriatan arituko dira Aloña Mendiko txirrindulariak: benjamin, alebin, infantil, kadete eta juniorrak. Horiez gain, badaude beste talde batzuetan arituko diren txirrindulari oñatiarrak. Sara Arregik Gipuzkoa Ogi Berrin jarraituko du, Garaiz Erostarbe Murias Limosinen

arituko da, Gaizka Maiztegi Hostal Latorren, Julen Otero eta Ander Gartzia Debarrenan eta Xabier Murgiondo Laboral Kutxan.

Denboraldi honetan bost lasterketa egingo dira Oñatin: Emakumeen Birako azken etapa maiatzean, Olakua saria eta Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa ekainean, Arantzazu proba uztailean eta San Migel proba eta Oñati saria irailean. Eskolarrek martxoaren 16an lasterketa egingo dute eta ziklo-krosa abenduaren 15ean izango da.



Modus Operandi taldeko kideak. EIDER ITURRIAGA - IZARBE PHOTO

Kontzertuz josita dator asteburuko agenda

Eskean Kristo eta Saia Goait izango dira asteburuko agendako lehenak, gaur, gaztetxean. Bihar, Modus Operandi eta Nomadak ikusteko aukera egongo da gaztelekuan. Eta domekan, 'matinee' kontzertua eskainiko du Amorantek, gaztetxean

Amaia Igartua. OÑATI

Gaurtik domekara bitartean, askotariko ikus-entzuleei zuzendutako musika eskaintza zabaldua izango da herrian.

Gaur, 22:00etan, Eskean Kristo eta Saia Goait taldeak arituko dira gaztetxean. Sarrera 5 euro izango da.

Eskean Kristo talde bizkaitarra *Ezkurrik onenak* azken lana aurkeztera dator.

Saia Goait mutrikuarrak, entsegu lokaletan batu ondoren, zuzeneko biziak eskaintzeko prest datoz gaztetxera. Stoner-rock eta hard-rockaren zurrumbiloan ahots melodikoak gailentzen ditu taldeak.

Modus Operandi eta Nomadak

Bihar, hilak 16, Modus Operandi eta Nomadak izango dira protagonista, 19:30ean, gaztelekuan.

Modus Operandi Iñaki Ortiz de Villalbak -Betagarriko abeslari ohia- bultzatutako proiektua da. "Iñakik sortu zuen taldea,

Betagarriren agurraren ostean, argi zuen musikan jarraitu nahi zuela. Abestiak prestatzen hasi ginen elkarrekin, Iñakik letra batzuk idatzi zituen eta nik melodiak sortu nituen. Ez nuen Iñaki ezagutzen, baina ilusioa egin zitzaidan nigan konfiatu izanak", azaldu du Andoni Garciak, Modus Operandiko taldekideak eta Laurobako taldekide ohiak.

Ska eta fusioa lantzen dituen taldearen izen bereko diskoa aurkeztuko dute bihar.

"Ilusio berezia egiten dit Nomadak-ekin jotzeak. Nik ere Emon utzi nuen eta beste bide bati ekin nion; berriz lagunak elkartzeko aukera bikaina izan-

BERRIZ LAGUNAK ELKARTZEKO AUKERA BIKAINA IZANGO DA GAZTELEKUKO KONTZERTUA

go da gaztelekuko kontzertua", azaldu du Garciak.

Nomadak taldeak Emon desegin eta berehala eman zituen lehen urratsak iaz. Rocka, elektronika eta trikitia landu dituzte bihar gaztelekuan entzuteko aukera egongo den *Hasieratik* + disko berrian.

Sarrera 8 euro izango da. Aurrez erosi gero, 6,5 euro. Aurrez salmenta *Onati.eus* atarian da.

'Matinee' kontzertua

Domekan ere, 12:30ean, Amorante ezizenaren atzean ezkutatzen den Iban Urizarrek kontzertua eskainiko du gaztetxean.

Musikan ibilbide luzea egin ostean, bakarrik itzuli da taula gainera. "Ezohikoa izan daiteke kontzertua, heterodoxoa den zentzuan: tresnak eta ni bakarrik. Herri-musikari oso lotuta dagoen ikuskizuna da".

Antixeneko *matinee* kontzertuen beste aldean izandakoa da Urizar: "Horrelako lekuetan jotzea beti izaten da plazer bat".



Andoaingo lehiaketan parte hartuko duten ikasleak. JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Musika eskolako hamabi ikasle Andoaingo piano lehiaketan

Jose de Azpiazu musika eskolako hamabi ikaslek parte hartuko dute Andoaingo XIV. piano lehiaketan

Amaia Igartua OÑATI

Bihar eta etzi, otsailaren 16an eta 17an, jokatu da Andoaingo piano lehiaketaren hamalau-garren edizioa, Andoaingo Udalak eta Deiar elkarteak antolatuta. Hain zuzen, Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako hamabi ikaslek parte hartuko dute lehiaketan.

Hamabi ikasle, bi kategoria

Musika eskolako ikasleak A eta B kategorietan lehiatuko dira bakarlarri moduan. A kategorian lehiatuko diren hamar piano-jotzaileak hauek izango dira:

Ander Nogueiras -*Little flower girl of Paris*-, Asier Nogueiras -*Mockingbird rag*-, Irati Atxa -*Crazy 'bout you*-, Irati Izagirre -*Little flower girl of Paris*-, Izar Gil -*A long time ago*-, June Urzelai -*Halloween scene*-, Lara Santos -*Crazy 'bout you*-, Naiara Altube -*Song of spring*-, Paula Astudillo -*No 31, Chanson sans paroles*- eta Sara Iñurritegi -*Crazy 'bout you*-.

B kategorian, berriz, bi piano-jotzailek parte hartuko dute: Maider Alberdik -*Ballad for our time*- eta Sara Txintxurretak -*On a windy hill*-.



GOIENA

Etzi, Musika Banda Santa Anan

Domekan, hilaren 17an, 12:45ean, Udak Musika Bandaren otsaileko kontzertuaz gozatzeko aukera izango da Santa Ana antzokian. Aurretik, 11:00etan, kalejira egingo dute. Bost piezaz osatutako errepertorioa eskainiko dute Santa Anan: *Camino de Rosas*, *Merry Wives of Windsor*, *Euskeria* -Iñigo Ugartek zuzenduta-, *West Side Story* eta *Ris-Ras*.



Ekitaldiaren amaieran saritu guztiak, DKSk babeselek eta udal ordezkariak. IMANOL SORIANO

"Ametsak betetzen laguntzeko" sariketa arrakastatsua

DKS'18 laz kirol arloan egindako lan ona saritu zuten eguaztenean Amaia antzokian. Maialen Axpe atletak, Ointxe Araski saskibaloitza taldeko neskek, Martin Perez Zuzenak taldeko jokalariek eta Xabier Infante 'Artza'-k irabazi zituzten sari nagusiak

Xabier Urzelai ARRASATE

"Errekonozimendu hau ametsak egia bihurtzen jarraitzeko bulzakada da". Halaxe laburtu zuen Maialen Axpek DKSk Kirolari Onenaren Saria jaso izanak dakarrena. Arrasatekoa izan zen eguneko protagonistetako bat, baina ez zuen ekitaldian fisiko-ki egoteko aukerarik izan. Betoñako atletak bideoa bidali zuen Iruñeko atletismo pistatik, Amaia antzokiko ekitaldiaren ordu berean Espainiako Txapel-

ketara begira azken entrenamendu saioa zuen eta -Glasgow lehiazteko gutxieneko marka bida dabil [4,50]-. Hala, kirol bizitzan izan dituen entrenatzaile guztiei eskerrak eman eta gero -"eurak gabe ez garelako ezer"-, gaur egungo entrenatzaile Francis Hernandez izan zuen gogoan, eta Arrasate Atletico Taldeko kide Fernando Zufria Txufi ere nabarmendu zuen: "Beti egon delako hor, animoak ematen".

Taldeka, Ointxe Araski

DKSk ekitaldiaren lehenengo zatian, udal bakoitzak bere herriko kirolaria saritu zuen. Ondoren, Dragoiko gimnastek erakustaldia egin zuten; ez zuten Talde Onenaren Saria jaso, baina ondo merezitako ikusleen txalo zaparrada jaso zuten.

Hala, Ointxe Araski saskibaloitza taldeko neskendako izan zen Talde Onenaren Saria, eta Irene Muruak jaso zuen garaikurra, nahiz eta taldekide guztiak igo

ziren agertokira -iaz brontzea irabazi zuten Espainiako Kluben Arteko Txapelketan-.

Martin Perezek, hirutik hiru

2018ko DKS ekitaldiko protagonista nagusia, baina, eskoriatzar bat izan zen: Martin Perez. Gasteizko Zuzenak taldean jokatzeko duen saskibaloitza jokalariek hiru sari jaso zituzten, guztira: Eskoriatzako Udaltzaletako Saria, Publikoaren Saria eta Sari Berezia. Sari bakoitzak bere garrantzia izanda, herritarren partetik jasotako babes nabarmendu zuen eskoriatzarrak: "Eskerrak eman gura dizkiet nire aldeko botoa eman dutenei; izan ere, polita da herritarren partetik halako babes jasotzea".

Izan ere, Publikoaren Sarira Goiena.eus atarian 1.865 boto baliagarri jaso eta gero, Eskoriatzako boto kopuru totalaren %29 jaso du: 536 boto. Jarraian, Garazi Estebez ziklista izan da boto gehien jaso duen bigarren hautagaia (%11,7) eta Mikel Linazisoro eta Markel Uriarte geratu dira hirugarren eta laugarren, ia botoko kopuru berberekin.

Urtetako lanaren aitortza

Goiena Saria, ostera, Debagoienan igeriketaren alde urtetan horrenbeste lan egin duen Xabier Infante Artza-arendako izan zen. Oñatikoak garbi utzi zuen erretiroa hartzen duenean ere ez dela igerilekuetatik askorik urrunduko: "Kloro txute bat beharrezkoa delako". Eta agindu bat ere eman zien bertaratutako: "Egin ezazue kirola!".

Sari bereziak

Kirolari Onena
Maialen Axpe.

Kirol Talde Onena
Ointxe Araski saskibaloitza.

Sari Berezia
Martin Perez.

Publikoaren Saria
Martin Perez.

Goiena Saria
Xabier Infante 'Artza'.



DKS'18

Hauek dira 14 saridunak



ANTZUOLA SARIA

Alaitz Urkiola Euskadiko rally txapeldunari Garazi Larrea Kirol teknikariak eman zion saria.



ELGETAKO SARIA

Iratxe Alonso mendi lasterkariak Iraitz Lazkano alkatearen eskutik jaso zuen saria.



ARRASATEKO SARIA

Iñaki Uribetxebarria squasha sustatzearen saritua. Argazkian, Maria Ubarretxena alkatearekin.



GOIENA SARIA

Xabier Infante Artza-ri Goienako lehendakari Aitor Izagirrek eman zion saria, urtetan igeriketa sustatzearen.



ARETXABALETA SARIA

Odiolo Vazquezek karatea sustatzeagatik jaso zuen saria, Unai Elkoro alkateren eskutik.



BERGARA SARIA

Mikel Linazisoro eskalataleak Elena Lete alkatearen eskutik jaso zuen saria.



GATZAGAKO SARIA

Dorletako Ama Txirrindulari taldeari Juan Bengoa alkateak eman zion saria, argazkian klubeko kide Joxerra Agirreurreta eta Alberto Altube.



PUBLIKOAREN SARIA

Martin Perez saskibaloijokalaria Citroen eta Kia Chapimeko gerente Mikel Loitiren eskutik jaso zuen saria.



TALDE ONENAREN SARIA

Irene Murua saskibaloijokalaria, Juanjo Madinabeitia –Goiena Aseguruak– eta Antonio Cantero –Axa Seguros Generales– babesleekin.



OÑATI SARIA

Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko 50 urte bete ditu, Andoni Olalde jaso zuen saria Borja Moiu Kirol zinegotziaren eskutik.



ESKORIATZA SARIA

Martin Perez saskibaloijokalaria Joserra Zubizarreta alkatearen eskutik jaso zuen saria.



ARAMAIOKO SARIA

Ione Oyanguren izotz hockeyko atezainak Agustin Oyanguren aitaren eskutik jaso zuen saria.




SARI BEREZIA

Martin Perez saskibaloijokalaria, Ibon Agirre Bergarako Caixabank bulegoko zuzendariarekin.



KIROLARI ONENARI SARIA

Maialen Axpe atletaren senitarteko Aitziber Albistegik jaso zuen saria, Joseba Mandalunizen –Ekide Group– eskutik.



Debagoieneko udaletako ordezkariak ikusleen artean, lehen lerroan.



Goienak zuzenean eman zuen ekitaldia; argazkian, teknikariak lanean.



Arrasateko Dragoi taldeko gimnastak eta Ointxe-Araski saskibaloia taldekoak photocall-ean.



Amaia Zabala eta Xabi Urzelai aurkezleak Martin Perez elkarrizketatzen.



Martin Perez, lagunekin.




Mikel Linazisoro eskalatzaila, entrentzailea, lagunak eta senideak alboan dituela.



Arrasate Dragoi gimnasia erritmiko taldekoak oholztan agurtzen. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Sari nagusiak jaso zituztenen berbak



MAIALEN AXPE
KIROLARI ONENAREN
SARIA

"Atxikimendu hau ametsak egia bihurtzen jarraitzeko beste bultzada bat da. Ekitaldian egotea gustatuko litzaidake, baina Espainiako Txapelketa da asteburuan. Saria Fernando Zufiriari eskaini nahiko nioke, beti dagoelako animatzen, izan ditudan entrenatzaile guztiei, familiari eta lagunei..."



XABIER INFANTE
'ARTZA'
GOIENA SARIA

"Azkenaldian, omenaldi asko jaso ditut, eta malkoak erraz irteten zaizkit. Segituan emozioztatzen naizen horietakoa naiz. Hala, eskerrak eman nahi dizkiet nire atzetik egon den jendeari, lagundu didatenei... Kirola egiten jarraituko dut, kirola osasuna delako, eta beharrezkoa, gainera".




Xabier Infante eta Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia.



Odilo Vazquez, Aretxabaletako Karate Elkartekoa, Aretxabaletako ordezkariekin.



Iratxe Alonso, Iraitz Lazkano Elgetako alkatearekin eta Mikel Elkoro zinegotziarekin.



MARTIN PEREZ
ESKORIATZAKO UDALARENA
PUBLIKOARENA ETA SARI BEREZIA

"Hirutik hiru sari lortzea ez nuen espero. Niretzat, sekulako errekonozimendua da, baina ez soilik niretzat, Debagoieneko kirolari guztientzat; asko gara, maila oso altukoak, eta ez soilik lehiatzen dutenentzat, kirola praktikatzan dugun guztiontzat. Sari hauek oso baliagarriak direla uste dut".



IRENE MURUA
TALDE ONENAREN
SARIA

"Beti dago saria lortzeko esperantza, eta pozik gaude. Aurtentzen jarraitzen dugu, junior mailan, eta aurtentzen ere ea zorte bera dugun eta Espainiakora goazen berriro. Emakumeen kirola bultzatu behar da, eta beste talde irabazlea emakumezkoena izatea ere poztekoa da".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Mondra-Anaitasuna

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Hernani-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Hernani.

Oiartzun-Bergara

Zapatua. 15:30. Oiartzun.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Lagun Onak

Domeka. 16:30. Ibarra.

Zestoa-Mondra

Zapatua. 16:00. Zestoa.

Antzuola-Anaitasuna

Zapatua. 16:00. Estala.

Lazkao-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Lazkao.

LEHEN ERREGIONALA

Ikasberri-Arizmendi

Zapatua. 16:15. Azpeitia.

Aloña Mendi-Goierri

Zapatua. 18:00. Azkoagain

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Ostadar

Domeka. 16:30.

Azkoagain.

Aretxabaleta-Zumaiako

Zapatua. 16:00. Ibarra.

Mondra-Ordizia

Domeka. 17:30. Mojategi.

Bergara-Amaikak Bat

Domeka. 17:15. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate

Atsedena.

Eskoriatza

Atsedena.

Aretxabaleta

Atsedena.

SENIOR NESKAK

Anoeta-Eskoriatza

Gaur. 20:45. Anoeta.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Fagor Indust.-Auzune

Zapatua. 18:00. Zubikoa

Ford Mugarri-Muskiz

Domeka. 11:45. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Bera Bera-Aloña Mendi

Zapatua. 19:45. Donostia.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Aritzatalde-Soraluce B.

Zapatua. 13:00. Zarautz.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Ordizia

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Atletico-Mekalki Aloña

Zapatua. 18:00. Donosti.

GIP. BIGARREN MAILA

Debasket-Bergara Soralu.

Zapatua. 18:00. Deba.

EMAKUMEZKOAK

Antigua-Eskoriatza

Zapatua. 20:00. Donosti.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpan. ART-Ordizia

Domeka. 16:45. Mojategi.

Gora bidean jartzeko garaipen nahian dago Mondra

Ohorezko Erregional Mailako Mondra taldeak Anaitasunaren aurka jokatu du zapatuan, 16:30ean. Etxean jokatu arren, sailkapen nagusian bigarren dagoen Anaitasuna hartuko du, eta ez da partidu erraza izango. Hala ere, gorengo postuetara hurbiltzeko hiru puntuak eskuratzea ondo etorriko zaie arrasatearrei.

MUK etxean jokatu du Ordiziaren aurkako partidua

EBA txapelketan lehiatzen ari den Mondragon Unibertsitatea taldeak Ordiziaren aurka jokatu du partidua, zapatuan, Iturripen (18:30). Arrasatearrak laugarren postuan daude sailkapenean eta ordiziarrek, berriz, beheko postuetan daude. Hala ere, edozer gerta liteke, eta garaipena eskuratzeko gogor irten beharko dute kantzara.

Antzuolako herrikoirako prest daude 270 lagunak

Domekan izango da Antzuolako 8 Miliak lasterketa, eta 270 pertsonak hartuko dute parte bertan. Aurtengoa zazpigarren edizioa da, eta urteroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek. 11:00etan, haurren minimotorren proba hasiko da

I.B ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa domeka honetan izango da. Aurtengoa zazpigarren edizioa da, eta, lasterketa herrikoian, mendiaz gozatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Lasterketa 10:30ean hasiko da eta urteroko ibilbidea bera eta ia 14 kilometro egin beharko dituzte proban parte hartzen dutenek. Dortsalak egunean bertan hartu beharko dira, Antzuolako eskolako patioan, helmuga ondoan, 08:45etik 10:00ak arte. Dortsalak libre geratzen badira, berriz, 10:00etatik 10:15ak arte izena eman ahal izango da, 15 euroren truke.



laz, Irimoko tontorrean. JULEN IRIONDO

Txikiak, minimotorrekin

11:00etan, aldiz, txikien txanda izango da. Urte batetik laura bitarteko haurrek minimotorren lasterketari emango diote hasiera. Azken honetan parte hartzeko, plastikozko motortxoak eta kaskoa eraman beharko dute parte-hartzaileek, eta gurasoek sinatutako baimenak bertan jasoko dira.

Bi proben ostean, hamaiketako egongo da parte-hartzaile guztientzat, eta amaitzeko, 13:00etan, sari banaketa egingo da. Azken honetan, helduen lasterketako errekorra gaintzen duenarentzat 100 euroko saria egongo da, gizonetako eta emakumezko mailetan.

Sinfonia Kooperatiboaren ikuskizuna, estreinatzean

Irailaren 14an Gasteizko Buesa Arenan eskainiko dute Mondragon Taldeak askotariko sortzaileekin sortu duen 'Humanity at music'; datorren asteburuan Amaia antzokian egingo dute kooperatiben soinu banda jasotzen duen emanaldiaren aurrestreinaldia

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Mondragon taldeak *Humanity at music* Sinfonia Kooperatiboa proiektua sortu du; ekimenak begirada artistiko eta berritzaile bat proposatzen du Arrasateko kooperatibari buruz, eta liburu bat eta soinu banda bat dira emaitza. Abenduan argitaratu zuten liburua eta han batutakoarekin askotariko diziplinak biltzen dituen ikuskizunari azken ukituak ematen ari dira -musika, bertsoak, dantzak, eta errezitaldiak-. Emanaldi izarra irailaren 14an Gasteizko Buesa Arenan eskainiko dutena izango da; baina, aurretik, haren lagin edo erakusgarri bat eskainiko dute hainbat herritan.

Arrasateko Amaia antzokian abiatuko dute herriz herriko ibilbidea, otsailaren 22an eta 23an 19:30ean egingo dituzten emanaldiekin. "Sinfonia Kooperatiboa proiektu potoloa da eta ilusio berezia daukagu Arrasatekoarekin, hauxe izango delako gure estreinaldia. Bi helburu ditugu: ikuskizun artistiko ederra eskaintzea eta jendea gosez uztea irailaren 14an egingo dugun ekitaldi erraldoira joan dadin gogoa pizteko", azaldu du Mondragon Taldeko Erakunde Harremanetarako zuzendari Iñigo Albizurik.

Oinarrian, sinfonia koral bat Izen handiko sortzaileekin elkarlanean sortu du Mondragon Taldeak ekimena, eta horien artean dago ikuskizuneko eszena zuzendari Josu Camara: "Guztiaren oinarrian pertsona jarri nahi dugu, zenbat lagun pasatu diren kooperatibatik, ze bizipen izan dituzten... Hori guztia islatuko dugu irudiekin, musikarekin, kantuarekin, bertsoekin, dantzarekin eta beste-lako eszenaratzeekin".

Gasteizko ikuskizunak eta herriz herri egingo dutenak oinarrian egitura bera izango dutela dio Camarak: "Sinfonia koral batenez, bere mugimen-

duak izango ditu; hortaz, obertura batekin hasiko da, eta beste zazpi izango ditu ondoren; pieza horien bitartez, kooperatibako alor eta garai ezberdinetan zehar ibiliko gara: ezagutzatik, finantzetatik, industriatik eta banaketatik, esaterako. Era berean, omenaldiaren pieza, nazioartean egotearen garrantzia adierazten duena eta etorkizunari begiratzen diona daude. Herriz herrikoa bertsio murriztuagoa denez, zortzitik lau kantu eskainiko ditugu".

Fernando Velazquez konpositore ezagunak sortutako doinuak dira, eta hark dio "guztioak ulertu, disfrutatu eta erraz abesteko moduko lana" dela, "belarririk bihotzera iristen dena". Jon Sarasua aretxabaletarrak, soinu bandaren letra egileak, horrelako egitasmo bati letra jartzea "nahiko konplexua" izan dela dio, eta "sinpletasunaren eta sakontasunaren arteko konbinazioa bilatzeko borroka izan dela". Bien arteko elkar ulertzea oso ona izan da, "guztia bion artean" egin dutela diote, "batak bestearen esparruan eraginda".

200 lagunetik gora

Askotariko diziplinak batzen dituen proiektua da *Humanity at music* eta halaxe izango da



Monterronen eguaztenean egin zuten entsegua. MONDRAGON KORPORAZIOA

ikuskizuna ere: "Kantuak entzuten diren bitartean, gauzak ikusiko ditugu, emozioak ukitu nahi dizkiogu publikoari", dio eszena zuzendariak: "Gasteizko emanaldian Euskadiko Orkestra Sinfonikoa izango da eta herriz herrikoetan Arrasate Musikaleko orkestra izango dugu lagun".

200 lagun inguruko haur eta helduen abesbatza ere izango da ibiltarian eta Gasteizkoan: Arizmendi Haur Abesbatza, Goikobalu txiki eta helduena eta Bilboko Iubilo abesbatza. Ibiltarian lau pieza kantatuko dituzte, guztiek elkarrekin lehenengo eta azkena, eta helduek bakarrik beste biak: "Oso politak dira, gozokiak! Melodia oso politak dituzte, itsasten diren errepikekin. Kantuen hitzekin izan dute lan handiagoa haurrek. Hasieran, kostatu egiten zitzairen ulertzea, eta, ipuin moduan kontatuta, ulertu eta, bide batez, Arrasateko kooperatibaren hastapenei buruz ikasi dute. Goikobaluko kide moduan, grabazioan egon nintzen, baina hau-

rrekin abenduan hasi ginen lanean. Astean birritan egin ditugu entseguak, eta azken txanpan hirutan batuko gara; gure entseguak eskolako jolas-orduetan dira. Laguntza izugarria izan da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren audioa izatea entseguetan, luxua izan da!", kontatu du Arizmendi Abesbatzako zuzendari eta Goikobaluko kide Rakel Murgiondok.

Horiez guztiez gainera, bertsolariak eta aktorea ere izango dira taularen gainean: "Amaia antzokian Julio Soto eta Amets Arzallus, Olatz Pagaldai aktorea, Maite Mutuberrria ilustratzailearen irudiak ere agertuko dira, eta sorpresa gehiago ere bai; Pilar Kaltzadak gidatuko du ikuskizuna".

ASKOTARIKO DIZIPLINAK ETA PUNTA-PUNTAKO SORTZAILEAK BATZEN DITU IKUSKIZUNAK

Sarrerak 15 eurotan salgai

Amaia antzokiko leihatilan eta online, Arrasate.eus eta Humanityatmusic.com atarietan, eros daitezke Arrasaterako sarrerak. Bigarren atari horretan ekimeneko liburua ere eskura daiteke, 25 eurotan; eta baita Sinfonia Kooperatiboa entzun ere.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

PATXO TELLERIA ETA MIKEL MARTINEZ AKTOREAK,
JON GOMEZEK ELKARRIZKETATUTA

OTSAILAREN 15EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

OIER ARANZABAL MUSIKARIA ETA ZINEGILEA,

JONI UBEDAK ELKARRIZKETATUTA

OTSAILAREN 20AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Iparragirri idatzitako gutuna, irabazle nagusia

Iñigo Legorburuk eskuratu du lehenengo saria; Ane Labakak, bigarrena; Gazte Saria Ainhoa Pardinarentzako izan da; eta Bergarako onenarena Mikel Azkarate-Askatsuak jaso du. Esaldi onena, berriz, Ainara Elizondok idatzitako 'Arma, tiro... zu: su! izan da

A. Aranburuzabala BERGARA

San Valentín egunean, atzo, eguna, banatu zituen Jardun elkarteak aurtengo Amodiozko Gutunen eta Esaldien sariak Irizar jauregian egin zuten ekitaldian. Antolatzaileak "pozik daude" sariketako izan duen harerarekin: 91 gutun eta 266 esaldi jaso dituzte.

Lehia estua sari nagusietan

Eneko Barberena Mondragon literaturzaleak, Nerea Ibaraguren Salegi bertsolariak, Iñaki Etxezarraga Maiztegi musikariak eta iazko sariketako irabazle Itziar Ugarte Irizarrek osatu dute aurtengo helduen epaimahai nagusia. Haien esanetan, hasierako aukeraketa nahiko samur egin bazuten ere, zalantza handiak izan zituzten, gero, onenak izendatzerakoan: "Deserosoa eta zaila egin zaigu lehenengo bien artean aukeraketa egitea; ba-koitzak bere ezaugarriekin, oso ondo idatzitakoak eta originalak dira biak ala biak". Azkenean, baina, Hernaniko Iñigo Legorburu Arregiri ematea erabaki zuten: "Anjelita Kerejetak, Jose Mari Iparragirriren emazteak, senarrari Uruguaitik idatzitakoa da. Planteamendu konplexua du, Iparragirriren kantuak txertatu ditu testuan; eta azpimarratzekoa da, era berean, Legorburuk egin duen ahalegina XIX. mendeko euskararen idazten".

